

EUSKALZALEEN BILTZARRA



Donostian, 1961 abenduaren 20 eta 21-eau

Lendabizi meza bat izan zan goizeko amar ta erdietan Garibay kaleko Aita jesuiten elizan Nikolas Ormaetxea «Orixe» zanaren alde eta gero Ayuntamiento zarraren gela eder batean egin zan biltzarra goiz ta arratsalde eta biaramoneko arratsalde.

Maipuruan Iñazio Maria Etxaide, Aita Iñazio Larrañaga apezpiku jauna, Antonio Arrue, Manuel Lekuona, Luis Mitxelena, Aita Luis Villasante eta Alfonso Irigoyen daude.

Antonio Arrue jaunak eman zion asiera: Euskal astea zala-ta alkarrizketa bat egin genduan. Orduan ezkendun oso ondo antolatatu noski, baiña, tira. Au aren jarraipena besterik ezta. Biar arratsaldean ikusiko dira ondorenak eta Euskaltzaindiari pasatuko zaizkio erabakiak ar ditzan. Aurreneko saioa teatroaz izango da eta Antonio Labayen jaunak du itza.

Antonio Labayen jauna paperik gabe aritu zan itzak zetozkion bezela esanaz: Euskal teatroaz zerbait esan nai duela ta dio gaia onela zetorrela: «Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean». Badirudi emen aitatu degula gaurkotasuna, oraingotakotasuna, aktualidade zerbait. Beste era batera esan liteke au «Nola erein teatro zaletasuna». Gutxi gora beera asmo bat da eta asmo ori da noski gure teatroari indarra ematea. Eta nola eman gure teatroari indarra? Danak aburu batekoak izango zerate. Teatroa ezta aitzen urtean bi, iru bider besterik eta eztauka indar aundirik. Eta uste du naiz bertsolekin, naiz txistulari, naiz kantari edo beste talde batzuekin egiten dana egin bear litzakeala teatrolari taldeekin ere. Ortarako Euskalerrri guzirako txapelketa bat eratu eta dio etorriko lirakeala, bai beste aldetik, bai emendik, talde batzuk. Bere iritzirako beai utzi bear litzaeke teatro lana aukeratzeari. Orainarte egin izandu da gauza jakin bat jarri, baiña ori da gauza aspergarria, beti gauza bat ikustea, jentearantzako. Obe litzakeala dio bakoltzari berak ondo dakiten ta gogoko duten lana agertuaztea. Bein izenak eman ezkeru egunak aukeratuko lirake noski, aal dala Donostian edo beste uri aundi batean, Bilbon,

bear bada Tolosan, egun jakiñean eman dezaten bere ikusgarri ori, bi edo iru illabeten buruan, igandeetan edo jai egunetan. Ortako, jakiña, kondizio batzuk jarri bearko lirake taldeei ta ontzat artu ere bai aurretik zer eman bear duten eta gero gure Euskaltzaindiko nagusiak aukeratuko lukete juradua, epaikariak, eta aiek emango lituzkete sariak onenai edo beintzat gauza ederrena egin dutenei, gustokoa egin dutenei. Au da era indarra emateko gure teatroari, era bat beintzat. Olako zerbait Parisen egiten dute. «Théâtre des nations», mundu guziko errietakoak, bakoitza joaten da bere ianakin ta gero esaten dute: aurtan alakori ta alakori ematen zaio aipamen berezi bat. Neretzat ori da biderik onena indarra emateko gure teatroari. Teatroak eskatzen ditu gutxienez iru kondizio. Bata, bear dira obrak, bear dira komeriak. Bigarren, bear dira teatro ori jokatuco dutenak, taldeak. Irugarren, bear da, jakiña, publikoa, jende publikoa, ikusleak. Bear lirake iru oik. Batek uts egiten badu eztago teatro osorik. Batzuk, kontentagaitzak, esaten omen dute eztagoela lanik, baiña bere iritiz uste dan baiño lan geiago dago. Gertatzen da ikasi egin bear dirala eta eman egin bear dirala jendearen aurrean. Gaia, teatroaren gaia, ezta gauza bat besterik: sastre batek bezela egitea, oiala artu eta puskak egiten ditu, bere asmoa badu, baiña ezpadator ondoren jostuna puska oiek josiko dituen ta eratuko duena ezta ezer egiten. Bear dana da egin ta bear ditugu jokatuco dutenak. Eztegu ezer egiten obrakin bakarrik. Ezpadira agertzen, ezpadira bizitzen alperrik da. Ortako sariketa nal ta naiezkoa degu. Irugarren, bear degu jendea, publikoa, eta bera gabe teatroan eztago ezer, gauza utsa da. Beste arteetan, pinturan, batek etxera eramango du kua dro bat eta beste batek ikusiko du eta gogoko bazaio gustoa artuko du, musikan ere berdin, baiña teatroan bear da jendea ikusgarria ikusteko eta orrek egiten du teatroa. Eta kritika ere bearrezkoa degu gauza txarrak eta onak bereizteko ta jendeari erakusteko. Teatroa, beste arte guziak bezela, une naasi batean dago orain. Eztaki iforik zer dan ona, zer dan txarra, zer dan zar eta zer dan berri. Urduritasun aundia dago ta ismo asko, oraingo korapilloak eta oraingo gauzak. Emen Donostian bada kritikari bat gauza jakingarriak maiz esaten dituna eta euskalduna da gaiñera eta gure teatroari ere sarrera ematen dio sarri. Teodoro Gofi da eta irakurriko zenduen. Gogoratzen dan bere gauza bat aipatzen du eta gogora dakar nola itz egiten duen gauza guzti orietaz, oraingo teatro berri zalekeri ta beste gauza askotaz eta asko erakusten omen du. Esaten da teatro berria egin bear dala. Bere iritzian teatroa ondo egiña badago zartu baiño geiago zimeldu egiten da, ona baldin bada ere kolorea galtzen du, galtzen du freskotasan ori, galtzen du usaia. Ezta txarra dalako, baizikan giroak, teatro giroak, agortu egiten

du, sekatu, eta kentzen dio freskotasan ori. Beraz, jakina, gauza berriak agin bear dirala dio, gauza mardulagoak eta gauza oraingoak. Bestela teatro eremua oso bazterrean geldituko da. Bakoitzak bere teatroa egiten du eta eztu neurririk, teatroa egiteko tankera asko dira eta len da orain izan dira. Orain bada alako berezitasun bat teatroan drama edo tragedia deitzen zaiona. Dramak eta trajediak, jakina, aunditasun aundia dute eta alako indarra ere bai, baiña uste du oraingo zenbait jende kutsu bat artua duela, gauza guztiak illun eta beltz ikustea. Sobra omen daude munduan, ala ere berak maite du irria luze eta nigarra labur Lapurdi aldean esaten duten bezela eta era ortan tajutzea naiago du bere lana. Beste tankera asko ere ba omen dira. Gogoratzen du denbora asko ezjala Parisen adiskide batekin joan zala zerbait ikustera surrealismoa esaten zaien erakoa. Ionesko edo alako bat omen zan egilea eta benetan oso itzal ta itxusia ta aspergarria iruditu zitzaion.

Naiago dula. esan omen zion lagunari, Molière edo beste olako bat ikustera joan. Teatro gizenagoak dira aiek eta orain Franzian eskola ortakoak ere badira. Oraingo berrietan Pagnol eta Achard aipatzen ditu eta ez omen dira edozein, naiz berdekeri eta likitz sobera izan, baomen dute indarra eta bestela ere, idazle bezela ere, aintzakotzat artuta daude eta naiz Pagnol eta naiz Achard biak kupulapean daude. Ori badakizute zer dan, ango Akademiko lagun artean. Beste teatro mota asko dira, amerikanoak, eta an noski gauza onak dituzte, inglesak, eta batipat Bernard Shaw baten mallara ezte uste iristen diranik, beste teatroak, Bertold Brecht badirudi teatro berri ta oparoa dala eta lan ederrak dituna, emengo espainioletan ere onak badira, asko, nik baiño obeto ezagutzen dituzute eta eztitut aipatuko. Baiña nere gogoko «La Celesina» baiño gauza ederragorik egitea ezta erreza izango. Gallurrean dago, naiz eta urteak joan eta piskat zartua izan. Ura beti an dago. Ikusten det ni luzatzen ari naizela, nere asmoak esan ez ta bidea piskat bazterrera utzita. Etzaituet geiago aspertu nai eta lengora joango naiz. Zuek nere ondoren zuen iritzia esan naiko dezute eta ni lengora noa. Uste det emen atera bear lira-kela asmoak eta Euskaltzaindiko buruei asmo oiek agertuazi, sari-keta edo txapelketa eratzeko modua egin dezala datorren urtean. Nola ta zer nolak eta, ori gero burutu liteke. Uste du in bear dala aukera utziaz talde bakoitzari bere lana agertzeko eta aal dala Donostian. Erreztasunak emango omen lituzke, bai Ayuntamiento etxeak eta bai beste agintariak eta bestelako batasunak, indarra emateko asmoarekin, eta orrela ikasiko lirake obrak ere asko, sortuaziko lirake taldeak ta bein lana artu ezkeri ta ikasi

ezkero agertu lezakete ikusgarri ori leku askotan ta orrek emango lioke bizi berri bat teatroari. Ikusten dezute erderaz ere momentu ortan Donostian lan asko egiten dala, ikusten da afizioa badagola eta guk ere euskerazko teatroan bide ortatik jarraitu bear degu eta ola landuko genduke gure baratza, aterako genituzke gure obrak, bear bada ezтира izango ain ederrak, ain oparoak eta ain apaiñak, baiña izango lirake gureak, freskoagoak, usaintsuak eta modu ortan emango genduke indarra gure teatroari, teatro txikia, baiña gurea. Eztaukat beste zer esatekorik, uste det geiegi luzatu nai zela eta orain zuek dezute itza gai ortaz.

A. Arrue jaunak dio ia iñor mintzatu nai dan eta Jose Antonio Arkotxa jaunak artzen du itza dagoen lekutik bertatik; Dio bera ez tala Parisen ibili, ez tala urrutian ibili, bere errian ibili dala eta ez talaria bere erriko gauza besterik. Labayen jauna ezaguna omen du orain ogeitaamar urte eta aspaldiko urteetako gogorazio bat aipatzen du Labayen jaunak noski ez talaria, aaztua daukana. Ta Labayen jaunak esan duen bezela ibili nai z Ondarroan, ibili nai z Lekeition, Bilbon, Elgoibar, Eibar, Deba, Vitoria, Motriko.

Txapelketa aitatu du Labayen jaunak ta joan dan urteko txapelketa Egan-en irakurtzen zan bezela nolabait ta prisaka egiña zala eta ni gai orretaz zerbait esateko asmoz etorri nai z ona. Dio bat datorrela talde bakoitzak berea artu bear lukeala esan duen ortan. Ala ere gauza bat gertatuko omen litzake, taldeak lana artuko lukete, baiña bere iritziz batzuk izango lirake musika duten taldeak, Ondarrokoa bezela, Agustin Zubikaray zuzendari dala, eta beste asko izango lirake obra olako errez samar batzuk artuta eta jakifia ondarrutarrak etortzen badira guretzat izango da txapela ;nik uste! (grazia aundiarekin esaten du eta parreak gogoz entzuten dira). Labayen jauna serio ari da, ni ordea piska bat komiko samarra nai z. Bi sari, beraz, ipiñi bearko lirake sariketa ortarako. Sari bat musikadun taldeentzat eta bestea musika ez tarabiltenentzat. Eta sail bi oietan ere beste bi mailla jarri bear lirake. Amabost lagunetik berakoak eta amabostetik gorakoak. Jakifia, erri txiki bateko talde batek ezin lezazke ekarri berrogei edo eun lagun guk eraman izan ditugun bezela Bilbo eta Vitoria aldera eta ortan guk bentaja daukagu. Eta hi sail oietan gero erabakia. Erabakia, nik Labayen jauna oso maite det, berak ez tu jakingo baiña oso maite det eta Egan-go bere kritikak beti irakurtzen ditut eta atz gabeen ere Egan arrapatu eta an ibili nintzan, danok onenak geralakoan egoten gera eta gero maipurukoak erabakia eman bear. Ortarako bere iritziz erriari eman bear litzaioke erabakitzeko es-kubidea. Juradukoak egongo lirake beste gauza baterako. Baiña erriak bear duan ala ez tuan ikusi bear degu. Eta erria ikustera

doanean, emen Donostian gertatuko da ori eta orregatik donostiarrak kendu egingo nituzke, zergatikan Donostiako botoak jarri ezkeron donostiarrak joan eta aiek irabaziko lukete txapela (Barreak). Ta Tolosa-n edo egingo balitz botoa emateko txartelakin orduan erriak erabakiko du eta juraduak eztauka ezer erabaki bearrik. Gero esan du Labayen jaunak iru kondizio bear dirala teatroa egiteko. Egilleak, jokalaria eta erria. Iru kondizio oiek irabazi ezkeron dana egiña dagola ta nik egia esan, eta parkatu maipuruko jaunak, lau bear dirala esango nuke, egilleak irabaztea, jokalaria irabaztea, erria irabaztea ta juradua irabaztea. Dio berak saria irabazi izan duanean eztakiala zergatik irabazi duen. Ba omen dira juraduarentzat idazten dutenak (Barreak entzuten dira), erriarentzat ez, eta jakiña, juraduaren botoak irabaztera dijoaz. Aspaldiko gertaera bat dakar gogora, «Educación y Descanso»-n bigarren sariketa. Orduan gauza txiki bat idatzi omen zuan eta orain irakurtzen duanean galdetzen omen dio bere buruari, baiña oni nola eman zioten saria? Poztuko ez nintzan ni? Poztuko ez nintzan ba? Ori nai nuan ba, poztutzea. Ta gertatu omen zan olerki sariketara aurrerago publikatutako olerki bat bialdu zuana eta txapelketa artan juradukoak konturatu ziran eta kanpora bota zuten. Ondo egiña. Baiña orain lau urte inguru beste sariketa bat izan zan eta sariketa ortan lenengo saria eman zitzaion orain irureun urte inguru zabaldu zan lan bati. Jakin zan zabaldutakoa zala, etzala berea, baiña lenengo saria emanda zegoan ordurako, eta kritika egiten duenik bat ezta izan obra ori nola azaldu zan esateko eta au komedi bat bezela agertzen det. Literatura bezela eztiot merituan ezer kendu ari eta juraduak ere ura etzuen ezagutzen nonbait gero arte eta ari saria eman zion. Badakit aren atzetik geratu ziran lan asko erriarentzat joango balira askoz obeak dirala teatro bezela, bear bada literatura bezela eztira izango obeak eta orregatik esaten det lau kondizio bear dirala ta juraduarena ere kontuan artu bear dala. Dio Labayen jaunak kritika ere aitatu duela eta ori ere bear degula, baiña kritika ez beti eskua zabaltzekoa, arrazoia dan bezela esatekoa baiño, egia agertu, kritika egin bear bada egia esan, edo bestela batere ez esan. Guk teatroa indartu nai degu eta ondo dagoena ere esan bear da, baiña disimuloan bada ere esan bear litzake au eztago ondo. Ola danok ikasiko genduke zerbait. Nik badauzkat bost lan idatzi eta sarituak. Iñork eztiot ezer esan, nik diplomazi gutxi daukat, eztet lagunik izan eta or geratu dira, eta egia esaten badet eztakit zergatik irabazi zuten saria. Eta orregatik uste det kritika egin bear dala eta ortan Labayen jaunarekin bat nago. Kritika bear da eta zorrotza, baiña ez gorrotzkoa, egia esan ezkeron

ni ez nintzake sekula asarratuko. Jakina, ikusi ezinez esan ezker
asarratuko nintzake (Txalo beroak egiten zaizkio).

A. Labayen-ek artzen du itza: Ainbeste gauza esan ditu gure
ondarrutarrak, asko gogoan artzekoak. Uste det emen maipurukoak
eta guziok gogoan artuko ditugula garaia etortzen danean. Orain
momentu ontan eztago xeetasun eta zer nola guztiak borobiltzerik,
baia gogoan artzekoak dira eta aintzakotzat artuko dira. Neri
aztu zait leno ondarrutarren gorapena egitea, merezi baitute, egia
da, ta askotan komeri egilleak baiño meritu geiago dute, len esan
degun bezela, lan egiten dutenak, ori lan aundiagoa da. Orregatik
Toribio Alzaga batek meritu aundiak ditu teatrogille bezela, baiña
esango nuke geiago duala teatro zuloan sartuta egin zuen lanak.
Erakusten ibili zan gizona eta saiatzen egun askotan, ori da lana
eta ori egiten dute ondo ondarrutarrak, Zubikaray eta beste guz-
tiak. Orregatik txalo aundi bat merezi dute eta uste det danak
emango diotela pozik txalo ori (Txaloak entzuten dira). Emen egi-
ten dute Maria Dolores Agirre eskolakoak. Ortan saiatu bear du
eta lan txarrena eta lan gaitzena orixe da, ordu asko eramaten
baitu. Egunero bildu zaite an, ikasi zazu. Lan aundia ematen du.
Gure Monzon Olaso-k ere merezi du txaloa, arek ere lan aundia
egiten du gai ortan eta gaiñera bera ere komediantea da.

L. Mitxelena jaunak artzen du itza: Arkotxa adiskideak gau-
zatxo bat aitatu duen ezker, ortaz, naiz bidenabar izan, zerbait
esatea iruditu zait. Ni ere tartekoa nintzan istillu artan eguerri
bezperan eta ikuskizun ori saritu genuenean —eta orain berriro
Aita Villasante-k esaten du— zer gertatu zan? Nere aldetik bein-
tzat gauza argia ta garbia da. Ni alde batetik oso pozik nago nere
botoa Aramayo-ko Barrutia-ren alde eman nuelako, baiña egia
esan ezjakinean eman nion. Emen gauza bat gertatzen da, ori
Labayen jaunak ere esan du, uste baiño gauza geixeago ditugu.
Edozein aldetatik begiratu ezker, gauzak ondo aztertuta, geiene-
tan guk uste degun baiño gauza geiago agertzen zaizkigu euskeraz
idatzita. Eta teatro kontu ontan ere orixe bera gertatu da. Aita
Villasante-k esan du liburu ortan bertan, oso oker ezpaldin ba-
nago, norbait etorri zitzaiola **Kempis** itzulita, lenbiziko aldiz eus-
keraz itzuli izan baldin balitz bezela. Bein agertu zen San Fran-
cisco de Sales-en liburu baten berria, euskeraz itzulita nola zeto-
rren. Eta an etzen esaten gauza bat, liburu ori agertuta berrogeta-
amar urte edo berrogei urte pasa baiño leen euskeraz itzulita ze-
gola. Eztut esaten itzulpen ura bera gaur erabili bear dugunik,
baia nolana ere eztago gaizki esatea liburu au bein baiño gelago-
tan euskeraz ipifi izan da eta lenbiziko aldiz oso aguro gaiñera.

Barrutia-rekin zer gertatu dan? Barrutia-ren lan ori agertu zen Euskalzale-n. Jakifia, Euskalzale mundu guztiak eztu ezagutzen eta nik ere eznuen ezagutzen, egia esan. Azkue jaunak agertu zuen ori batez ere orduko, XVIII-garren mendeko euskeraren zenbait gauza bitxi gero agertzen eztirenak agertzen direlako. Nik Barrutia-ren berri banuen Azkue-k Morfologia-n eta beste lekuetan ailtzaten duelako. Baiña enuen uste alde ortatik kanpora beste baliorik zuenik eta bestetan esan izan dudan bezela Urkijo jauna bein baiño geiagotan euskal teatroaren jatorriaz eta asieraz mintzatu izan danean, eta gauzen berri oso ondo jakiten zuen, beti Peñafloida agertu izan da. Eta oso oker ezpaldin banago Orixe zanak egin zuen euskal literaturaren kondaira laburrean ere ezta aitazten Barrutia. Beraz, nere aldetik beintzat ezjakifiaz izan da. Ori aitortzea legezkoa da.

J. A. Arkotxa mintzaten da: Ezjakifian izan bear, bestela plajio bat saritzea da. Ori edonork daki. Baiña diodana da kritika bat ezala izan ori esateko. Ta bear bada beste batentzako saria zan, asko etzan baiña. Kritika egin bear da eta egia esan eta egia esan ezkeru batzuentzat mingarri bada ere egiarekin konformatu bear degu.

A. Arrue: Bigarren egille orrek ziria sartu zigun. Juradukoak antzeman zioten zar usaia. Usaia. Etzala oraingoetakoa. Baiña eztago eskubiderikan.

Aita Isidoro Basterrika-k dio bere iritziz ortan utsunerik aundiena dala gaurko egunean teatro obra gutxi dirala, lenago ateratzen zala Antzerti eta orain orrelakorik eztagoela. Dio berai eskatu dizkietela Legorreta-tik, Isasondo-tik, Villafranka-tik, Segura-tik, Ataun-dik, San Gregorio-tik, San Martin-dik, alde guztietatik, eta teatro taldeak badaudela. Makifiaz kopiatzen saiatu bear izan omen dute.

A. Arrue: Labayen jauna, zerbait esan dezu, baiña zeatzago esango al zenduke zure iritzia euskal teatroa beste izkuntzetako teatroakin konparatuz nola dabilen batez ere teknikan, gaurko teknikan?

A. Labayen-ek dio ezuela uste alako aldaketa aundirik dagonik teknikan. Parisen bost urte osoan eman duten obra bat aipatzen du. Sei pertsona eta iru ekitaldi ditu, gauza arruntak. Teknikaz ez omen dago ezer berririk, edo teatrolariak jende tartera jeisten dirala edo olako gauzak, aldaketa txikiak, eta eztu uste alako ajola aundia duenik. Uste du teknika bigarren maillan dagoen gauza

bat dala. Berriz egin bear da, teatroa zartu egiten da errez. Beti zerbait berri eskatzen du. Orain gaiñera zinearen kutsuak ere ori egiten du. Zineak baztar aundiagoak ditu eta errezago betetzen ditu eta teatroa gelditzen da motzago. Eztu uste eragozpen aundia danik teknikari buruz. Teknika baiño geiago —teknika piska bat azala da— izpiritua bear du, eta karakterrak teatroan garrantsi aundia dute, karakterrak ondo egiñak.

J. A. Arkotxa-k artzen du itza eta dio nola teknikaz ere ikasi bearra dagoen, egintza batekoa edo bitakoa edo iru egintzakoak nola izan bear duen, egintza non asi eta non bukatzen dan.

A. Labayen-ek erantzuten dio Lope de Vega-k aspaldi esandako gauza bat aitatuaz eta nola ordu pare bat edo orduterdi jentea ikusten euki bear izateak agintzen duen nai ta nai ez. Ta atal batekoa izan liteke lan oso ona, olakoak ere bear dira, baiña ordu erditxo bat irauten dute. Bi ordu edo orduterdi irauten dutenak jartzen dute neurria.

A. Zubikaray jaunak bere itzaldia irakurtzen du.

EUSKAL TEATROAZ

Ba'zenkien orain larogei urte Bilbo'ko Ayuntamiento Nagusiaren aginduz Calderon de la Barca'ren "El Alcalde de Zalamea" euskeratu zanik?

Gure literaturaren sakonetan dabilzan Mitxelena eta Villasante'ri lan onek iges egin dautse. Ez da arrigarri. Liburu orrek, azalean, erdel kutsua dau. Delmas'en etxean txukun eta dotore argitaratuta dago. Letra txiki-txikietan igarten da euskeraz dagoana.

Orri bakoitzean erderaz eta euskeraz dator, euskeratzallearen esanez, erdeldunak obeto artu dagien itzulpena.

Euskeratzallea Pedro Iza eta Agirre, bilbotarra, Santurtze'n bizi zana. Liburu onetatik berreun zenbaki agertu ziran.

Nik oraintsu eskuetan erabilli nebana 115 garrena zan ta gaur Bi'bo'ko Diputaziñoiko lendakari dan Plácido Careaga jaunarena zan.

Ara itzaurreko agerpen batzuk, erderaz:

“...Como se trataba de conmemorar por mi pueblo natal la esclarecida memoria del insigne dramaturgo español en la antiquísima habla de los primeros pobladores de España, era caso de conciencia para los que cultivamos la literatura euskara darla a conocer en formas distintas a nuestros hermanos, que casi la desconocen, y así es que como bilbaíno y euskarista, aunque de los más humildes, me he creído en el deber de aceptar con gusto tan honroso cometido.

...Al dar la preferencia a El Alcalde de Zalamea entre las comedias de D. Pedro Calderón de la Barca, se tuvieron en cuenta las especiales condiciones de esta obra, a la vez que la estructura de la lengua euskara. Ofrece El Alcalde de Zalamea caracteres de lugar que dicen muy bien con los que todavía por fortuna nuestra se conservan en esta tierra. Tiene además la ventaja de no ofrecer dificultades serias para la versión que se trataba de emprender, pues de todos es sabido que el euskara, encerrado como ha estado entre estas montañas y usado hasta hace un siglo únicamente por la gente del pueblo, a causa de la inquina y ojeriza con que era mirado en el resto de la Península, no ha podido desenvolverse y enriquecerse en la proporción en que se enriquecían y desenvolvían las *erderas* castellana y francesa.

He escogido para la versión el dialecto bizcaino por ser la representación de Bizcaya la que tributa este homenaje de admiración al gran poeta y por ser a la vez el dialecto que mejor poseo de los cuatro en que la lengua euskara se divide.

Como esta lengua es por desgracia casi desconocida de los hombres de letras españoles, he procurado hacer la versión lo más literalmente posible con el objeto de que pueda servir de estudio comparativo. No se extrañarán por tanto los maestros del euskara si hallan alguna que otra frase violenta o poco armoniosa.

Aunque entre nosotros no hay todavía una Academia de la lengua, la generalidad de los que en euskara escribimos hemos adoptado, por considerarla la más conforme a su índole, la ortografía admitida y enseñada por mi esclarecido y generoso maestro, el por tantos méritos ilustre príncipe Bonaparte...”

Ikusten denez, orain larogei urte, ta geroago be, gure erri nagusietako agintariak ardua pixkat eukiten eutsen euskereari teatroaren bitartez, teatroa bitartekotzat artuta, lagundu ta ezagutu eraziten.

Gaur, eragozpen, traba ta zuzentasun bako uste asko baztertzea elitzake laguntasun gitxi.

Erri guztietako teatroak izan dituez makalaldi, asperraldi ta berakoak. Illeta asko jo izan da literaturetan, dirua bitarteko dan arazo guztietan jotan dan antzera. Baña teatroan eta berari buruz baño geiago, iñori ez.

Batzutan agintari ta erriaren laguntasuna falta, bestetan lan eta egi-llien egokitasun ta gatza. Giroak ez dira beti bardiñak.

Inglaterra'n bertan iru eunkada luzetan Shakespearen teatroa bizi bizi agertu izan arren, gure aldietan asko makaldua da poesia teatroa. Ta bere kutsuan sasoiko egokitasuna, sasoiko garra, gaurko teknika ta gaurko arnasa emoten jakin ebalako, biztualdi on bat emon izan eutsan Eliot'ek Canterbury'ko Tomas donearen eriotzaz, "Katedraleko Ilketa" izenez egin eta gaiaren leku ber-bertan jokatu eragiñaz.

Egillen aldetik eredu pixkat artu bear genduke bide orretan.

Teatroaren betiko gaitza danok dakigu nun dagon. Gaur, zoritxarrez, alderdirik geienetan.

Orain egun batzuk Madrid'eko A. B. C. egunerokuak, Alfonso Pa-so'ren lantxo baten, zoli agertzen eban.

"Visita al médico" eritxon lanak.

Teatroa osagille baten etxera dua.

Begira asieratik galde erantzunak.

—Izena?

—Teatroa.

—Ezkondua?

—Enaz iñogaz ezkontzen.

—Politikako begiz nundik jokutzen dakizu?

—Gazteak ezkertar ikusi gura nabe, astakilloak uste dabelako, ta eztakit zegaitik, arte guztia ezkertarra izan biar dala. Beste gizon andiki batzuk eskumako gura nabe, ta zoroak alakoak ziatz garbitu, orraztu, nai nabe. Baña enaz ez ezkertar ta ez eskumatar.

—Zelan zabiz orain?

—Erdiz-erdi.

—Laguntasunik eskintzen dautzue?

—Iñoiz bere ez. Eragozpen eta trabak ipinten daustez beti.

—Erriak?

—Erriak gero ta arduratsuago begiratzan dausta.

—Nun dozu zure miña?

—Eratzalle eta antolatzalle diru-zalietan batez be.

—Nun geiago?

—Era askotako ziza, zerga, eta errekarquetan.

—Pizkat kixkurtuta billatzen zaitut.

—Kixkurtu eragiten dauste.

—Kontuz... kontuz... min geiago be ba'dozu, itxuran, ez?

—Bai, barriketari ta kritikoen arinkeri ta begirapen makalean. Uste okerrez bizi dira asko. Enaz griñen goratzalle, kultura bide baño. Enaz pekatu bide, oituren izpillu baizik.

—Ta... osagille lez zerbait, pitintxo bat lagunduko ba'neutzu?

—Ziaro aldatuko nitzake, osasun arrigarrian sartuz...

Nik azaletik ta arintsu jaso dodan lanaren mamiñean, teatroaren gaitzen giarra agiri agirian ikusi da.

Bestiena ala izanik, zelan izan ez gurea, etxe ta kanpo, egille, jokatzalle, toki, baimen, aldi, eta abar, egokitasun askorik billatzen ez dogularik?

ZUZENBIDEAK ARTU NAIRIK

Egillien aldetik. Euskerazko teatroan gaurdaño billatzen ez dogun modu eta agerraldiak erabilli bear doguz. Gure erri txikietako leku estuei geiegi begirutzen dautsagu gure amesetan.

Teatroan edozein denporetako gaia egoki izan lei. Baña gaurko teknika ta gaurko kutsuz. Nai ta naiezko da au ta alperrik da irakurteko lan mamitsu ta dotoreak egitea, Teatroan eztabe txalorik irabaziko. Ori nai ta ez zaindu bearra dago. Norbere izatetik aparte, norbere gogoz kontra be, teatrorako gertuten garianetan, txalo eske urten biar dogu, gureztat izan ez da be, egillientzat, lanarentzat. Ezin geinke beti kijoteak izan ta ezin geinke erriaren fede-onean uste izan eta bere eroapenezko irribarretxoaz poztu. Gure teatroak bizi bear ba'dau txaloak eta dirua emongo daben teatroa egiten jakin bear dogu. Diruaren lepoz ibiltzea, bide bazterretan, gosez eta aul, limosnatxo eske ibiltzea da. Ta gaur borondate gitxi dago limosnaz auzokoari bizi-eragiteko.

Diru ekargarri dan teatroa egiten ikasten dogunean, ate asko zabalduko litzakezala seguru egon.

Jokatzallien aldetik. Bizitasuna sortu bear dogu jokatzallietan, arrokeri pixkat, arrokeria sentidu onean artuta.

Gaurko giroari tankera artzen ikasi dagigun.

Orregaitik bearrezko da teatro-erakusketen jaiak eta sariketak eratu ta ugaritzea.

Euskaltzaindiak, gaur teatroak euskerarentzat emon leiken bizi-garra ikusiz, teatro ardurazko sail bat bere barruan bereziki izentatu bear leuke, teatro jaiak eratu, bixkortu, ugaritu ta aizetzeko.

Orretarako Donosti ta Bilbo'n urte buruan saioaldi batzuk eratu, txapelketa antzera, ta urtero-urtero, edo urte birik bein, taldientzako sariak erabagi ta emotea bide egokia litzake.

Txapelketa orreitan sartzen diran taldietako jokatzallientzako, trebetasuna goratu ta zaletasuna piztuteko, bakoitzari bere zeregiñean, goragari ta aipamenezko lore, pitxi, sari edo ezaugarriak zabaldu bear dira.

Saio orrein diru-ardura berarizko batzar batek ikasi lei.

Olako txalo ta sarien atzetik, nire ustez, erri txikietako talde ugari batuko litzakez, gaur errietako taldien amesa eta gogoa erritik norabaitera urtetia izaten dalako. Gaur errietan taldeak bizitasunik agertzen ez ba'dabe, seguru egon aitzakirik indartsuena erbesteko atepak zabaltzen ez jakitetik datorrena dala. Ondo pentsatu ezkerro, aztuna da izan be illabete, bi edo irutako ikasketak illuntze bateko jai bakar baten ondoren amaitzeko egitea.

Euskaltzaindiaren lana. Lenago aitatu dot Euskaltzaindiak batzar be-rezi bat izentau bear leukela teatroari indarra billatzeko.

Gaur bakarrik ezin geinke ibilli ta jokatu.

Batasun eta zuzendaritza artezak iñoiz baño bearrezkoago dira.

Euskaltzaindiak egin leikena auxe da:

Len esan doguzan sariketa edo txapelketak eratu.

Errietako talde ta langilliei atepak zabaldu.

Nai litzake gaur nun, ze eratan ta zelako kondisiñoitan teatroan lan egin leiken argi-bide bat eukitea. Au da, nun dagozan teatro lanak emon leikezan aretoak, ze eskatzen daben, ze egunetako uzten daben, zelako giro ta erantzupenez erri arek edo leku arek laguntzen daben, zelako neurrietako sala, eta antzerako zertzeladak, gitxi gora bera, al danik ugarien jakin bear litzakez.

Jakiña da, Euskaltzaindiaren besotik joan nai leukenak zintzo ta bu-ruausterik emoteko dudarik barik jokatu bearke leukela.

Bein lanian asi ezkerro, nire ustez egoki izango litzake, orain, urte bitik bein Alzaga sariaz aupatuten dan teatro-lana, Euskaltzaindiaren ustez yayo ta tajuz egingo leuken talde baten gain uztea, berari bideak emonaz Euskaltzaindiaren ardurapean lan ori Bilbo'n eta Donosti'n beintzat agertu eraziteko. Teatro lanak bizitasun gitxi emongo dautse euskereari ezkutuar

lotzen diran artean, eta bestera, lan orreik bear dan agerpena ba'lebe, erri guztian sortuko litzake keska eta ardura eta orduan egile ta taldeak ames barriz biziko litzakez.

Ta euskal teatroari ames eragin bear dautsagu euskerearen onez.

Agustin Zubikaray.

G. Aresti jaunak bere itzaldia irakurtzen du.

NOLA EREIN TEATROAREN GAURKOTASUNA EUSKALDUNEN ARTEAN

Lehenbizi egin behar dugun gauza, hau da: Batera, iritzi batera etorri behar dugu guztiok hea zer den teatroaren gaurkotasuna. Niri askotan pasatu zait eznaizela nire ingurukoen egun berean bizi. Badirudi ni gaurko egunean bizi banaiz nire inguruko asko atzoko egunean bizi direla, edo nire ingurukoak gaurko egunean bizi badira ni biharko egunean bizi naizela.

Hitzaldi hauetan gaurko teatroaz mintzatu behar da, nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean. Eta gertatzen da gaurko euskal teatroa ez dela gaurkoa, joan den mendekoa baizik. Horretarako bildu gara hemen, zahartasun zipriztin hori gure artetik behin eta betiko aldarazitzeko. Gure teatroa moralista da, badirudi sermoi edo prediku bat entzuten dugula, euskal komedia bat ikusten dugunean. Niri oso ongi iruditzen zaizkit predikuak, baina elizan. Apaizak ere, elizatik kanpoan mintzatzen direnean beste mintza molde bat hartzen dute. Zergatik egiten dute, beraz frakadunek, apaizek berek ere egiten eta egin nahi ere ezuten gauza. Zergatik izanen gara Aita Santua baino santuagoak?

Hori da gure lehen akatsa. Bigarrena hau da. Askotan esan da: Teatro txikia, baina gurea. Zergatik sartuko gara txikitasun zeken batean, gauza haundiak egiteko kapaz garenean? Teatroa egin dezakegu, eztago horretan inolako inposibilitaterik, eztago horretan ezintasunik, zineman eta telebision dagoen bezala. Berdin kostatuko zaigu ona egitea edo txarra egitea, teatro haundia egitea edo teatro txikia egitea. Beraz, munduko teatroa estudiatu behar dugu, bertan zer ongi dagoen ikasi, eta bide horretatik

perma eta abia. Jakin behar dugu nor den Ugo Betti, nor den Pirandello, nor den Williams, Miller, Brecht, Becket eta Ionesco. Eta maisu hoetatik lezioak hartu.

Metodoak eta teatroa egiteko bideak eta moduak asko aldatu dira azken urte hauetan. Modu berri hoek ikasi behar ditugu, eta gure teatroan aplikatu.

Komedietan eta trajedietan ikusten ditugun gauzak oso haltura guttikoak dira. Horretan ere makal gabiltza. Gaurko problemak atera behar ditugu, jenteak, euskaldun jenteak pentsa dezan, gelditasun estatiko batean ezta din para. Teatroarekin bete ditzakegu euskal kulturaren dauden hutsuneak asko. Euskal kultura partituz ditzakegu euskaldunen artean liberekin batera. Euskal kultura eta munduko kultura berriak, bizitza molde berriak, pentsaera eta portaera berriak. Euskal kultura berriak behar dugu, eta biderik egokiena, erraxena eta politena teatroa da; komedia asko eskribitu behar ditugu, lehengo akats eta tonteria guztiak alde batera utzi behar ditugu.

Baina hau guzti hau egiteko, teatroa montatu behar da, organizazio bat, eskribitzale eta teatroko beste jentearen arteko organizazio eder bat.

Teatroan bi persona dira oso inportantzi handikoak: Eskribitzalea eta zuzendaria. Eskribitzaleak komedia eskribitzen du, eta zuzendariak gero ematen du jentearen aurrean. Bata bestea gabe ezta ezer, ezkerreko anka izanen da eskumakoa gabe, ibiltzen ezten gauza, gauza maingua. Zertarako eskribituko du idazleak gero zuzendariak teatro etxean eta jentearen aurrean ematen ezpadi? Eta zer emanen du zuzendariak, aurretik eskribitzaleak eskribitzen ezpadi? Teatro talde berriak formatu behar dira, eta talde hoi buruan zuzendari trebeak, gaurko teknika berrien jakitunak.

Atzerriko teatroa ezagutu behar da, baina ez itzuli, ez hitzez hitz itzuli. Atzerriko komediarik ezugu eman behar. Jente arruntak eztauka zergatik atzerriko gauzarik suportatu, aldezaurretik gure problema guzti argikuntza dastatu gabe. Eskribitzaleak eta zuzendariak dira teatro hori sustraitik eta lorragiño ezagutu behar dutenak.

Euskal herrian gaiztasun handirik gabe ehun teatro talde berri forma litezke. Baina hogeirekin kontentatuko ginake. Talde hoek euskal komediak eman beharko lituzkete, baina berriak, Altxaga eta Soroz guztiak alde batera utzirik. Hoek ongi daude historiarako, baina ezta dukagu

zertan historian bizi. Herri hilak historian bizi dira, herri biziak etorkizunean, esperantzan, molde berrietan, mugimentuan.

Hogei teatro talde, afiziozkoak, Euskal herri osoan baleude, afiziozkoak, baina ez denpora pasatzeko edo nobia topatzeko afizioarekin, urtean ehun komedia berri egin litezke. Horretarako iritzi batera etorri behar dute zuzendariak eta eskribitzaleek. Iritzi berdin hori lortzeko biderik egokiena elkartate berri baten fundazioa izanen litzake. Asko komeni dena. Elkartate hori formatzeko biderik onena eztakit nik. Eztut hemen proposiziorik presentatuko, teatro zuzendari jakitunik ezpaitago gure artean. Eskribitzaleak badaude, dozena bat, jente ona eta jakituna. Horregatik norbait arduratuko balitz zuzendariak egiten, hori izanen litzake gauzarik geien komeni dana.

Azkenean, gauza bat esan behar dut, teatroaren izaerarekin zer ikusi gutti daukana, baina bertan datza problema osoaren funtsa eta fundamentua.

Herri bakoitzean, komediak bertako euskeran eman behar dira, baina eskribitzaleak ezin eskribi dezake komedia bat mila euskera diferentetan. Euskal komediak euskera batu batean eskribitu behar dira, eta zuzendariaren ofizioan gauza derrigorrezkoa izanen litzake euskera batu hori ezagutzea. Honela komediaren saiaketan alda liteke euskera batu hori komedia emanen den euskera bizira.

Besterik ez.

GABRIEL ARESTI.

G. Aresti-k bere itzaldia bukatuta Piarres Larzabal jaunak itz egiten du euskal teatroaz, baiña zoritxarrez eztegu esan zituen itzen zeartasunik.

L. Mitxelena-k artzen du aldia. Orainarte emen mintzatu dira gai ontaz teatro idazleak bakarrik eta jakifia ikusleak ere beren eskubidea badute eta ni nor eznaizen arren norbaitek itz egin bear duen ezkeron neroni mintzatuko naiz. Uste dut emen mintzatu diran galetan zerbaitetan izlari guztiak bat etorri dirala eta esango nuke ez izlariak bakarrik entzule guztiak ere bat gaudela kontu ortaz. Teatro lana izkutuan eukitzeko ezta jentearen aurrean agertzeko baizik, eta, jakifia, ortarako gauza oiek gaur baiño maizago eta ugariago agertzeko modua bear genduke izan. Emen aitatu

dira zenbait iritzi, elkarte bat bear litzakeala, Euskaltzaindiak edo norbaitek sariketak, ez teatro lan sariketak, baizik taldeen sariketak ere eratu bear litzakeala. Ori nai ta nai ezkoa da eta zerbait egin bearko da. Bear bada biderik zuzenena izango litzake gai ortaz lan egiten dutenak eta gai ortan eskarmentua dutenak beren artean bildu eta gutxi gora bera taju dezatela ia zer modutan eta nola egin ditekean ori, zein izango litzakean biderik egokiena ori egiteko. Gero, ortaz gañiera, zer nolako teatro lanak, gaurkoak, bear genituzkean, ortaz ere mintzatu gera. Ni gai ortan bi aldeekin nago. Batetik, neroni ere, nola esango nuke, Baroja mintzatu zan bezela mistifikatu samarra naiz, Aresti-n aldekoa alde ortatik, eta beraz uste dut gauza berriak eta gaurkoak nai ta nai ez bear ditugula. Beste aldetik etzait aztu oraindik, bear bada Aresti-k baiño gelago ikusia, lengo gauza zar eta orain alde batzuetan parregarri xamar iruditzen zaizkidan gauzak oso gogoz ikusi ditudana naizela, gaur ikusiko ezpaldin banituzke ere. Au betiko kontua da, idazleen artean nolako istillua izaten dan, jenteak eztu idazten irakurlerik eztagoelako eta irakurlerik eztago idazleak ez tutelako idazten eta orren antzeko zerbait dabil gure artean. Baiña nolana ere jendea, erria, publikoa, teatro zalea ugari baiña ugariago badaukagu. Ori argi ta garbi dago. Teatro jai bat edozein lekutan jartzen baldin bada jendea erruz dijoa ara. Jende orri, teatrorra gogoz dijoan jende orri ematen zaion bazka ezta bear bada izan ditekean onena, baiña gogoz artzen dute, eta bear bada beste zenbait gauza oso berri eta oso gaurko ezlituzteke ain gogoz artuko ortarako oitzen ezpaldin baditugu alde aurretik. Beraz, beste lekutan gertatzen dan bezela bi mallatan saiatu bear genduke. Gaurko reperitorioa zearo aldatzen eztan bitartean taldeak eta ikusleak eskubide osoa izango dute lengoarekin parre edo negar egiteko. Eta orrezaz gañiera goragoko mailla batean, goragoko eta gutxiagorentzako mailla batean saiatu bear genduke erdal teatroetan saiatzan diran bezela eta beste teatro modu bat, saio teatro bat eratu, asieran gutxiarentzat eta gero askorentzat izan ditekeana. Kontu ontan gauza batean bat nator Labaven jaunarekin. Neroni ere oso teknika zalea izan naiz, ez teatro sallean, baiña literatura gaietan erabat, gaur jende geintsuena den bezela. Uste izan det teknika asko esan nai duela eta gero konturatu naiz teknika ez tala bear bada geiena, mamia edo agertzeko modua dala bearrezkoena. Esan nai det, bai novelan, bai teatroan, bai teknika zarrenarekin, bai teknika berrienarekin oso gauza onak egin ditezkeala eta oso gauza txarrak ere bai. Beraz, egilleak eskubide osoa bear du izan berak derizkion teknika onenarekin bere lana moldatzeko. Ez tut uste teknika zearo berritzen baldin badugu orrenbes-

tez teatro ohea izango dugunik. Labayen jaunak beste gauza bat nere ustez zearo egia dena aitatu du, teatroko pertsonak dirala izan ditekian gauzarik bearrezkoena. Alegia, agertzen diren giza-seme eta emakumeak ezur ta mamizkoak izatea eta ez kartoizkoak maiz gertatu diran bezela. Euskal literaturaren gauza bera neur-tzen ibili geranok, eta guztiok ibili gera gutxi gora bera gai ortan. eztakit beñere geren buruari galdera bat egin diogun, eta au da: euskal literaturaren luze laburra, neurria artzen asten geran guz-tietan beti ingurukoak edo urrutikoak, beste literaturak, erdal li-teraturak dauzkagu gogoan eta aiekin konparatzen dugu gurea dakigularik edo eztakigularik. Eta gauza bat galdetu liteke, esate baterako, gaztelaniaz bada literaturan pertsona bat Quijote-a eta aren ondoan Sancho, eta euskal pertsona ori zein dugu? Joanes artzaia, nik askotaz ere gogokoagoa dudan amona, eta Joanesen emaztea, Peru Abarka eta batez ere beste nonbaitik Peru-n ondo-koa. Baiña lau edo bost lagun eta lagun urri xamar beste inguru-koen ondoan. Uste dut or dagoa egin bear dana eta sortu bear dana. Ia olako zerbait sortzen dugun batean edo bestean. Jakiña, badakit askotaz ere errezagoa dala besteri eskatzea, baiña norbaitek egin bearko du ezer egingo baldin badugu.

Arratsaldeko lauretarako utzi da. Julene Azpeitia andreak asi du arratsaldeko saioa.

UME EUSKALDUNAI EUSKERAZ IDAZTEN ETA IRAKURTZEN ZELAN IRAKATSI

Jaun Andreak: Euskaltzaindiak emen Donostian egiteko asmoa zuan batzarretan, lan bat artuko nuan galdetu ziranean, batere eztabaida gabe bayetz erantzun nion: gauza bat bakarragatik: au da, euskeraren alde zer-txobait egitearren. Euskera maite maitea!! neure ama zanaren altzo bigu-nean ikasitako mintzo garbia! Gure erriak, Euskal-Erriak Jaungoikoak daki zenbat gizalditik ona itz egin duan izkera ederra; oñetik oñera gu-gana eldu dan ele maitekorra!! Ill zorian zaudela? Eta ill bear dezula? Ez euskaldunok zure bizia luzatzeko alegiñik egin gabe, ez zera illko!! Ama euskera!! Badituzu oraindik Euskal-Errian, eta Euskal-Erritik kan-

pora, maite zaituzten ume zintzoak; zeu edertzeagatik, eta zeuri indarra emateagatik, edozer neke artzeko prest daudenak. Oyetakoak gera noski, gaur emen batu geran euskaldunak, eta Jaungoikoaren laguntza bitarte dala, zeure alde, Ama euskera!! geure guraso zintzoen izkera maitea!! zerbait, edo zerbait baño geyago, egingo degulakoan nator.

Nere lanen gaitzat auxe artu det: “Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi lezayokien”. Ara zergatik. Ume euskaldunak ez dira berez irakurri zale aundiak. Eta, nere ustez, gaitz au, urrutitik datorkigu euskaldunoi. Beintzat, gure aurretikoak etzuten alfabeto bat asmatzen denborarik eman; eta onegatik gure mintzoak dituan otsak, fonemak, gure inguruko erdera biak ezin adierazi izan dituzte euren alfabetoaren bitartez, eta gure apellido ederrak, eta gure mendi, erri, ibai, etxe ta abarren izenak, danak alperrik galduak artu ditugu. Eta oraiñ eziñ aldatu.

Ni neu, ez naiz jardun ume euskaldunai euskeraz irakurtzen irakasten, beti erderaz baizik; eta ez dakit euskeraz irakatsi al izan banien irakurzaleago izango ote ziran edo ez.

Gañera, irakurtzea, beste jakinduri guztien giltza da, eta gure umeak euskeraz ezer ikasiko badute, lenengo lenengotik euskeraz irakurtzen ikasi bear dute. Gaur eguneko euskaldun danok erderaz beziñ ondo euskeraz irakurtzen ikasi bagendu, etzan euskera gaur dagon bezela beia jota egongo!! Guazen bada ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi lezayeken azaltzera, baño aurretik, beste gauza batzuek esan bear ditut.

Gu txikiak giñanean, irakurtzen ikastea gauza gaitza zan, eta irakastea etzan izango batere errazagoa. Denbora artako irakasleen erruki aundia det nik, eta umeena geyago.

Lenengo, erderazko alfabetoak dituan 30 letrak ezagutu bear izaten ziran, eta euren izenak ikasi: a, b, c, ch, eta abar, 30-ak ikasi arte.

Baña, noiz-edo-noiz, 30 letrak ezagutzen ikasitakoan, azten zan gauzarik txarrena. Orduan zan erderaz “deletreo” esaten zayon lan neketsu. aspergarri ta negargarria. Ain negargarria ze, esan bear dizutet. Antonio de Trueba, Bizkaiko Enkartazioetako idazle ezagun onek bere liburu batean diñuan gauza bat.

Antonio de Trueba, Bizkaiko idazle ezagunak, liburu batean dio. Montellano bere jayoterrira, Amerika-n urte asko eginda, gizon bat etorri zala, ta kanpotik izan zan bitartean errian egindako gauzak ikusten zebillela. Enparantzako iturri berriari begira zegoalarik, beste erritar batek esan zion: —Iturri au egiteko gure erriak lanik asko izan zuan. —Zer ba?

—Lenegotan, ipar aldeko onelako menditik (ez naiz oroitzen mendiaren izenaz) ekarriko zala ura, eta lanean asi ziran, baña alperrikako lanak egin zituzten, urik ez zuten aurkitu ta. Gero, beste alako leku batera jo zuten, eta an ere urik ez, edo bear aña ez beintzat, eta azkenez, onelako menditan aurkitu zuten ur jayotza, eta andik ekarria da. Orañ emen daukagu iturri eder au.

Orduan, Amerika'tik etorritako gizonak esan zion: —Nik jakin izan banu nere errian ur billa orrela zebiltzala neronek idatziko nuan ura ugarri nun aurkituko zuten —Nun? —Ni umea nintzala ibillitako eskola zarrean. Eskola berria egiteko zarra bota zutenean, ez dakit ur jaiotza aundi bat nola aurkitu ez zan. —...? —Geuk irakurtzen ikasi eziñik egin genduzan negarren malkoakaz sortua.

Erderaz “consonantes” izena duten letra danak, beste bost “vocales” izena dutenakiñ egiten dituzten konbinazio guztiak ikasi bearra zan lan negargarri ori. Letren izenak eta silabak alkarren antzik ez dutelako, ikasi eziñeko gauza izan oi zan: *jota a ja, ele i li, ce a ca...*

Nik sei urte edo nituanean, gure eskolara ekarri zuten moja berri bat. Erdalduna zan, euskerarik entzun nai ez zuana beintzat, eta irakurtzen erakusteko era berri bat zekarrela esaten zigun. Era berria, au izan zan: “*eme a ma, eme e me, eme i ma me mi, eme o ma me mi mo, eme u ma me mi mo mu.*”

Era au kantuen bitartez zanarren, lengoa baño gaitzagoa ta aspergarriagoa zan.

Baña guk bagenduan ori baño politagoa, eta guretzat askoz ere alaia goa. Bai orixe:

A, e, i, o, u, ama lapikuan daukagu, aita etorri baño len jantzagun.

Guk onela esan oi gendun, ama lapikuaren barruan balego bezela eta aita etorri baño len ama bera jan bear bagendu bezela.

Nere ustez letra ori onela izango zan: A, e, i, o, u, ama, lapikua an daukagu, aita etorri baño len jantzagun, ez ama, lapikokua baizik.

Nere errian lau urterekiñ sartzen ginduezan kolejiuan, eta zazpi urte arte irakurtzen ikasten ibiltzen giñan beko eskolan, zazpi urte betetakoan goiko eskolara eta an ikasten zan idazten.

Beko eskolan ibilli nintzan bitartean, irakasle bi izan nituan, nere oroimena oroipen atsegiñez bete zutenak. Euskaldunak ziran biak. Hermana Guadalupe Azcue Zarauztarra, ta Hermana Encarnación Ugalde Zornotza'koa. Euskerari iguiñik ez zioten, umeak alkarrekiñ euskeraz egiten gendun, eta eurak ere geyenetan euskeraz egiten ziguten. Aspaldi ill

ziran eta Zeruan daude. Nik itz aben bitartez agertu nai diet nere esker ona.

Neri entzuten zaudeten jaun andreak, onezkero esan dezute edo pentsatu beintzat: —Eta zer dala-ta ari da andre ori guri bere umetako gauzak esaten?

Ara zergatik: Unamungo'k esaten du bere liburu batean: “Zuk ez dakizu zeure txikitako berririk; zuk ez dezu zeure umearoko oroipenik; zuk ez daramazu zeure biotz eta begien aurrean zeure aurtzaroa, eta, irakasle izan nai dezu?”

Gauza abek danak orain irurogei urtekoak dira; ordutik onera pedagogiak aurrerapen aundia egin du, beste jakintzak bezela, baña... nik esango banizuteke 1948'g. urtean, orain amabi urte, Burgos'ko erri soster bateko eskolan egiñ nuan billakundea? Siñistuko ote zenduteke emen zaudeten irakasleok batez ere?

Deletreo eraz erakusten zuten, baña lengoen zailtasunak gutxi balira bezela, beste batzuek geitu zizkioten. Ara nola: “*La ce con la a ca. La ce con la e ce. La ce con la i ci*, eta abar.” Sekula alakorik!!

Eskola artan oraindik pedagogiaren arriaroan zeuden.

Metodo gogaikarri orrekiñ aspertuta edo —aspertzekoa ere bazan da— Belgika'n, Decroly sendagilleak, beste era bat asmatu zuen umeai irakurtzen eta idazten irakasteko, erderaz “*Método ideo-visual del doctor Decroly*”.

Decroly jaun au umeak asko maite zituana zan, eta sendakintzako ikasteak amaitu zituanean, besteak bezelakoak ez diran umei irakasteko, eskola bat sortu zuan. Erderaz “*anormales*” deitzen zayoten umei erakusteko. Geroago ume akats gabeai, burutan ondo beteak diranai —erderaz “*niños normales*”— erakusteko sortu zituan Bruselas'en eskola batzuek. Decroly sendagilleak, umeen psikologia asko zekian, ez bere burutik, filosofiaren bitartez aterata, umeak aztertuta, umeekiñ lan asko eginda, ta umeekiñ bizi eta ikasita baizik. Decroly jauna jakintsu aundia zan, eta gañera ume eskola edo lenengo mallako erakustearen apostolu bat. Eta berak asmatutako sistemak ondoren onak ematen zituan edo ez ikusteko, berberak erakusten zien umei, ta lana egin aunitz bere eskola berrietan.

Pedagogia saillean matxinada aundia sortu zuan Decroly osagilleak, eta beste gauzak alde batera utzita, irakurtzen eta idazten erakusteko asmatu zuan sistemari buruz bakarrik, zerbait esan nai det.

Decroly sendagillearen metodo ideo-visual orregaz irakurtzen erakusteko, frase osotik asten da. Eta frase abek danak aginduak izan bear dute. Esate baterako:

“Ekatzu ogi zati ori”. “Eraman ogi zati ori mai gañera”. “Artu ogi zati ori”. “Eman ogi zati ori zure albokoari”. Eta abar, eta abar.

Frase osoa irakurtzen dutenean ikasten dituzte frase barruan dauden itzak, gero, itzen barruan dauden zati edo silabak, eta azkenez silaben barruan dauden letrak. Metodo onetan pedagogiako garrantsi aundidun lege bat betetzen da. Auxe: “Umeei irakasteko nai-ta-nai-ezkoa dala gauza ezagunetik ezezagunera joatea”.

Umeentzat gauza ezagunak dira ogi zatia, maya, aldameneko laguna, ta abar. Baita ere ezagunak ditu, ekarri, eraman, artu, frase oyetan daudenak. Eta gauza ezagun oyetatik dijoa, silaba edo itzen zatitxoak —gauza ezezagunak— ikastera: e-ka-tzu, o-gi, za-ti, o-ri. Eta azkenez, beste gauza ez ezagunak: e-k-a-t-z-u. Pedagogiak agintzen duan bezela. Lengo eran, delecto eran, *ce e ce*, *ce a ca*, lege ori ez da betetzen, ez eta aintzat artu ere eta umeari legez kontra erakusten zayo, pedagogia ta logika guztien aurka, ezagutzen ez danetik asita.

Umeak ez daki zer dan *jota*, ez *erre*, ez *te*, ez *ese*. Inoiz entzun gabeko gauzak ditu oyek. Eta noiz-edo-noiz, gauza ezezagun oyek ikasitakoan, bere adimenari ez irudimenari ezer esaten ez dioten *kur*, eta *txa*, eta *a* ikasitakoan dijoa “txakurra” itz ezaguna ikastera.

Onegatik, Decroly sendagilleak pedagogiari buruz arrazoi aundia dauka. Ezin ukatu.

Decroly sendagillearen “Metodo ideo-visual” orren oñarria, umeen psikologia experimentalean dago.

Decroly’k esaten zuan: umeak, bere amari entzunda, ta askotan entzun diolako, “txakurra” itz au edonork esaten duanean eta berak entzun, bere adimenak aurkeztutzen dio abere au, etxeakoak ezagutzen dituan eta nagusiari edozein lekutara jarraitzen dion abere au. Txakurraren irudia bere adimeneraño eltzen da entzumenaren bitartez, belarriak lana eginda.

Era berean, “txakurra” itz ori idatzita ipintzen badiogu umeari eta umeak ikusi, eta esaten bazayo “emen txakurra dio”, bere adimenak aurkeztuko dio abere ori bera ikusmenaren bitartez, len belarriak egin duten lana orain begiak eginda, eta obetoago oraindik: belarria baño begia langille pixkorragoa ta piñagoa dalako. Eta itz ori bezela beste guztiak.

Gauza berri guztiak bezela era onek, asieran beintzat, arerio asko izan zituan Belgika’n bertan ere. Aitzakirik asko ateratzen zizkieten: ume anormalentzat asmatutakoa zala, eta beste umeentzat etzuala balio. Aberatsen umeentzat ona zala, baña beartsuen umeentzako ezetz. Gai asko bear da era onekiñ irakurtzen erakusteko, erderaz “material técnico” esaten zayona, eta erosteko diru asko bear da, baña Decroly osagilleak

ume beartsuak ere berdiñ artzen zituan bere eskoletan, eta geroago, Belgika'ko estadiak ordainduta, ume pobrentzat erriko eskoletan ere sartu zan era au. Baita ere esaten zan, metodo ideo-visual orregaz, lengo era zarragaz baño nekezago ikasten zutela umeak irakurri ta idazten, eta abar, eta abar.

Baña, Decroly sendagilleak eta berakiñ ikasitako irakasle mademoiselle Hamaïde, mademoiselle Carter, mademoiselle Devogel, eta abar, anderañoak irakasten zuten eskoletan, lengo era zarraz erakusten zutenetan baño denbora gutxiagoan ikasten zuten umeak irakurtzen eta idazten. Onegatik esaten zuan Decroly jaunak bere eskoletan umeak urte beteko aurreapena artzen zutelako, lau edo lau urte ta erdirekiñ sartzen ziran umei ez irakasteko, urte betean, ez irakurtzen, ez idazten, beste gauza batzuek baizik, batez ere gauzak ikustea, au da, gauza baten barruan gordeta bezela baño agirian dauden gauza danak ikusten erakustea (enseñar a observar).

Bazeikean, era onek, Decroly eta bere jarraitzalle benetakoen eskuetan, ematen zituan onurak beste batzuen eskuetan ez ematea. Baleike, baita ere, beste leku batzuetan, Belgika'n bezelako ondorenik ez ematea era onek, baño ez era txarra dalako. Ez eskolak eta ez irakasleak angoak bezelakoak ez diralako baizik.


Decroly era au, asko zabaldu zan, ez Belgika'n bakarrik, baita Europa ta Amerika'ko eskola askotan ere. Nik, Madrid'en ikusi nuan era au erabiltzen zan eskola bat emengo gerratea baño apur bat lentxoago. Bilbon ez det iñoiz entzun erabiltzen danik ango eskoletan, eta gaur, une ontan, eziñ esan nezake munduan era ori geitu ala gutxitu egiñ dan. Lisboa-n moja daukatan illoba irakasle batek esanda dakit bera dagoan konbentuan ume tixikiari erakusteko era ori erabiltzen dutela.

España'ko irakasleak gaur degun errebista batean, azkeneko amar urte auetan beintzat, ez det itzik ere irakurri Decroly sendagillearen metodo ideo-visual orretzaz.

Baña, oraiñ gauden ikastaroko lenengo egunetan, Madrid'eko ABC egunerokoan irakurri nituan uri artako ikastetxe guzien izenak, eta, antxe aurkitu nuan izen au: "Colegio Decroly".

Nik uste, izen ori duan ikastetxean, erakusteko erak ere Decroly osagillearenak erabilliko dituztela.

Ume euskaldunei irakurtzen erakusteko, aurretik dibujatzen erakutsi bear zayote. Dibujo errazak, noski.



Ara zergatik: umeak, bizitasun eraginkorra, geldi egon eziña, eta zerbait eginbear aundiak dituzte —ume osoak, akats-gabeak, “normales” esan nai det— eta onegatik, liburuan idatzita dauden itzak irakurtzea baño, atseginiago zayote, idaztea. Idazteko, begiak, belarriak eta oroimenak lana egiñ bear dute, irakurtzeko bezela, eta gañera eskuak eta beatzak erabilli bear dira.

Umeak duten mobitu bearra irakurtzen baño idazten obetoago betetzen dutelakoz, irakurtze soilla baño idaztea maiteago dute. “Gustoko lekuan aldaparik ez”.

Irakurtzen baño idazten gutxiago nekatzen da umea. Au egi aundia dala irakasle danok dakigu.

Umea al dan gutxien nekatuaz, edo, al izanik, batere nekatu gabe erakustea eskatzen du pedagogiak. Au ere egia da. Eta onegatik, irakurtzen erakusteko, lenengo idazten erakusten da.

Eta era berean idaztea baño dibujo batzuek errazago zaizkiolako umeari, eta pedagogiaren lenengo eskabidea errazetik saillera joatea dala-koz, lenengo lenengotik dibujo apur bat erakutsi bear zayo umeari.

Au diot ume euskaldun, naiz erdaldunentzat. Nik eziñ esan nezake hebreo, arabe edo txinoz irakurtzen erakusteko bide ori bera ibilli bearko danik, edo onena danik, pedagogiaren lege batzuk arraza guztietako ume-entzat diran arren.

Orra emen azaldua, nere ustez, irakurtzen erakusteko bidea dibujoa, idaztea ta irakurtzea diranen zergatia.

Ez det esan nai umeai irakurtzen ikasi baño len derrotean idazten erakutsi bear zayotenik. Au izango litzake, lengo denboretan, lenengo irakurtzen bakarrik, eta, irakurtzen ondo ikasitakoan idazten erakusten zan bezela —irakurtzen beko eskolan eta idazten goikoan—, oraiñ ori

berbera, alderantzira egitea. Ez, ez da orrela. Umeak letra bat ikasi bear badu, esate baterako *i*, letra ori lenengo idazten ikasi bear du, eta gero moldeko letran irakurtzen.

Orañ, eskola geyenetan egiñ oi dan bezela, umeari, irakurtzen ikasi arte, ez zayo letra nagusirik erakutsi bear. Lenengo liburuan letra danak xeak izan bear dute.

Ez eta ere etzayo umeari letraren izenik erakutsi bear irakurtzen ikasi arteraño. Letrak adierazten duen fonema baizik. Letren izenak gero ikasiko ditu. Gauza motza irizten diote batzuek irakurtzen jakiñ eta letrak nola izena duten ez jakiteari. Baña, motzagoa da, nere ustez, letren izenak jakiñ eta irakurtzen ez jakitea.

Orañ sei urte inguru España'ko Estaduak mobimentu aundi bat sortu zuan "Cruzada contra el analfabetismo" izenarekiñ.

Sariak ere eman zituan analfabeto geyagori irakurtzen eta idazten erakutsi zieten irakasleai, eta, baita denborarik gutxienean irakurtzen eta idazten erakusteko era berriak sortzen zituzten irakasleentzat.

Onelako sari bat irabazitakoa izan zan Martin Sanabria jauna, Toledo'ko eskola bateko irakaslea.

Jaun onek bere "Sistema Onomatopéyico de Enseñanza" izena quan liburuan dio: "edozeñ analfabeto, naiz ume naiz pertsona nagusiak —"normales" bear dute izan—, illabete baño denbora gutxiagoan ikasi lezaketela irakurtzen eta idazten berak asmatutako "Sistema Onomatopéyico" orren bidez. Au egizatzen dutela amar milla analfabeto adiñ guztietakoak, ume, mutill koskor, gizon da agure zar, illa bete baño gutxiagoan irakurtzen da idazten ikasi zutenak. Eta edozeñi erakusteko gordeta daukala ainbat eta ainbat idazki, España ta atzerritik etorriak, bera esker-tuaz sistema ori asmatu dualako".

Era orretan dagoan gauzarik berriena, letra bakoitza erakusteko, arpegiaz edo beatzagaz, begiakaz edo eskuakaz, beso edo oñakaz imintzio bat egiñ bear izatea da. Ta onexegatik ere, umeai, era ori atsegiñ izango zayotela esan bearrik ez dago.

Era orren zertzelada guztiak azaltzeko astirik ez det emen, baña, esan bear det, Toledo'ko Martin Sanabria jaunaren eskolan bezelako onurak ez dituala ematen nik ikusi ditudan beste eskola batzuetan beintzat. Illa betean ez eze kurso batean ere ez dira eltzen umeak tontor oyetaraño.

Len esan detan metodo ideo-visualean gertatzen dana gertatzen da emen ere. Era asmatu duan irakasleen eskuetan ematen dituan onurak eziñ eman lezazke beste edozeñi irakasleren eskuetan, erarik onena izan arren.

Amaitu bear det. Ez naiz erderaz “teorizante” esaten zayoten oyeta-koa, nik, ume askori erakutsi diet idazten eta irakurtzen, eta lan onetara-ko neuk egindako liburu bat det, eta neuri begikoen da errazen egiten zaidan sistema auxe da: *Dibujoaren eta idaztearen bitartez irakurtzen erakustea*.

Ez det esan nai onena danik. Irakasle euskaldun eta euskalzaleak alegindu ezkeru obeagoak egingo dituzte.

Esan det.

Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene.

Alfonso Irigoyen jaunak Anai Berriotxoak bialdu duen lana irakurri du aren partez.

EUSKAL IRAKASKINTZAZ

† Irun'dik, 1961-XII-19'n. Irigoien Alfonso'ri. Euskal Literaturari buruz Elkar-izketaldietako Batzarrian. Donostian.

Emengo egunkarietan irakurri det, Batzar orretan parte artzen detala.

Irudi-bidez Euskal Literatura erakusteko laburpenakin pozik joango nintzake Batzarrekoen iritzi ta argibideak eskatzera, baiña mutillen esamiñetan gaude, eta ezin det urten emendik egun auetan.

Beste lanik ez det gertatu, baiña bi oar labor bialtzen dizudaz.

Ez det erarik manetofonagaz eginda bialtzeko, eta orregaitik zuk edo beste batek irakurtzeko eskatzen dizut, mesedez.

Eskerrik asko.

LENDABIZIKOA. *Irun'go gure Ikastetxe batean ematen ditudan Euskal-Ikastaldiak.*

Etxe bi ditugu emen Irun'en. Erriko mutillentzako, bata. Anai Salletar izan nai dutenentzako, bestia. Emen erakusten det euskera pixka bat, udaran.

Amabi-amairu urtekin etortzen dira. Gure ikastetxietakoak, Batxilleratuko pare bat urte edo geiago eginda, eta erri txikietakoak San

Asentziyo'n (Logroño'n) egiten dituzte pare bat urte ona etorri baño lenago.

Batxilleratuko ikastiak egiten dituzte emen, amazpi-amazortzi urte ingururarte. Tenikako tallerrak ere badituzte, eta gai orretako graduak ere artzen dituzte.

San Asentziyo'ra joaten dira, gero, Nobiziadutzako urtiak betetzera. Bi urte. Au da, Eleizak agintzen daben urtia, eta beste bat geiago.

Gero, berriro etortzen dira ona, eta beste iru urte emen. "Eskolas-tikuak" eta "Normalistak" esaten deutsegu onei.

Bai Normalistakin, eta bai gaztiekin, egin ditut azkenengo urtietan euskal erakusketak. Batez ere gaztiekin.

Len esan detan bezala, amabi urtetik amazortzi urterañoiko ikasliak eukiten ditut, gaztien taldian.

Ogei ta amarretik berrogei inguru. Euskaldunakin bakarrik egiten det eskola au. Ikasi gitxiakoak, batzuk. Beste batzuk, Batxiller gradua artutakuak ere bai. Danetik.

Gipuzkoarrak geienak. Bizkaitarrak gutxiago. Napar banaka bat.

Gure eskoletan egondako batzuk, euskeraz idazten eta irakurtzen oituta etortzen dira, ba Zarautz'en, Ondarribi'ñ. Zestua'n, Usurbill'en, Zumarraga'n, Andoain'en eta beste etxe batzuetan badira Anai batzuk euskera erakusten dutenak.

Beste batzuk, nundik asi ere ez dakite, batez ere idazten.

Erreztasunez eta atsegiñez artzen dute ortografi berria. Larriago eta estuago ikusi dira. ¡gixajuak!, erderazkuak (españolak eta frantseza) ikasteko.

Irakurtzen ere, laister oitzen dira, eta pozik irakurtzen dituzte liburu ta aldizkariak. Batez ere bertso-liburu zaliak izaten dira geienak.

Gramatika kontuetan oso gutxi ibiltzen gera. Gipuzkoako aditza, atzizkiak, eta gauza jakinbiarrenen batzuk.

Bakoitzak bere erriko euskeran egiteko lanak, agintzen diet, eta orrela erreztasun aundiakin asten dira idazten. Batez ere konfiantza aundia artzen dute asieratik, nai dutena esateko. Lanik geienak itz-lauz egiten dituzte; bateren batzuk bertsoetan ere bai, baiña gutxiak.

Beti izaten da garbizale banaka bat. Geienak erriko izkuntza naiago dute. Badakite eskola-ematia argitasun aundiakin egin bear dala, eta erriko euskeran konpondu biarko dutela errietako mutillekin, batez ere aur txikiakin. Nik bakoitzaren iritziak errespetatzen ditut.

Ikasle bakoitzak kuadernu bi eukiten ditu. Batian oarrak eta artzen dituzte, eta bestian garbi-garbi jarri bakoitzak beren lanak, dibuju ta guzti.

Gero, badute kuadernu bakar bat, eta an jartzen dituzte lanik onenak. Aldizkari bezela gelditzen da, urrengokuentzako.

Aldizkari bat ere badute. Ez inprentaz edo polikopiz egiña. Eskuz egiten dute, dibuju ta guzti: Eguneroko gora-berak, barregarrikeriak, bertsuak, lan laburrak, eta abar. Paper aundi eta sendoetan, orman, paretan, erakusketa bezela illaran jartzeko. Iru edo lau mutillen artian egiten dute zerbaki pillo bat danen artian.

Normalistakin lan gutxiago egin det. Neguan, eta astian lan bat bakarrik, idatziz. Kriteariyo berdiña onekin ere: Bakoitzak bere erriko euskera ez dezatela galdu, batez ere. Gero, al duten geien ikasi dezatela, baiña oiñarria bakoitzak bere euskalkian.

Euskal Literatura ere irudi-bidez laburpenakin ("Cuadros sinópticos") erakusten det, batez ere denpora asko ez degulako (egunero ordu-bete eskas). Irudi-laburpen auk egitia asko gustatzen zaie, bai eskuz, eta bai makiñaz. Idazlerik aipatuenen bizitza ta lanen berri ere ikasten dute piska bat.

BIGARRENA

Parkatu lendabiziko oarragaz larregi luzatu banaiz. Berealaxe amaituko det bigarrena.

Orain urte bete inguru dala, Euskal-Irakasletzako gradu edo titulua sortzia eskatu nuen, eta ao batez ontzat artu zan Euskaltzaindia'n asma-kizun au.

Iru gradu izango zituan:

Lendabizikua, amar urte inguruko aurrak artzeko eran.

Bigarrena, amabi-amalau urtekoek artzeko eran.

Iru garrena, amazpi-amazortzi urteko gaztiak artzeko eran.

Baiña smakizun au aurrera eramateko liburuak bear ditugu, eta oraindikan ez ditugu egiñak.

Bigarren gradua, eta irugarrena, ez ditugu eskuetan, liburuekaitik, baiña lendabizikua uste det lan aundirik gabe antolatu genezakela programa bat egin ezker, esamifetan zer eskatuko dan azalduz: Euskeraz irakurtzen eta idazten, otoitzak eta olerki edo bertso labur batzuk esaten, kontatzen, numeruak esaten eta idazten, itzulpen labur eta errezak egiten eta abar. Uste det aur asko etorriko litzakezala gradu au artzen.

Eta textu-liburua atera bear bada, ez det uste gauza saila izango litzakenik, gai onetan gabiltzen batzuen artian egitia.

Emendik asi, gero bestiekin aurrera jarraitzeko.

Zer deritzazue?

ANAI BERRIOTXOA, fsc.

Irun'en, 1961-XII-19'n.

Nemesio Etxaniz jauna mintzatzen da eskerrak emanik Euskaltzaindiari berak nai baiño itzal aundiagoa eman diolako bere zorioneko metodoari. Metodo ori dala-ta dio mesede aundia egin diotela Mitxelena ta Lekuona jaunak eta metodoa bukatutakoan berriz egin bear balitz gauza asko aldatu egingo litzuzkeala, daudenak ere. Baiña aitortu bearra dago guk oraindik asko ikasi bearra degula pedagogia karrera izan eztegunok eta orregatik beste batzuek ia egiten duten alegiña poliki poliki. Bitartean eskerrak eman berrean omen gaude danok Valverde jaunari. Berak zirikatu omen du argitaratzaillea eta onek arrisku guztia bere gain artu du, diruarena, zailena dana. Besterik ez (Txaloak).

A. Arrue-k bere itzaldia irakurtzen du.

EUSKAL UMOREAZ

Orain urte batzuek, *Pero Abarka*'ren argitaraldi berriaren itzaurrean esaten genduan:

“Guk eztakigu zergatik, baña... euskaldun geienak unore-dunak izan arren, idazten dutenean unorea alde batera —kolkoan gordeta edo— uzten dute. Batez ere —bertsolariak, jakiña, oarketa ontaz landara gelditzen dira—, itz lauz ari diranean. Mogel etzan orietakoa. Esan genezake ederkaturarik gabe, *Peru Abarka*'ren orrialdetan iraultzen duala euskal-unore me ta berezi egiazkoena.”

Ta geitzen genduan: “Ordudanik euskaldunok, unore-saill ontan, Mogel'en mallako idazle gutxi izan ditugu. Iru edo lau geienez. Domingo Agirre *Garoa*'n, Bustintza, Urruzuno...”

Eztaukagu esan bearrik noski, gaur ere orduan bezalaxe ikusten degula euskal-umore-gai au.

Baña umorea edo *umorea*, Juan Bautista Agirre'k esaten zuan bezala, ta orobat egungo-egunean Ernio-inguruko errietako baserritarrak ere, zer da?

Umorearen, unorearen, humorismoaren definizio asko eman dira. Baña zeatzak eta osoak, gutxi. Bear bada bat ere ez. Beraz, arrazoi du noski Jardiel Poncela'k, humorismoa zer dan esatea, tximirrika bat telegrafo-tantai batez iltzatzea baño zaillagoa dala, idazten duanean.

Dana dala, ona emen definizio batzuek. "Humorismoa, malkoaren arteko irripar bat da" *Gregus*. "Zentzutasun zorrotz-zailu bat da humorismoa" *Tristan Bernard*. Azkenik, beste erdal-idazle batek dio: "El humorismo, en última síntesis, es el eco, un poco burlesco, de la realidad viva y al detalle."

Umöre-mota asko dira. Gallenenak noski auetxek: umöre alaia, umöre illuna, au da, tristea, ta, azkenik, umöre beltza. Azkeneko au, umöre beltza, gaur dan egunean txit modan dago, batez ere atzerri batzuetan.

Ta, ze motatakoa ote da euskaldunen umorea? Lenengo motakoa iñolaz ere: umöre alaia. Baña euskaldunon umöreak badu gañera noski bere nortasuna, bere jatortasuna. Dudarik gabe, gure umorea, umöre bezeria da.

Orain illabete batzuek, auzi bat zala merio, egun batean Gipuzkoa'ko erri txiki batera jo genduan, ta an bildu giñan, bide-ertz batean, Jueza, Juzkaduko Sekretarioa, bi Lege-gizon, bi Prokuradore ta auzilariak, biak baserritarrak.

Ari giñan bidea ekusten ta aztertzen, ta ontan inguratu zitzaigun, bere bei-gurdiarekin, irugarren baserritar bat, eta beiak geldituerazirik, esan zien serio-serio auzilariet: "Kaixo! Gaur laguntzalle asko..."

Au da gure umorea.

Bein batez nere errian mixioak ziran. Bi praille prantziskotarrak ematen zituzten. Ta bat, arratsalde bateko sermoian inpernu-gaiak mintzatu zan. Bota zituan ikaragarriak!... Berak esan zuanez, jenderik geienak inpernu-zulora joaten dira noski, ta oso gutxi, bakar batzuek besterik ez, zerura.

Eleizkizuna bukatu zanean abiatu giñan kanpora, ta atean, ur be-deinkatua eskañiaz, esan nion baserritar bati:

—Kontuz ibilli gindezke, Joxe. Bestela badakizu: surtara.

Ta Joxe'k erantzun zidan:

—Neri ez dit beldur aundirik praille orrek sartu. Orrek esan duan jende guzia suleizera joaten bada, gu iltzerako, aundia izan arren, beteko da inpernua, ta ez da an guretzat tokirik geldituko.

Au da eukaldunon umorea.

Beste bein, Pio Baroja, Vera'ko mendietan egurasten zebillela, atxurrean ari zan baserritar batekin egokitu zan. Ta Baroja'k esan zion:

—Arratsalde on. Lanean?

Ta besteak erantzun:

—Bai, gu beti lanean. Bearko gañera, beste batzuek lanik egin gabe biziko badira.

—Zer uste dezu —esan zion berriz Baroja'k—, guk ezteguna lanik egiten ala? Bart arratsean ere ordubata jota oeratu nintzan.

Ta baserritarrak erantzun zuan:

—Zuen lan ori ez da lana.

Ta atxurrari eragiñaz, geitu:

—Lana, au da au. *Esto es trabajar, Don Pío.*

Andik egun batzuetara baserritarra Baroja'ren etxe ingurutik errira zijoan, ta ikusirik Don Pío baratzean atxurrean ari zala, esan zion:

—*Pasando el rato*, eh?

Au da Euskalerrri'ko umorea.

Gaurko eguneko euskal-literaturan umore onen kutsurik, itzalik eta oiarzunik ez da ia arkitzen. Ta au, gure uste apalez, akats mandoa da. Onela jarraitzen badegu "intelektualak" ez noski bear bada, baña erri xeak sorbalda erakutsiko digu euskal-idazleoi.

Bertsolariak aspalditik gure erriaren artean arkitzen duten giroak. iñolaz ere zer ikusi aundia du umorearekin.

Are geiago: gure teatro zarrak, Soroa'ren ta bere ondorengoen teatroak, bere iraupena umoreari zor dio zalantzarik gabe.

Baliteke norbaitek bertsolarien ta aitatutako teatroaren umorean utsak eta ajeak topatzea: alegia, umore ori zakar-lodia dala ta abar. Baña, alaz guziaz ere, ezin uka beñepein, erri xeak bertsolarietako ta teatro orreri dien zaletasunaren ta grñiaren oñarria ta giltza ortan daudela: umorean.

Ez degu esan nai onekin guk umore zakar-lodia oso gogoko degunik. Ez. Egia esan, guk ere naiago degu alako umore arin-me-arraia. Gañera, umore ariña egokiago datorkio iñolaz ere egiazko literatura jasoari.

Gauza jakiña da idazle umoredunak bi motetakoak dirala: umoredun utsak —gure egunetako Chesterton, Tristan Bernard ta Julio Camba, esate baterako— ta bestelakoak, beren lan-egifietan umorea bigarren mallan,

erderaz esaten danez, *musika de fondo* bezala, erabiltzen dutenak. Adibidez, Cervantes eta Dickens.

Gaifontzean, gizon ikasi batzuek uste dute, umoreak baduala alako artu-eman bat zivilizazioarekin. Onela, Eça de Queiroz'ek dio, zivilizazioak gizartea illundu, tristetu egin duala, ta zenbat eta zivilizatuagoa izan, ainbat tristeagoa azaltzen dala.

Beraz, baliteke, baldin Euskalerrria umorea galtzen badijoa, errua zivilizazioarena izatea.

Baña, egia al-da, bai euskaldunok eta bai, erabat esateko, gaurko munduko bizilariok, geroago ta zivilizatuagoak gerala? Ez da itxura aundirik... Dana dala, or dago kakoa, or dago untzea.

Baña, txantxak alde batera utzirik, goazen arira.

Txit egoki izango litzakeala derizkiogu, euskal-literaturako umorezko zati nagusiekin bildumatxo batzuek lenbailen antolatzea ta argitaratzea. Batean joan litezke itz-lauz tajututako lanak, bestean olerkiak eta beste batean berriz bertso-berri autuak.

Dana dala, gai ontan, umore-gai ontan, euskaltzale batzuek zerbait lanean asiak ditugu.

Jakingo dezute noski, batzuek beñepein, Paris'en laister aterako dala, Mirande'k eta Peillen'ek sortuta, umoredun aldizkari berri bat. Izenburua *Igela* izango du, ta berari buruz, orain illabete pare bat, Peillen'ek idazten zigun: "Badakizu Mirande'rekin parre-errebista bat atera gura dugula, euskaldunen astakeri arroaz par egiteko. Oitura zaar eta tradizione berrien bizkar irri egin nai dugu, baña Zubero'ko Iñautiri modan, tipo eta biltzarre guziak parregai erabilliaz."

Oraindik orain, zeatzago esateko lengo astean, emen izan genduan Mirande, ta erakutsi zizkigun lenengo zenbakiaren probak.

Igela'ren umorea batzuen batzuei apika portitz-samarra irudiko zaie. Orobat, baliteke beraren kolorea —gauza jakiña da, igel geientsuenak berde samarrak izaten dirala—, baliteke beraren kolorea. diogu, beste batzuek berriz ez oso gogoko izatea. Baña ez aztu gizon egindakoenzat, gizon eldutakoenzat sortutako aldizkaria dala.

Beraz, ar bitzate biak, Mirande ta Peillen jaunak, gure zorion biotzkoiak.

Ta bukatzera goaz. Beste batean mintzatuko gera euskal-umore onez sakonago ta zeatzago. Gaiak merezi du-ta. Vilintx eta Pepe Artola'ren errian, *Umore-Ona* izeneko elkarte bat sortu ta oraindik ere bizi dan errian, erabiltzeko bereziki.

Jean Cocteau'k esan du: Aitortzen det poesia bearrezkoa dala, baña ez dakit zertarako.

Guk ere orrelatsu esango degu: Ezin uka umorea bearrezkoa dala, naiz eta ez jakin ziur, zer eta zertarako ote dan.

ANTONIO ARRUE.

Orain San Martin-ek itz egingo du.

UMOREA EUSKAL LITERATURAN

Adiskideok:

Gertatu dedan solasaldi au ezta gauza aundia. Alegindu ere ez naiz egin, umorezko gauzak serio artzerik ez baitu merezi.

Gure literaturari begiratu bat ematen badiogu, laster konturatuko gera oso pobre gaudela umorezko gauzetan —egia esan, gañerakoan ere ez gabiltza aberats—. Badirudi nunbait, gure idazleak, literaturan orren billutsik ikusirik, parregarri azaltzen geralako edo, parregarri premiñarik ez ikustea.

Gure teatro txikiak, baña ez ain onak, ongi eraman izan du umore kutsua; bertsolarieri iñoiz etzaie paltatu; ipuinlariak tarteka marteka bete dute utsune ori. Baña gañerakoan ezta arkitzen. Nobeletan ezta arkitzen pertsonaje arlote edo zelebrenrik, nobela batzuen egillea bera izan ezik. Ta ez gure errietan palta ez diralako eredugarritzko kristau zebreak; orixe bai ez. Ta, idazleak erriagan billatu bear ditu bere gaiak.

Ikusi gure bertsolariak, asi Xenpelar-engandik eta onuntz, Txirrita txapeldun dalarik, gaurko Uztapide, Mattin eta Xalbador-era arte. Oiek jakin dute iturri zaarretik, eten gabe, edaten. Iturri zaarretik eta iñoiz Erriojakotik.

Gaurko teatroak ere, bere arto usai ta guzti, begiratzen dio lenari. Gauza askotan lartxo ere bai.

Martzelino Soroa ederki asi zan teatro sallean, bere ingurukoak ere zaletu zituan era berdintsur, ta gaur arte jarraitu du tankera orrek. Baña, teatro gauzak aztertzea beste batzuen lana izan da gaur emen eta nijoan, zuen baimenez, nere bidera. Bakar-bakarrik, teatrogilleeri gogoratu nai dict, bada ezpada, Barrutia-rena izan zala euskeraz lelengo teatroa,

naiz eta ez izan lelengo aldiz plajiatua. Ez zan bera saritua, plajiatzallea-rena zan meritua, ta juradukoena pekatua.

Badakigu gaurko euskeltzaleok giro egokirik ez deguna umore askokin jokatzeko. Beltz ikusten degulako euskeraren etorkizuna. Baña begira lengoeri. Lengo euskaldunen artean umorea bazan franco. Ta orain "franko" dala-ta asarre gabiltza guztiok.

Nobelan, aipatzerik ere ez du merezi, or agertzen diran pertsonaje arlote kaikuak ez dute batere graziarik. Ez dakit ba nik, zer pentsatzen duten, papelean jarri bear dana papelezkoa izan bear dala edo. Ez dago or pikardiarik. Neu ez naiz beintzat gogoratzen izakera paltsuzko leloren bat edo beste izan ezik.

Ta, nobelatzat artu aal baledi edo ez, Mogel-en *Peru Abarka* da zaarretatik umorea franco daramana.

Ipuietan zerbait geiago egin da. Pernando Amezketarraren sustraiak eman izan dute bere frutua. Muxika-ren *Pernando Amezketarra*, ipuin bilduma, zer esanik ere ez euskal umorearen libururik onena edo onenetakoa dala. Iñork bear balu, Itxaropena-k du iñoiz bukatzen eztan edizio ori.

Baña, idazleetatik umoretsuena Urruzuno elgoibartarra izan da. Jakiña, inguru artakoa izatearren, Plaentxiako aizeen ikutua darama. Orain arte bera degu nagusi. Nere eskuetan lelengo jausi zan euskerazko liburua berea izan ez balitz, bear bada orain ez nintzan euskaltzale. Berak eman zidan kemena euskeraz ere gauz onak izan leikezela konturatzeko. Bere ipuiak noiz-nai eta nun-nai irakurri izan dira eta irakurri izango dira.

Kirikiño da beste egille bat, euskal umorezko antolojia bat iñoiz egingo balitza, buruzagien alkian exeri bear litzakeana.

Era baten, sortu zan bolara bat, gauzak pixka bat naasturik. Inguru orretan, zorionez, euskera "garbitu" bear zan. Etziran konturatzen garbitzeko premiña gabe ilgo zala. Baña aiek agonia azkartzea edo nai zuten. Orren maite zutenak sufritu bearra samingarria baitzan. Edo, bestela, ez dakit ongi ulertzen dedan, baña gure errian beintzat, "garbitu" derrepente iltzeari esaten zaio.

Bestaldera berriz, gure auzoko Plaentxian gertatuakin gogoratzen naiz. Bein, orduango era berriko apaiz bat igo omen zan, meza nagusian, kulpitora ta ez dakit zer zala-ta, "izparringia" artu bear zala, esan zuan. Gero, plaentxiatarrak kalera atera ziranean, alkarri galdetzen zien, ia "izparringia" dalako ori zer edari zan.

Baña, egiña-egin, Kaxkurrio zarraren gisan. Lengoak eta lenagokoak bakarrik etziran pekatari, geure buruak ere ez dabiz garbi. Euskaltzale

gerala ta beste gabe, oitura degu euskeraz ateratzen diran liburu guztiak edo geienak erosteko, ala ere propagandaren aldetik ots aundia badaramate. Orrela jabetu nintzan *Idazteuna*-rekin. Baña, ez nintzan sosegatu liburu orri bere probetxua atera arte. Eguberrietan, adiskide bati bialdu nion Ameriketa-ra, erregalu. Ziri ederra sartu banion, berak sartu zidana ez zan izan makalagoa; ordiaz *Etimología de Apellidos Vascos* bialdu zidan. Bapo! Nok nori? Par-parrean gelditu giñan.

Gaur berriz, esan genezake tankera askotako ta batez ere kolore askotako ipuin parregarriak ditugula. Beltzekin ere asi dira. Marroietan Etxaide-k ase gaitu, ori dala-ta edo, bere liburu batek puzkar otsa darama! *Purra! Purra!* Baña oraíndik kolore guztiak ornitzeke ditugu. Gure erria orren belartsua izanik, iñork ez du artu kolore ori.

Aita Bilbao-ren *Ipuin-barreka*-k aipamen berezi bat merezi du gaurko idazleen artean, ta gañera, ez bakarrik umorearen aldetik.

Don Nemesio Etxaniz ere ezta elementu txarra umorea zabaltzen eta adarra jotzen, berak nai duanean.

Bai nobeletan eta bai teatroetan, argumentu oso serio bat izan ezik, beti dator ongi persona zelebrenen bat idazlanari, gatza ta piperra emanaz bizia ere ematen zaiolako, ta irakurleak atsegiñez artuko ditu berari jarritako ateraldiak. Ortarako kontuz ibilli bear da gezurrezko gizon bat ez azaltzeko, ta onen-onena erria iturri artzea Erri guztietan izaten dira gizon zebreak, ta erri guztietan bolo-bolo ateraldiak. Oiek jaso ta, tarteka, premiñazko tokietan ipintzea ez deritxat gauza gaitza. Ateraldiak billatzea berriz errezagoa. Ara, orain denbora gutxi dala jaso ditudanak, adibidez:

Plaentxia-ko zaar bati, esan zion gazteago batek: Zuk erretzen dezun beste erre-ta, zelan artu dituzu orrenbeste urte?

—Erretzeak etxaukak zer ikusirik. Nere anaiak ez juan erretzen baña gazterik il zuan.

—Ze edadekin?

—Lau urtekin.

Beste batean, sartu omen zan gizon bat lantegi batean, eta ezagun bat ikusirik, galdetu omen zion:

—Tallar onetan noiztik ari aiz lanean?

—Kalera botako ninduela esan zidanetik.

Au da euskaldunaren egiazko umorea. Gure literaturan ain urri dabilen umorea. Ta, amaitzeko, lenago edo geruago guztiori gertatuko zai-

guna: Gure auzoko erri batera obispo jauna eldu zanean mediku bati galdetu omen zion: —Da, erri onetan jende asko iltzen al da?

—Bai, emen danak, batzuk lenago eta beste batzuk geroago.

JUAN SAN MARTIN.

A. Arrue: Azkenengo gaiaz norbaitek ezer galdetu nai baldin badu egin dezake.

J. A. Arkotxa: Emen aitatu dira umorea, ateraldiak eta beste gaiñerakoak. Ta nik dakit Fernando bein joan zala juzgadora eta ortzak erakutsi omen zituen. Umorea edo ateraldia eztaikit zer zan. Eta nik or ari diran bi jaunai au esango nieke: radioko euskal saioak ia entzuten dituzten. Angoa umorea ezpaldin bada ni eskuak garbitzera noa. Umorea, uste det, Atxukale-k badula piskat. Umorea...

A. Arrue: Ortan arrazoa ematen dizut, baiña egia da azkeneko urteetako literaturan gutxitu egin dala.

L. Mitxelena: Nik enuke esango euskal liburuetan geiegizko umorerik agertzen denik.

J. A. Arkotxa: Geienbat danok aundi agertu nai degulako.

L. Mitxelena: Bueno baiña, umorea ezta parregarri agertzea nai ta nai ez. Begira, emen daudenetatik andaluzakin norbait mintzatu baldin bada, eta uste dut geientsuenak mintzatu gerala ifnoiz edo bein —ni eznaiz andaluzen etsaia zearo gogokoa baizik, alegia Andaluza-n oso jende landua arkitzen da—, bada andaluz bat nik ezin eraman dudana, andaluz klase bat, eta da andaluz txistosoa. Mundu guztiak ezagutzen du. Oiek uste dute beren aotik ateratzen den edozer txorakeri mundu guziaz parrez ler eragiteko aski dela eta neri beintzat eztit parre egiteko gogorik ematen. Nik esango nuke gure arteko umorea legorra dela beste ezer baiño geiago, legor samarra, eta artu egin bear dala. Eztaikit gaurko pedagogian ontaraiño eldu diren, baiña nik egingo nukean gauza da. Badakizute zenbait olako izkirimiri letrororik gabe agertzen direla maiz samar eta nik askotan egiten dut pertsona askorekin saioa, erakutsi eta ia zer esaten duten eta badira bein ere parre egiten ez tutenak eta gero galdetzen dute, bueno ta zertan dago ori? Emen aitatu dira emengo umoreaz zenbait gauza eta aitatu direnak baiño geroztiagoko bat agertu nai nuke nik, bi egille dituen liburu bat, emen ezkerraldean daukagun Aita Villasante eta Graziano bertsolaria. Noski, benetako egillea Graziano da, arek esan du bere ateraldiak diren ezker. Nik esango nuke gauza

askotan ta askotan umorea ongi nabarmen agertzen dala. Gauza bat San Martin-ek esan duen zerbaiti buruz. San Martin-ek esan du gaurko euskal idazle batek izkuntzaren egoera negargarria ikusita umore gogo aundirik ezin lezakeala izan eta ni ortan enago batere konforme. Edozeiñek, atsekabe ta ezbear asko gertatzen zaizkion edozeiñek daki orri gogor egiteko bide on bat dagoela. Geientsuenak orri gogor egin badiogu umorearen bidez egin diogu. Nik bein ezagutu nuen bat edozer izugarrikeri egiten baldin bazioten au esaten zuena: «mejor —erderaz esaten zuen—, así les tendremos más hinchá». Eta aurrera irauten zuen. Beraz, uste dut umorea dala gauzak gaizki badatoz ere gauzei gogor egiteko biderik egokienetakoa.

J. San Martin: Or zurekin nago. Euskaldunen artean bada zerbait. Euskeraz idazten asten diranak umorea galtzen dute.

L. Mitxelena: Ori berezkoa da. Jaungoikoak doai berezi bat batzuei ematen die ta besteai ukatu.

J. San Martin: Euskalzaleak beti euskeraren bidez asten dira eta onek ekartzen ditu euskeraz idaztera.

L. Mitxelena: Aztertu egin bear litzake ia zergatik euskalduna askotan umore zalea delarik, zergatik euskaldun oietatik euskal idazle biurtzen direnak geienetan umorerik eztutenak diran. Ori aztertu bearko litzake.

Gaztelu: Apaizak eta fraileak gera-ta (Parre algarak entzuten dira).

(Bozak batera entzuten dira eta argi ezta ulertzen.)

L. Mitxelena: Hita-ko arziprestea elizgizona zan oso oker ez-paldin banago (Parreak).

A. Arrue-k dio badala umorea Urruzuno-n lanetan apaiza bazan ere.

Aita Joseba Intxausti-k dio Aita Felix Bilbao «Ipuin barreka» ren egillea ere frailea dala eta or ikusten da umorea agertzen dan guztietan fraileak ere badirala (Parreak entzuten dira).

Gaztelu: Ni konturatu naiz ortaz, euskalduna umoretsua dala.

L. Mitxelena: Uste dut len Arkotxa-k egiazko gauza bat esan duela, askok pentsatzen dutela idatzi ezkerok sekulako seriotasunez inguratuta egin bear dala, ori aundikiagoa dala bestela mintzatzeari baiño. Nere iritziz ortan zero oker daude asko.

Gaztelu-k ondo entzuten eztan zerbait dio eta Mitxelena-k segitzen du itzarekin. Nik esan nai dudana da umoreak eztuela infor beeratzen. Lengo bozak dio: ¿Ez? Eta Mitxelena-k: Ez, infor ez ere ez, eta seriotasunak bakarrik ere eztuela infor goratzen. Alegia,

nik banuen adiskide bat, erdaiduna da eta erderaz mintzatzen zan eta esaten zuen: «seriedad asnal». Nonbait astoak eztute beifi ere parrerik egin (Bozak batera entzuten dira. Parreak).

Gaztelu: Nik gai onetan esango nuke izkera bizia bear dala, edozein gaietan bizitasuna bear dala.

A. Arrue: Zentzutasun zorrotz zailua, ortan dago umorismoa. Ala ere idazle asko, euskaldun idazleak, berez umoredunak izan eta idazten asten diranean, naiz gaia egokia izan umore piskat botatzeko, serio serio aritzen dira. Au da kontua.

Norbaitek: Gaiñera idazten «espontaneidad» esaten zaion ori galdu egiten da.

A. Arrue: Galdu. Beste izkuntzetan danak eztute galtzen.

Gaztelu-k dio irakurle gutxi daudela eta eskoletan irakasteko modua lortu arte ezuela uste parrerik egin ditekianik. Arrue-k moztu egiten dio esanik programan jarri dan ezkeru umore gaia jo degula.

Norbaitek: Uste det umorismo fiña egiteko jabetasuna bear dala ta idazle geienak pentsatzen dute umorismo aldera jotzen badute lodia eta zakarra egingo dutela.

L. Mitxelena: Are geiago. Emen ezkeru konturatzen gauza batez, alegia, bi umorismo klase direla mea ta lodia eta ortaz gaiñera beste bi ere badaudela. Bat idazleak edo izlariak naita, oartuta egiten duena eta bestea oarkabez egiten duena, eta zoritxarrez euskal literaturan franko bada ortakoa. Esan nai dut, idazlea bere ustez jende guztia kupituko eta ukituko duelakoan ari delarik parre eragiten diona eta ori da beti kontuan idazleak eduki bear duen gauza, berak nai duena ezala beti gertatzen, tiroa ezala bear dan lekutik ateratzen askotan.

Eta onenbestez bukatzen da. Aita Joseba Intxausti-k artzen du aldia bere itzaldia irakurtzeko.

EUSKERAREN KULTURA BIDE BAT

Esan dezaizuedan: onerako zerbait idaz nezala eskatu zidatenean, Blondel'en Teodizea ematea erabaki nuen. Ez naiz euskalari, ta oker ez banago, emen euskalariak itz egin bear lukete. Onegatik aukeratu nizuen Blondel; baiña zuen gogoen borrero izan aurretik, arrazoiak eman bear

nizkizuela-ta, arrazoiak luzatu egin ziren. Gaurkoz, ba, konforma gaitezzen aitzaki auekin.

As nadin billera onetzaz zertxobait esaten. Euskalzaleen artean euskalariak soillik esan bear lukete beren eritzia, euskalariak edo euskararekiko lanetan dabiltzanek, beren alorrean dituzten eragozpen, beaztopo, jomuga ta gaiñerakoen berri emanaz. Ta euskalzaleak etorriko giñake euskalari ta euskal-langille oiei entzutera. Baiña onelako euskalari-euskalzale auen billerak aski ditugun galdetu nai nizueke. Bear ditugu oraingo onen antzekoak, baiña ez ote lirake bestelako batzuek ere eratu bear, entzule ta izlari berriekin? Urtero euskeraren inguruan antolatu oi direnok ez ditezke iñola bazter, aunitz arazo emen aska ta argi bailitezke; baztertu ez baiña bizkortu egin bear dira euskalzale geiago erakarriaz, ta aal dela, euskalzale ez direnak ere urbil dakizkigun.

Euskalzaleon billera auetan bi izlari-mota izan ditezke. Gaia euskera bera baldin bada, biltzar auetan irakatsi ta itz egiteko eskubidea euskalariet dagokie. Besteok itza ta pitza darizkigula ez gaitezke ibilli bear ainbat ezagutzen ez ditugun gaietan: artajorra bakoitzak bere soroan egin dezala. Ta euskerari buruz mintza bear bada, dakienak du bakarrik eskubide. Ez da aski apurtxo bat idazten jakitea. Kontuz sasi-jakintsu ta itz-lapiko biurtu aurretik! Izlariak gaia sakonki ezagutu bear du ta euskera euskalariak soillik ezagutzen dute bear den neurrian; gaiñerako euskalzaleak maitatu egiten du, baiña ezagutu, ez dugu sakonki ezagutzen. Ala ere ez dut ukatuko biltzar auetan itz egiteko euskalzaleek duten eskubidea, baiña ez euskeraren gaiñean, gure izkuntza nola zabaldu ditekene, t. a. baiño. Gaurko munduan eltze askotako burruntzali izan ditezken gizon gutxi dira. Marañón bat mediku egokia izan ziteken eta batera beste zenbait arlotan jakitun; baiña poligrafuak ez dira jaiotzen euriaren atzetik zizak bezela, banaka ta noizbeinka baiño. Onegatik euskaldun eta euskalzaleok gere zeregintxoia dugu, ta ortik kanpora sasi-arotzak izango gera beti, ez dugu zer irakatsirik.

Onela, ba: izkuntzari buruz diarduena, izkuntzalari izan dedilla ta ez politiku edo literatu utsa; euskal-literaturaz ari dena, Euskalerriko ta kanpoko literatura ezagutzen duena, ta euskerarekiko bidea erakutsi nai dutenak, lanbide orretan trebeak. Gaiñerakuok entzule ta elkarriketake onak gerta gaitezke, baiña aurrera jo nai badugu, muturrak autsiko ditugu lainoeta ta arkaitz artean. Bustiñezko eltzeari ez dagokio makil dantzara joatea.

Au da baitipat galdetu nai dizuedana: euskalari ez geran edo euskera-bizitzari dagozkion arazoetan ez gabiltzanek ez ote dugu itz egin ta gure

etxeko zelaietan bildu ditugun lore-sortak euskaldunei emateko biderik aurkituko? Euskalzale aunitzek ba-dute, zorionez, literaturari ta euskerari ez dagozkien zenbait gauza euskeraz emateko aalmenik, eta euskera tajuzkoan ezer jakingarririk ager dezakenari erreztasunak egokitu bear litzazkioke. Nik —etxetik asteko— euskerari buruz esan nitzazkenak barreiatu ditut (euskalari ez izanarren onetara ere ausartu egin bainaiz, etsenplu gaiztoak bultzata noski), ta euskal-literaturari buruz ez dakit, esateko, ezer. Ez naiz, beraz, bide oietatik ekiteko lain.

Euskeraren onerako itzaldi batzuek eman ditzazken euskalzale bakoitza ez diteke euskeraren inguru-marian ibiltzera beartu. Norberaren barne-deiari jarraitu bear diogu. Euskalzale askok ez dugu izkuntzalari izateko gogorik eta ez gaitzazke orretara iñork naitaez bultza, ez lanbide ori nardagarri zaigulako, baizik-eta barneak orretara ez garamazkielako. Euskarentzat gazte asko salbatu nai baditugu, euskera ez den beste zerbait eskeiñi bear zaie. Idazleak eta gizon bakoitzak bere aiurria du ta norbera bere irris eta ametsen txiru-lirura dabil dantzari; dei orri erantzungo ez balio, paltso arranoa litzake ta indarrak alperrikaltzen liarduke. Emen, eta onelakotsu billeretan mintzatzeko ikasia bear du izan batek, euskal-gaie-tan murgildua. Euskera ikasi ta ausnartu, ideiak iduki, bestela dozenerdi bat itzalditan agortuko da iturria. Gutxienik ere, izlaria izan bedi euskerari lagundu naiez ainbat egin bearretan sarturik dabillelako buruauste ta kezakak dituena. Euskalzale asko, berriz, oso bestela gabiltz: euskal-arazoez ez dugu ideia ta buruauste berririk. Euskeraren gaifnean itz egiten jarraitu bear banu, laister nintzake ni beintzat (Axular'ekin esateko) “esterila, defota, antzua, eta, haltza-oianaren bista bezala, fruitu-gabea”. Billera denak gure onen antzekoak balira, isildu egin bearko nuke; baiña gazterik zaartzea litzake ori. Euskalzale zenbaitentzat bide berriren bat bear da, ba.

Gaifera, entzuleen aldetik, nortzuek gatoz gure billera auetara? Denok ikusten duzue: euskalzaleok soillik, euskaldun arruntak ez baitira iristen areto onetara. Erri xumearentzat biltzar bereziak bear ditugu, euskaldun soillari zerbait zor diogu euskalzaleok. Erria erakarri bear dugu euskerazko billeretara; euskera-amua larrugorrian dela, ez dugu irabaziko, karnada gozoz jantzita baizik. Guk, emen, gure artean darabilzkigunak bost axola zaizkio erri arruntari. Entzule izan ditezken eta bear luketen euskaldun oiek ere biltzar berriak-edo eskatzen dituzte.

Kulturak ere beste ainbeste irrikatzen du. Il onen zortzian Arantzazu'ko egutegiak onela zion: “Gaur ez gera, Jainkoari eskerrak, Pirineon puntan dantzari dagoen erria. Zerbait geiago ere ba-gera. Folkloreak, soiñeko politik ta dantza ariñak ez dute erria egiten. Kultura bear du gaur

edozein errik, burua jaso nai badu. Kultura, erriak irauin nai badu. Baita Euskalerrriak ere. Ezin kulturarik izan, bestalde, leitzen, irakurtzen ez duen erriak". Ori dena erdia egi, ta erdia gezur da; egin folkloreak, dantzak, kantak ere gure erria egiten dute, ori dena geugandik jaio delako ta orren bidez aurpegi bat dugulako. Ori idatzi duenarentzat antumuil bat ongi ezagutu ta osatzea geiago ote da, ba, erriaren kantak artez kantatzea baiño? Ba-liteke ura baliagarriagoa izatez, baiña baliagarritasuna ta benetako baloreak ez dira beti elkarrekin ibiltzen. Pragmatista ez denak maiteago du erriaren bizitza-adierazle ori mundu guziko mekanika baiño, ezpirituaren oiartzuna baita ura. Baiña argi dagoena da: folklorea ta gere erri-etorkia gorde nai baditugu, aipaturiko kulturaren bear gorrian gera.

Ez il bai il gaudela, kultura, berebizikoa dugu salbaidetzat. Gure izkribruak txatxala-patxalazkoak ditugu ta etorkizuneko Euskalerrria kulturaduna izango da edo ez da izango. Ongi bearrean, geienik literaturari begira gaude, ta kultura (ots, bizitz-problematika ta jakintza) aztuxeak dauzkagu. Zer da, ba, zorioneko kultura ori, galdetuko duzue. Onetan ere eztabaidak ditugu ta ez naiteke zeazki etsamiñatzen asi. Norbaitek, gurea Europa'ko errietan kultu'atsuenetakoa dela esan zuen; ez dugu, ba, (esan liteke) ikasi ta erriari irakatsi bear aundirik. Bai ta ez, gaizki ez banago, euskaldunaren giza atortasuna-edo adierazi nai zuen ori zionak, eta emen aitaturiko kultura beste zerbait da. Leenik, gaurko mundua erretzen duen problematika. Euskal-bizitzak, euskerazko lanek bereziki, jaso ote dute Europa'ren izpiritu-giroa. Ez ote gera zerbait atzeraturik bizi? —Bigarrenez, giro orren ondotik, Europa'ren aurrerapen-gosea ta jakintza eman bear genituzke gure idazkietan. Gogo-giroa ta jakintza-aurrerapena, orra kultura bidea. Derrior-derriorrez artuko du Euskalerrria'k bide au, ta guk euskeraz ematen ez badiogu, Europa guzia gure izkuntzaren etsai izango da.

Euskal-itzaldi ta gaiek biltzen ez duten jendea, ez ote genuke gaurko gizonek desiratzen ditu-n gaiez erakarriko. Euskeraz direla-ta jendea agian urrundu egiten da; karnada berriarekin ez ote da arraintza oberik izango? Jakin-gurarik ba-du euskaldunak, baiña irrikatzen duen orixe aukeratu bear diogu. Nere jaioterrian, esate baterako, kultura-aldetik erdi-gizon-edo gera, ta zenbait gai entzutera bilduko litzakela gazte-sail bat esango nuke. Euskal-miñak bilduko ez lituzkenak, Fidel Castro'k zer egiten duen entzutera etorriko lirake.

Euskalzaleak oro leendik irabazita dauzkagu, ta, onela, jakin-naiak bultzatuko ditu guregana euskaldun soillak ere. Euskerak kulturaren aur-

ka burrukan bizi bear badu, bereak egin du. Kristo gizona salbatzeko gizon egin zitzaigun, mundutar bihurturik askatu zuen mundua. Guk ere orobat: euskera bizkortzeko kultura euskaldundu bear dugu; baiña euskera euskaldunongan bizi denez, euskaldunok gere buruak, adimenak, biotzak kulturaz orni ditzagun. Kulturaz ezer baliotsurik eman nai badugu, gere buruak gaurko joeraz ta kezkaz gurutzera ditzagun. Maiz, samin eta dolerez ekin bearko diogu gure eginkizunari, baiña bere garaian emango du frutu onik. Euskaltasuna ta euskaldun jatorraren sen ori murriz ez dakizkigun ia beti euskerara dugu joera makur bat; baiña, atrebentzia baterako, ez ote litzaiguke obe emendik zerbait galdu, bestetik irabaz ta erria salba dezagun? Egia, ez dago batere dilemarik, ez baitago biok batera ezin egiñik. Bata ta bestea bear ditugu. Adibidez, zer egin bear lukete euskalzale askok: gure artean argitaratu oi ditugun liburu oietako bati eldu ala Zubiri'ren "Naturaleza, Dios, Historia" deritzana irakurri? Aut-aut bat jartzekotan, nik ez nuke zalantzarik, bigarrenari elduko nioke, euskera berarentzat ere onuragarriago litzake-ta.

Izkuntzari izen ona, itzala, prestijioa eman bear diogu, izen ona ta itzala erriaren aurrean. Nik dakidanez, gure gaurko idazleetan nekez aurki liteke jakintza-idazle bikain bat. Nork ikasi ote du iñoiz gure izkuntza, jakintsu baten izkribuak irakurtzearren. Kierkegaard'rekin gertatu dena noiz jazoko ote zaigu guri?

Gaurko mundua geretu egin bear dugu; gogoak ernai ditugula, asko lor dezakegu ta noranai joan gaitezke. Euskalariak izkuntza-tresnak presta dezaizkigutela, berak bakarrik ez bada ere ta euskalzale bakoitzak bere lantegian buru ditzala bere lanak. Sor ditzagun euskaldun kultura-emai-leak. Europa-ko mundu onetan jaiotzen den mogimendu bakoitza euskeraz emateko espezialista bat bear litzake gutxienik. Eliza-barnean or dauzkagu, adibidez, Mundu Obeagoaren Mogimendua, Kristandade-Kursilluak, ta Eliza-kanpokoetatik nork eman lezazke Astronautika, Nuklear Fisika, Zinema-Klub oiek, Erlatibidade-teoria ta beste ainbat gauza. Auek guziak ta geiago erabilliaz, erria etorri egingo litzake ta bide batez euskerak bere itzala izango luke. Ez gaitezela, Jainkoarren, izkuntzaren golde, aitzur eta igitagiei lustrea ateratzen luzarogian jardun.

Beraz, euskeraz erabil ditezken eta bear ditugun gaiek ere biltzar edo zerbait berririk eskatzen dute. Euskera salbatzeko ez ditugu erriak maite dituen bideak besterik, bestelakoetatik ez baitigu erriak segiko. Izkuntzak ez du erria geiegi lilluratzen, beste zerbaitek baiño. Kulturaren banderari jarraituko dio agian, baiña izkuntzarenari ez dakit beste ainbeste egi-ten dion.

Nere arrazoiketa au geiegi luzatu zait, eta laburki azalduko dizuet nere amets bat:

LEENENGO: Euskaltzaindiaren ardurapean kultura au eman lezake ten izlari-talde batzuek sortu bear lirake. Bakoitzak sei-zazpi lagun izango litzuke, beste ainbeste espezialidadeetatik artuak.

BIGARREN: Erri txiki ta urietan kultura-itzaldi asteak eratu.

Gaiak: Espezialista bakoitzak aukeratuko luke, entzuleen bear ta naiak ezagutuaz. Biziak, egunekoak ta erriaren galdera ta buruausteei eran-tzunaz. Onela, txipiroiak argitara bezela, bilduko litzake jendea. Euskera-ren amodio platonikoak ezin duena interesak lortuko luke.

Jakintzak: Soziologia, artea, medizina, politika, teologia, filosofia, jakintza-aurrerapenak, kondaira, t. a.

Ekipo bakoitza erri askotatik pasa diteke ta onela, gaia bein prestatu ezkerero, dozenerdi bat erritan eman ezinik ez dago, negu-aldiko bospasei illetan egin liteke. Bakoitzaren eginkizun bakarra ori izango litzake: illean bein uri edo errixka batera iristea.

Nork eratu konferentzi oiek: errixka askotan apaizak bakarrik egin dezake ta Euskaltzaindiak orrela eskatuko balie, ongi artuko luketela uste dut gure bikario jaunak. Askotan Egintza katolikoak ta bestelako taldeek egin lezaketee, izan ere (besterik ezean) onelako itzaldi-sail batek presta-tzen duen elkarteari mesede egiten dio. Baiña aal dela, lan au ez de-dilla eliztarrena izan.

Bide onetatik zerbait egingo bada, batzar bat osatu bear luke Eus-kaltzaindiak, edo obeki: leendik daukan bat izeinatu.

Asko gera Euskalerrian Unibersidade baten gosez gaudenak, aunitz ori ba-dugula ta ez dugula intzirika gabiltzanok; baiña lege orrelakorik iritxiko bage, ez dakit gauden bezela ezer aundirik egiterik izango ge-nuken: batetik euskalzale jakintsu gutxi ditugulako ta bestetik izkuntza bera oraindik eskas samar daukagulako.

Joseba Intxausti, O. F. M.

Fabian Loidi: Bear bada umekeri bat nijoa esatera, baiña eus-kal giroa duen billera ontan ausartzen naiz agertzera. Alegia, olerki gaietan, literatura gaietan aurrera joan, aldizkariak, batza-rrak eta abar egiten dira eta aurrera goaz, emen gai ederrak ibilli

ditugu, pedagogia gaiak oso ederki, oso txalogarri, eta gañuntzeko gaiak ere bai, baiña ikusten deguna da erria atzeraka dijoala, ori argi ikusten degu. Intxausti jaunak eman dizkigun erabakiak errespetatuaz beste gauza bat esango nuke nik. Orain nijoa umekeria esatera. Gerra aurretik azaldu zan euskera zabaltzeko era berezi bat. Gero geratu egin zan. Euskaldun bakoitzak, nai zuanak, orratz bat eraman bear zuan «euskeraz» esaten zuana. Eratu zan kongregazio bat, lagunarte bat eta gero galdu egin zan ori. Ezin al genezake guk berritu? Danok, izena eman nai duanak eman dezala eta alkartasun bat egin eta solapan «euskeraz» esaten duan orratz bat daramana badakigu euskalduna dala eta arekin euskeraz mintzatzera beartuko gera danok (Txaloak egiten zaizkio). Ori da agertu nai nuana. Ori egiten erreza dala uste det. Orratz batzuk atera eta zabaldu eta ezluke askok atzera egingo, baizik poztuko litzake erria eta ugarituko lirake euskalzaleak eta bata bestearekin euskeraz mintzaten geranak. Nola galdu duan euskerak ala berritu egingo litzake (Txaloak). Lendabizi erritarrak euskeraz itz egin eta gero erri orrek, euskeraz mintzaten dan erri orrek, gañuntzeko olerki ta gañuntzeko gauzak pozik irakurriko ditu.

A. Zugasti-k zerbait dio baiña jendea batera izketan ari da.

G. Aresti-k dio: Badakigu ze erritan bizi geran. Gobernu bat daukagu, polizia bat eta lege batzuk. Nik badakit Bilbon Oldarra-ren orratza eramateagatik jentea sartu dutela kartzelara. Ori egia da. Gauza agiriak eta alakoak atzean geratu bear dute. Alegia bandera gabe eta alako gauza gabe joan bear dugu aurrera gaur.

L. Mitxelena: Ni enaiz oraingo istillu ontan sartzan, baizik eta Intxausti jaunak jarri duen arazoan eta uste dut arazo au gorago dijoala, gauzak goragotik ikusiak daudela. Esan nai dudana au da: ni zeero bat nator Intxausti-kin mamia azala baiño ajola geiagokoa dala eta esate baterako, Zubiri-ren liburu baten artean edo erderaz egindako liburu baten artean eta euskeraz egindako askoren artean askotan obe litzakeala erderazkoa artu euskerazkoa baiño. Bestea. Emen ola esan ezpaldin bada ere gauza bat ikusi da, bi auzi daudela. Bata da kultura Euskalerrian eta bestea euskal kultura, eta euskal kultura esaten dudanean esan nai dut bakar bakarrik euskeraren bidez adierazten den kultura. Eztut esan nai orrekin euskal kulturak, esate baterako, fisikan ezer gauza bezirik izango lukean, bestetan ez bezelakoa izango litzakeanik, baizik eta esan nai dut euskeraren bidez adierazten den gauza izango litzakeala. Eta jakifña, Euskalerriko istillua gai ontan euskeraren gaiñetik dago. Euskal kultura bazter batean utzita ere jakin bear genduke ia kultura mailla Euskalerrian goragokoa edo beeragokoa

den edo bear den lekuan dagoen. Neri iruditzen zait zuk emen eman duzun bidea gutxi gora beera zabalkundea dela, kulturaren zabalkundea errietan eta al den lekuetan egitea eta jakina ori erderaz «divulgación» esaten duten ori da gutxi gora beera. Eta emen bi gauza ikusten ditut elkarrekin ezin ondo konpon ditezkean nere uestez. Eman dezagun, eta ezta egia, baditugula gai eta sail guztietan bear aiaña euskaltzale eta euskaldun garbi gai oiek menderatzen dituztenak eta gai oien jabetza osoa dutenak eta lagun oiek joango lirake bat leku batera, bestea bestera, bakoitza bere gaiez mintzatzera, baiña emen dago istillua, geien geienetan gai oiek ezlukete entzulerik arkituko.

A. J. Intxausti: Zergatikan eztakit.

L. Mitxelena: Esate baterako, zenbait gai, nola esango nuke, gai klasikoak eta gaurkoak, esate baterako, Castro-k zer egin duen eta ondo egin duen ala gaizki egin duen mintzatzera norbait baldin badijoa jendea franko izango luke. Ori bezela beste gai batzuek asma ditzaket. Norbait asiko baldin balitz itzaldi baten ia infernurik badagoen edo eztagoien seguru aski jende asko izango luke arek ere uzten baldin badiote. Baiña, jakina, azkenengo aldiz Krutwig jaunak Egan-era bidali duen eta argitaratzera goazen bezelako zeraz, fisika nuklearra ta mekanika kuantika ta India-ko filosofiaz norbait mintzatzeko baldin balitz eztef uste geiegizko girorik izango lukeanik. Bear bada bai lenbiziko aldiz, baiña geiago ezlitzake an granorik ere arkituko.

A. J. Intxausti: Ze gai aukeratzen dan. Bat morala, moralezko gai bat izan da, bomba atomiko ori ia egin liteken ala ez. Gai ortaz ere itz egin liteke.

L. Mitxelena: Orrekin betiko kontura goaz. Kultura gaietan lenengo emen zertarako dan begiratzen diogu eta euskaldun askok uste dugu, eta neroni ere uste orretakoa izan naiz, beste zenbait erri baiña askotaz ere gorago gaudela orretan. Eta zergatik? Aplikazio ta teknika kontuetan aurreratuago gaudelako eta ori da norbaitek asmatu dituen gauzak zer ondoren izango lutekean. Betiko kontua da, teknika menderatzen dugulako, teknikaren jabe geralako uste baldin badugu goi maillan gaudela zearo oker gaude. Gaiñera bein ere ezker konturatuko zer falta zaigun. Eta falta deguna da ez teknika, emen norbaitek esaten zuen, parregarrikeri bezela esana dago baiña zearo egia da, Unibersidade gauzak sortzekotan ibili diranean beti pentsatu izan dala ingenieruak bear ditugula. Ez jauna, matematika utsa edo metafisika edo olako arraiokeri bat, ezertarako balio eztuen gauza bat bear genduke. Ori da falta zaiguna, gaiñerakoa badugu obeto edo gaizkiago, baiña goiko maillan, jakite utsa ezertarako eztena, berez egiten dena, ori da falta zaiguna.

Gaztelu: Kolorea bezela da ori, baiña beetik ezpadator nola sortu dezakegu olako kultura? Guk ezpaitegu ez eskolarik, ez ikas-tetxerik, ez Unibersidaderik, ez ezer.

G. Aresti: Orduan mundua galduta dago. (Jentea batera min-tzatzen asten da).

L. Mitxelena: Emen eragozpen asko daude, era askotakoak, eragozpen oietatik batzuek gerok ken genitzazke, beste batzuek dira, bear bada aundienak eta ajola geien dutenak besteen eskuan daudenak. Gu gerok saiatzen ezpaldin bagera gere eskuan dauden eragozpenak kentzen nola arraio eska dezaiokegu ifñori bere esku-
an daudenak kentzeko.

Gaztelu: Ori gauza praktikoa da, ze eragozpen dauden eta nola kendu bear liraken.

L. Mitxelena: Bearra badagoela eta bear ortaz konturatu egin bear dugula. Ori da lenbizikoa.

Jose Etxeandia jaunak artzen du itza eta dio batzar onetara Bizkaitik etorri dirala Aresti, Aita Martzel, Irigoyen eta beste batzuek. Euskerea biztu baiño biztuago egin da Bizkaian eta ezta egia euskerea atzerantza doiala. Bost urte oneitan, edo bertsolariakaitik, edo beste gauza batzuekaitik egin da Bizkaiko erri guztietan euskerea zabaldu, euskerea biztu, euskerea indartu. Eta esan bear dot Durango-n azkenengo urteetan geiago entzun dala euskeraz ogei urtean baiño bertsolariak dirala-ta. Alegiñak egin dira eta erriak ikusten badau bere biotzera elduten dala, erria gugaz etorriko da. Egunotan nire parrokiari bai Jaen, bai Zamora, bai Burgos-ko semeak euskeraz kantetan egon dira. Eta euskerearen kontra ifñor ezta joan, zegaitik orain ikusi dabe euskerea Euskalerrian maite dala. Sarri askotan guk berba egiten dogu, baiña egite gitxi, eta egin bear da egite asko eta berba gitxi (Txaloak egiten zaizkio).

Aita Antonio Zavala-k bere itzaldia irakurtzen du.

BILINTX-EZ

(INDALECIO BIZCARRONDO UREÑA)

Bilintxen jatorria auxa izan zan: Aitona, aitaren aldetik, Berastegi' tarra; Rafael zun izena, Amona, Juana Bautista de Amunarriz, Tolosarra. Aita ere, Jose, Tolosarra zan.

Beste aitona, berriz, andaluzar zan; Dionisio Ureña, Ayamonte'n (Huelva) 1743 urtean jayoa. Ez da paperetan ageri zer bizimodu zun;

ezta ere nola etorri zan. 1785 urteko Mayatzaren 19'an San Bizenteko elizan ezkondu zan; andregaya, Manuela Antonia Arbizua, Donostiarra zan. Alargundu ta 1792 urteko Apirillaren 22'an berrero ezkondu zan San Bizenten; andregaya Donostiarra zun: Gerarda Zamora. Berriz alargundu ta berriz ere ezkondu egin zan 1796 urteko Azaroaren 3'an, San Bizenten oraingoan ere; ta ontan ere andregaya Donostiarra, Maria Josefa de Alana. 1797'urteko Azaroaren lenengo egunean, alaba bat izan zuten. San Bizenten batayatu zuten. Joakina Santos jarri zioten izena. Onek ekarri bear zun munduru Bilintx.

Bilintxen gurasoak, Jose ta Joakina, 1819 urteko Garagarrillaren 25'an ezkondu ziran, San Bizenteko elizan. Emengo paperak diotenez, bost seme alaba izan zituzten: Jose Ramon (1820-IV-16), Teresa Martina (1821-IX-5), Josefa Hilaria Petra (1825-IX-17), Josefa Franziska Zipriana (25-IX-1827), ta danetan gazteena, Bilintx, 1831 urteko Apirillaren 30'an eguerdiko amabitan jayoa.

Urrengo egunean batayatu zuten, San Bizenteko elizan. Jarritako izenak: Gillermo Joakin Indalezio. Aita ta ama pontekoak Gillermo Mansaso ta Maria Joakina de Huici izan ziran. Beraz, auen izenak jarri zizkaten aurretik, bañan irugarrena zan beti betiko gelditu bear zitzayona.

Aitona andaluzak etzun billoba au ezagutu. Bederatzi illabete ziran illa zala (1830-VII-20), 87 urteekin (1).

Asieratik esan nai degu iñondik ere ezin somatu izan degula "Bilintx" izengoiti ori nundik ote zun.

Aurra zala, erori egin zan ta arpegia zearo itxura galduta gelditu zitzayon (2). Orregatik "Moko" edo "Indalezio Moko" esaten zioten.

Geroago zezen batek adarra iztarretik sartu ta oso gaixo utzi zun. Zenbait astebete oyezan pasa bear izan zitun (3).

Arotza izan zan. Arzuaga zeritzayon baten aroztegian ibilli zan lanean. Laneko bi lagunuen izenak badakizkigu: Domingo Kanpaña famatua ta Erramun "Moko". Beraz, onek Bilintxen izengoiti ber-bera zun.

Argitasun auek Pepe Artolari zor dizkiogu. Onek Bilintxen gertaera batzuk idatzita utzi dizkigu. Ez dira asko, bañan mesede ederra egiten dute Bilintxen alderdi danak ezagutu-arazteko.

Bestela ere badakizkigu beste gertaera batzuk. Danen aurretik kontatuko deguna oso ezaguna da, batez ere Donostian. Bañan emen jarriko

(1) Orain arteko berri danak San Bizenteko paperetatik artuak ditugu. Lan ori egin diguna Pepe Artola'ren billoba da, Juan Maria Artola. Milla esker.

(2) J. Manterola: «Cancionero Vasco», 2.ª serie, tomo I, abril de 1878.

(3) J. Manterola: «Cancionero Vasco», 2.ª serie, tomo I, abril de 1878.

degu “Euskal-Erria” aldizkarian 1885 urtean, beraz Bilintx il da amar urte bete baño len, dagon bezelaxe. Ala dio:

“Bein batean kalean zijoala Bilintx gogoangarria, igaro zan bere aurretik gizon bat zerbait moxkortua, eta esan dio:

—Adio Bilintx.

Eta Bilintxek, itzetik ortzera, erantzun zion:

—Adio Balantx.”

Aldizkari onek berak (T. 41, 1899). Bilintxen beste ateraldi au kontatzen digu:

“Buru soil edo illegabekoa zuen antzera, lagunen batek, far egin nayeon, kentzen omen dio txapela esanaz:

—¡Oi, oi, Indalezio, ire buruak gazta zirurik, motell!

—¿Zergatik?

—Legun leguna ta zuriya dagoelako.

—Eta ireak, berriz, illerri edo *kanposantua*.

—¿Zergatik?

—Illez betea dagoelako.”

Beste bein, nagusiak bialdu omen zitun Bilintx ta beste langille bat Ixturin ta Miraconcha tarteko “palaziyo” batera, “mueble” batzuk eramatera. Garai artan, inguru artako Muntto baserrian-eta, sagardotegia izaten zan. Batak besteari esan zion: “Aizak, sagardoa eran bear diagu. Ara, palaziyo ontan zakurra izaten dek, bai, ta egin zagun papera zakurra zaunkaka irten ta guk alde egin bear izan diagula”. Alaxe egin zuten: mueble, gurdi ta guzi bertan utzi ta sagardotegira (4).

Noiz ez dakigula, Teatro zarreko konserje egin zuten. Bizi tokia ere an bertan zun (5). Jendeari “refreskoak”, ura “eskonfakin” ta orrelakoak saltzen aritzen zan. Artarako dendatxo bat-edo an bertan omen zun (6).

Bein zortzi milla errial lapurtu zizkioten. Manterolak ala dio: “de su establecimiento”, ta dendatxo ontatik eramango zioten diru pilla ori (7).

Konserje izanik ere, etzion arotz-lanari laga. Bein Teatro zarraren atarian “trintxa” deritzayon erreminta zorrozten ari zan. Egun artan konomia edo zer edo zer bazan Teatroan. Mutil bat alderatu ta esan zion:

(4) Dunixi jaunak (Dionisio Azcue) kontatua.

(5) Makifia bat tokitan ageri dana.

(6) Joakin Muñoz-Baroja jaunak esana.

(7) J. Manterola: «Cancionero Vasco», 2.^a serie, tomo I, abril de 1878.

“Aizu, Bilintx, sartu nazu”. Ta Bilintxek: “Bai, zorroztean”. Alegia, zorrozitutakoan trintxa sartuko ziola (8).

Bere emaztea Nikolasa Erquicia Macazaga izan zan. San Bizenteko paperak Azkoitiarra zala diote. 1846 edo 1847 urtean jayo zan. 1932 urtean il zan ta oraindik ere asko daude Donostian artaz oroitzen diranak. Oso emakume prestua omen zan.

Bañan ez San Bizenten ta ez Santa Marin, ez degu ezkontzako paperik arkitu. Bearbada, andregaya Azkoitikoa izanik, emen ezkonduko ziralta ta abixua eman nion Azkoitiko erretoreari. Badakit ango paperak aztertu ditula bañan ez du ez jayotzako ta ez ezkontzako paperik arkitu. Lenengo semea 1870 urtean izan zuten, amak 24 urte zituala, ta 1869 urtean-edo, ezkonduko ziran.

Bi seme ta alaba bat izan zituzten: Benito (1870-I-12), Pio Fran-zisko (1871-VII-11) ta Maria Ana Hilaria (1874-VII-26) (9).

Esan degun urtean ezkondu baziran —askoz lenago ezin ezkonduko ziran beintzat— Bilintx berandu xamar ezkondu zan, 38 bat urteekin. Beraz egia dirudi erriak diona: alegia, itxusia izanik (txikitan erori zan ezkeroztik, esan degunez), neskatxak etzutela begi onez artzen. Au ala izanik, Loyolako *Ja-jai* arek egiazkoa izan bear du, ta bere amore kontuak kontu ugariak izan bear dute.

Bilintxen amoriozko bertsoak zein urtetan jarriak diran, beti ez bañan batzutan badakigu. Auei begiratu ta 1857, 1862 ta 1868 urtean jarriak dirala ikusten degu. 1868 urteko ori ez ezik, gañerakoak Niko-lasak amaika eta amasei urte zituala jarriak daude. Beraz, ez dirudite arentzat jarriak diranik, ta alderdi ontatik ere egitzat ar dezakegu erriaren esana.

1868 urteko bertso oyetaz Manterola'k esaten digu Nikolasa'rentzat jarriak zitula. Garai ontan bazitun onek ogei ta bi bat urte. Azkeneko bertsoan dio lau bat urte bazirala dama ori “bere oroitzan faltatu gabe zegola gau ta egun”.

Au ta beste bat edo bi ez ezik, bere amoriozko kanta danak badute barrenen alako samintasun bat: galayak damari maitatu bai, bañan damak galayari kasorik ere egiten ez diola. Zea onek ere egia dala ematen du. Itz batean esateko, bere amoriozko kantetan Bilintxek bere biotz^o zabal zabalik jartzen digu.

(8) Dunixi'k kontatua.

(9) Santa Mariko paperetatik.

Manterola, Benito Jamar, Antonio Peña y Goñi ta Mourlane Michelena'k Bilintxen gauza asko kontatu dizkigute (10):

Esterlines kalean bazan garai artan "Cafe Oriental" zioten bat. "Heladuak" egiten sona aundikoa zan. Iñor ez edo jende gutxi egoten zan orduetan, literatura-zale batzuk biltzen ziran ara. Ayetako bat Bilintx. Onek bere bertsoak esaten zitun. Antxe ezagutu zitun Campoamor olerkariaren *Doloras* izendatutako itz-neurtuak. Izugarri gustatu ta alakorik asmatu nai izan zun, bañan ezin. Etzan ori bere bidea.

Bañan Benito Jamar dalako orrek irakurri zizkion ordun Becker'en *Rimas* ta Aguilera'ren *Elegias*. Bilintxek entzun omen zitun arrituta, bere anima olerkariaren animarekin zearo bat eginda.

Beste bein, kayeko taberna batean, Benito Jamar onek irakurri zizkion erderara itzulitako Heine'ren zenbait bertso. Bilintxek entzun zitun biotza saltoka ari zitzaioya: "¡Ederrrraa!..." esaten zun, edo bestela txapela eramaten zun malkoz bustitako bere begietara. Ta Jamar'ek —au berriz Bilintx ala ikusiaz arrituta— aldamenekoari esaten zion: "Ikusi al dek arpegi luze orreri?..."

Urrutiko ibillaldien kontraerak ere gustokoak zitun. Maiz aitatzen zitun Mac-Clure, Hue, ta Livingstone ibiltzale ospetsuak. Ta urrutiko tokien irudiak gorde egiten zitun: Tibet, Lago Victoria...

Soraluze, gau batean, izarren izenak esaten ari omen zitzaion. Bilintx arrituta zegon zeruaren edertasunari begira. Ta alako batean esan zun: "Auts ariña naiz".

Bein batean esan zion Jamar oni: "Ni ez nazu maixua. Bertsoak antolatzen ditut udazkeneko arratsaldetan kupelako lenengo zizarrarekin kantatzeko modukoak."

Erdera poliki xamar zekien, bañan etzun izan bear eskola aundirikan. Arratsalde batean esaten omen zun: "Iya ez baidakit irakurtzen. Bañan irakurri egiten det irakurri bear dana".

Bere suerte txarragatik esaten omen zun: "Bizitzak makillazoka erabilli nau, asto biyurri baten gisan". Ori zionean, etzekien gizaioak zer gurutz-bide ikusteko zegon.

(10) J. Manterola: «Cancionero Vasco», 2.ª serie, tomo I, abril de 1878.

Antonio Peña y Goñi: «Euskalerrria», 1885, 433 orrialdea. Lan ontan esaten denez, badu jaun onek Bilintxen bizitzaz beste lan bat «El Imparcial» zeritzayon Madriko periodikuan, bañan ez degu eskuratu al izan.

Benito Jamar: «Poesía Euskara», Biblioteca Selecta de Autores Vascongados, San Sebastián, 1896, Prólogo de Benito Jamar.

Mourlane Michelena: «La poesía vasca en el siglo XIX», Primer Congreso de Estudios Vascos. Oñate, 1918.

Bañan au dana ala izanik ere, Bilintx benetako bertsolaria al zan? Au da: bertsoak jarri ez ezik, bat batean botatzen ere ba al zekin? Baretz erantzun bear degu. Ta ona emen ezaugarri batzuk:

Domingo Kanpañari botatako bertso famatu ura bat bateko izan zala, ongi asko dakigu. Dunixi jaunaren lan baten bidez.

Bere liburuan estrañako aldiz agertzen diran bertso batzuetan, "Aspaldiyan Joxepa" deitzen diranetan, Bilintxek adierazten du Ondarrabi-ra bertsoetara joan izan dala ta berriro ere bertsoetan aritzeko prest daukala bere burua. Bertso oyek ez dira "desapiyo" bat baizik.

Pepe Artola-k kontatzen digu Bilintx igande arratsalde batean Ernani-n bertsolari batekin elkartu, bertsoetan asi ta Bilintxek etorri aundia zuen ezker bereala menderatu zuela bertsolari ura.

Laugarren ezaugarria da Antonio Peña y Goñi jaunak kontatu diguna:

Garai artan, austerre egunarekin, merienda on bat egiten omen zan. Oitura alaxe zegon. Jateko danak edo geyenak beintzat, "mariskuak" izaten omen ziran: lanpernak, lapak,... ta zea luzetxo batzuk, "deitus" deitzen ziranak.

Ori dala ta 1860 urte inguruan, austerre egun batean, Arsuaga Bilintxen laneko nagusiaren etxean meriendatzera bildu omen ziran Arsuaga bera, Ramon Emparanza, Jose Javier ta Policiano Serrano, Domingo Peña, Antonio Peña y Goñi, ta... Bilintx ta Domingo Kanpañña. "Paseo de Atocha-n" omen zegon Arsuagaren etxea.

Ari omen ziran jan da edan guztizko sasoyean ta alako batean Kanpañak bertsoa bota omen dio Bilintxi, ziria sartuaz.

Kanpañña ori sekulakoa omen zan: aundia, gizona ta oso lotia. Bonbardinuaren jotzallea zan ta soñu-banda prozesioan edo kale-jiran kaleetan barrera jotzen zijoala ere, iya lo artu egiten omen zun. Bein "La Fraternal" zeritzayon lagun-artean "billar" dalako joku ortan ari zan. Makillazo bat jotzera zijoala txistua botatzeko arpegia beste aldera jira ta erdi lotan gelditu omen zan. Bañan ala ere, polikitxo omen zekin bertsoetan.

Ba, Kanpaññaren bertso orrekin izugarri bertso-festa ederra asi omen zan Bilintx ta Kanpaññaren artean.

Bilintx etorri aundikoa omen zan ta aren erantzuna errex, zorrotz ta tximista bezin bizkor sortzen zan.

Kanpañak berriz "manxo" xamar itzegiten omen zun ta asnasa ere soñu aundiz erabiltzen zun.

Ikustekoa omen zan: Bata, Kanpaña, lodia, umore txar guzien ontzia balitz bezela; bestea, Bilintx, estu ta medarra, arpegi puskatutako deabrutxo baten antzekoa.

Orrela aritu ziran bertsotan, alkarri gorputzaren akatsak agertuaz ta itz txarrak erantsiaz, kupira gabe gaizki esaka, ayen lagunak ayen ateraldi ta xeblebrekeriz parre algaraz eztanda egin bearrean ari ziran bi-tartean.

Beraz, Bilintx benetako bertsolaria zan. Ez du onek esan nai bere bertso danak bat batekoak izan ziranik. Bertsolariak batzuetan "jarri" ta besteetan "bota" egiten dituzte bertsoak. Orrela egin zun Bilintxek ere, eta bertsolarien artean leku eman bearrean arkitzen gera, eta ez alajaña bazterreko lekuren bat.

Bilintxen beste zea bat joku zalea izatea omen zan. Ez diru zalea zalako. Suerte utsezko jokuak begitan artuak zitun. Nor gallen geratzea, ori omen zan Bilintxek jokuan nai zuena. Ez omen zun dirurik jokutzen, bañan kontrarioa azpiratzeko irrikitan egoten omen zan.

Tutea oso maite omen zun, batez ere iru lagun arteko tutea, garai artan "la pincheta" esaten zana. Durduri ta asarre ta bere onetatik aterea bezela jartzen omen zan batzuetan.

Gabino Iribas patxara aundiko gizona izan ta uraxe omen zan Bilintxek kartetan aritzeko nayago zuen laguna. Au kontatu diguna, Antonio Peña y Goñi ere, maiz aritu omen zan tutean Bilintxekin, bañan bera ere jokurako Bilintxen antzekoa izan ta askotan sesiyoa izaten zuten azkenerako. "Cafe de la Marina" zeritzayonean aritzen ziran ortan.

Bañan karlisten bigarren go gerratea sortu zan. Donostian liberalak "Batallón de voluntarios" zeritzayona sortu zuten. Oik ziran erritik kanpora ibilli ez bañan etsaya ingurura etortzen bazan, ari gogor egiteko.

Bilintxek bereala eman zun bere izena. Laugarren konpañian sartu zuten (11).

Asieran karlisten partidak mendiz mendi ibiltzen ziran, Santa Cruz-eta buru zutela. Bañan pizkanaka batalloyak antolatu, Tolosa artu, ta 1875 urtean, itxas-bazterreko erri batzuk ez ezik Gipuzkoa guziko nagusi ziran.

1875 urteko Agorraren 28'an Donostia bonbardeatzen asi ziran. Kañoyak Arratsain mendiaren egalean zituzten. Gazteluan beti egoten zan bat edo bat begira jarrita, ta kañoyaren kea-edo ikustean, kanpayari eragiten zion, jendeak bere burua al zun tokian izkutatu zezan. Oraindik ere ageri da gazteluan kanpai ori zegon tokia. Kanpaya entzun ta granada

erori artean, Bulebarra alde batetik bestera igarotzeko denbora izaten zan (12).

Bein batean kalean zijoan gizon bati granadak jo ta burua kendu zion. Burua bueltaka erori omen zan lurrera. Bestean, emakume bat as-toarekin zijoala, kanpai-otsa entzun ta sartu egin zan ezkaratz batean. Granadak astoa jo ta zearo purrukatuta utzi omen zun (13).

Ori izan zan ia bost illabete buru Donostiaren biziera.

1876 urteko Ilbeltza etorri zan ta 20'an San Sebastian eguna, erriko patroya. Arratsaldearen asieran Bilintx etxean zegon, bere gelan ain zuzen ere (14). Manterola'k berriz dio (15) bere gelan, goizean, traje berri bat estrañatzera zijoala. Entzun ere izan degu bere burua meza nagusirako prestatzen ari zala. Seguruena izango da *Diario de San Sebastián* dalako orrek diona, arratsaldearen asieran gertatu zala. Ta ordua edozein izanda ere, bere gelan zegola beintzat, granada bat bertan erori ta anka biak zearo purrukatu zizkion.

Sei illabete bizi izan zan oraindik, oyezan, miñez ta oñazez, esate baterako, eriotzaren zai.

Bitartean liberalak egundoko soldau-pillak gertu ta berreun bat milla gizon bota zituzten karlisten kontra. Auek jende gutxi ziran ainstesteri gogor egiteko. Otsaillaren 18'an alde egin zuten Donostiko ingurutik ta 28'an Don Carlos'ek bere "volveré" famatu ura esan ta izkutatu egin zan Arnegi'tik barrena.

Pakea beraz etorria zan, bañan oyetik ta oñazen tartetik jasoko zun Bilintxek pakearen berria.

Uztaillaren 22'an Madriden euskal fueroak kentzeko agindua firmatu zan. Bilintx ordea egun artan bertan il zan goizeko lauretan 45 urteekin eta etzun ezagutu fuerorik gabeko Euskal-erririk (16).

Lur-ematea urrengo egunean izan zan. Illetako Meza zortzi t'erdietan Santa Mariko elizan. Gorputzari laguntzen, aideak, adiskideak, ta esandako batalloyaren buruzagi ta lagunak izan ziran. Baita ere gobernadore ta alkatea (17).

(12) Zarrai entzuna.

(13) Zarrai entzuna.

(14) «Diario de San Sebastián», 1876-I-21.

(15) J. Manterola: «Cancionero Vasco», 2.ª serie, tomo I, abril de 1878.

(16) «Diario de San Sebastián», 1876-VII-22.

(17) «Diario de San Sebastián», 1876-VII-23.

Meza bukatu ta gorputza Teatro zarraren parera irixtean, soñu-banda bat azaldu zan. Bere batalloyaren soñu-banda zan ta il-soñu bat joaz lagun egin zion gorputzari (18).

San Bartolomeko kanposantuan lur eman zioten. Andik amabi bat urtera oraingo Polloe-ko kanposantura ekarri zuten (19) ta orain ontan dago San Prudencio kalean 72'garren illobian, bere emazte, bi seme ta erraña ta iru billoben gorputzekin batera. Gu ara joan giñanean igartutako lore-mordoxka bat zegon arriaren gañean.

Ill-obiak goiko aldean Bilintxen irudia du ta beraxeago onako au dio: "¡Bilintx! / Donosti maite ontan zure / bertsoak entzun genituenok / esan genezake Jaunaren / miserikordiak kantatzera / joan ziñan ezkeroztik / zerua bera gozoagoa / izango dala."

Bilintx il da gero, alargunari *estanko* bat eman zioten, bizimodua nolabait ere atera zezan. Teatro zarraren aurre aurrean zegon, kale nagusia ta Embeltrán kalearen kantoi kantoyean, gaur "Granja Urumea" dagon ortan.

1880 urtean "Juana Bixenta Olabe" inprentatu ta salgai jarri zun bere dendatxo ontan.

Seme zarrena, Benito, bularretik gaixotu ta 1898 urtean 28 urteekin il zan.

Beste semea, Pio, 1946 urteko Otsaillaren 16'an il zan, 73 urteekin. Oso ezaguna izan zan Donostian. Denbora asko Madriden bizi izan zan. Baita bere ama ere. Orain Pio onen semeak bizi dira.

Alaba, Maria Ana Hilaria'k, ez dakigu zer bizimodu izan zun. Bere izenik azaltzea nai ez duen Donostiar zar batek, gertaera polit bat konstatu digu alaba onetzaz. Entzun genion bezela jarriko degu emen:

Tabuyo izan zan garai bateko sona aundiko kantaria. Erreterierra zan.

Bein, Madriden zala, lagun batzuekin bildu zan gau-festa batera. Lagunak atsegin zuten ta Tabuyo kanta kantari ari zan. Bilintxen kantak ere bai.

Gau txarra zegon: otza, euria, elurra,... Bañan jende geyegiz-edo tokia berotu ta leyoa idiki bear izan zuten aizea berritzeko. Kalea uts utsik zegon, bañan leioa idiki zunak ikusi zun balkoi baten azpian emakume bat zegola geldi-geldi. Esan zien lagunai: "Ara, emakume bat dago or, dagon egualdiarekin gure kantak aditzen".

(18) «Diario de San Sebastián», 1876-VII-23, ta Antonio Peña Goñi «El Día»-n (1931-V-1) aitatu.

(19) Francisco López Alen: «Iconografía de Guipúzcoa», San Sebastián, 1898.

Deitu ta galde egin zioten: "Bañan nolatan dezu kanturako orrenbesteko zaletasuna?"

Erantzun zuen: "Nere aita zanaren kantak kantatzen ari ziñaten da..."
Bilintxen alaba zan.

Alaxe kontatu zidan Donostiar zar arek ta nik galdetu nion: "Tañundik dakizu ori edo nork kontatu dizu?"

Segituan erantzun zidan: "Tabuyo'tarrak berak, gure etxeko lagun aundiak bait ziran".

Joakin Muñoz-Baroja jaunak ere alako zer edo zer aditua du.

ANTONIO ZAVALA, S. J.

Irakurrita gero itz auekin bukatzen du: Bilintx bezelako olerkaririk gutxi izan ditugu eta egia esateko Donostiak berak ere, erri onek ere, ezta ezer euskeraz izan, ez erderaz, nik uste dedanez. Poeta onen artean gutxi izango ditu Bilintx-en antzekoak. Uste det Bilintx-ekin oraindikan ere zorretan gaudela. Oraindikan etzalo egin merezi zuen bezelako omenaldi bat. Neri iruditzen zait egin bear zaiola. Donostia ontan ezta kale baztar bat baizik. Esan bezela zorretan gaude eta omenaldia egitekotan uste det egunik onena izango litzakeala San Sebastian eguna. Egun ortan granadak arrapatu zuen. Besterik ez. (Txaloak egiten dizkiote).

Aita L. Villasante.k bere itzaldia irakurtzen du. Lendabizi Euskaltzaindiari Jose Luis Lizundia jaunak bialdu zion karta.

EUSKALTZAINDIARI ZUZENDUTAKO KARTA

Abadiño-n, 1961'gko. urrillaren 20-an

Euskaltzaindiko Buruzagi jauna

B I L B O

Jaun agurgarria:

Euskerari buruz oar asko egin litezke eta danak gutxi dira gure izkuntza maiterearen alde. Nik ere nere zorrottoa eraman nai dut errotara: Egutegiak.

Gaztea naiz eta orregatik ez dakit asko lengo berri, baiña urte auetan agertzen asi dira egutegi batzuk euskeraz. Arantzatzuko Frailleak, Fatimako Apostoloduak Iruñian, Katoliko Langille Gaztediak (J. O. C.), eta abar.

Baiña au tamalgarria!, danak desberdiñak, eta desberdintasun au arritze-koa da arrotz batentzat eta lotsatzekoa euskaldunentzat. Ayentzat: Nolakoz izkuntza duk au? Bertakoentzat: Bueno, bueno, etzekiat zein erabili bai, ta obe duk enerua, febrerua... esatea, ze onekin ziurrago nejabik. Guk gazteok auexek erabiltzen ditugu, ez Bizkaikoak, ez Gipuzkoakoak, ez Nafarroakoak, ez beste iñungoak; eta Bizkaian bakarrik ez, Gipuzkoan ere bai. Bai, baten batek, ez du esango orrela, baiña bai geienak, eta nere ustez, euskera ez da oraindik laboratoriora, ez sanskritoa, erri baten mintzaera baño. Noan berriz, lengo lekura, egutegi oiek, batuk *abendu* esaten badu, besteak *lotazilla*, ta arutzagokoak *gabonilla*. *Azaroa*, *azilla*, *semendia*. *Garagarrilla* (junio), *garagarrilla* (julio). Ezin liteke naste ori apur bat kendu? Nere ustez Euskaltzaindiak eta kalendario egilleak dute irza. Batuk bere orientazioekin, eta beste danak sakrifizio eta erderaz esaten dan bezela "altura de miras" apur batekin. Dana da gutxi euskeraren alderako. Ez da soluzioa lege batzuk ipiñi ta gero nai ta nai ez bete eragitea, ez, ori poliziaren eta gobernuaren jokabidea da. Euskeran: apaltasuna, norbere asmoak alde bateratzea, gora begiratzea, ta... euskeragatik edozein sakrifizio egiteko gertu egotea, bear litzake.

Eta nola esan? ori Euskaltzaindiak esan lezake, ipiñiaz amabi itz "recomendables". Besteak ere esan litzake idazle batek bear duen baten, baiña Euskaltzaindiak: ofizialak eta Euskal-Erri guztirako eman bear litzuke. Erreza ez da, baiña egin litekena bai. Eta zeintzuk? Ba, euskaltasun eta zabaltasun geien dutenak, konfunditzeko bildurrik gabe artu litezkenak; esate baterako: garagarrila (junio) ta garagarrilla (julio), biak kanpora, badaude beste batzuk eta.

Gero egutegi egille guztiai orientatu, ez agindu, ta gero ikusi. Probatzea ez da asko kostako.

Beste gauza bat. Gure erriak antz bat baiño geiago du Suitza-rekin, eta an lau izkuntza egiten badira, emen ere iru egiten dira. Orregatik an egiten dan bezela, emen ere bi edo iru izkuntzako egutegiak ezin litezke egin? An poliki ta ugari egiten dira Erri danerako, emen ere berdin, euskal seme asko euskeraz ez dakitenak pozik artuko litzukete, ze asko dira euskeraren egarria dutenak. Egia da, gauza ortan egutegi egilleak, eta industri, komertzio ta propaganda etxeak dute itza. Baiña lendabizi jokabide bat bear da.

Azkenez beste galdera bat: Bizkaiko euskeran nola da: dautsat, deutsat, dautsot; daust, deust; dautso, deutso; eta abar. Zeintzuk dira forma

zuzenak? Or ere badago zerbait argitu bearra, bakoitzak nai duen bezela jartzen baitu (1).

Besterik gabe, barka eskatuaz, agurtzen zaitu biotzez.

Jose Luis Lizundia Azkondo.

ILLEN IZENAK

Euskaltzaindiak, bere azken batzarrean, illen izenei buruz txosten bat ekartzeko agindu zuan. Izen oiek, bakoitzak bere modura jartzen omen ditu, eta, jakiña, ortik naaspil aundia sortzen da. Txosten ori izango litzake, ba, ea illen izenetan batasun pixka bat jarri ote diteken ikusteko. Asmo onekin paratu det nere lantxo au.

Euskaltzaindiari, kanpotik etorri zitzaion ortarako bultza. Abadiño-ko Lizundia jaunak idatzi zigun, batasunaren alde egiten dan baiño lan geixego egin bear dala esanaz. Batasuna itzetan asko aipatzen omen degu, baiña egintzetan ez omen da ikusten. Eta gure artean dagoan anarkia izugarriaren adibide batzuk jartzen zituan. Nik eztut emen orain jaun orren karta, baiña gutxi gorabera onela zion: Artzen dituzu eskuetan iru edo lau egutegi euskerazkoak; illen izenak batek era batera dakarzki, besteak bestera, denak desberdin. Eta gero zer pasatzen da? Jendeak azkenean eztakiala illak nola deitu euskeraz eta erdal itzakin gelditzen dala: Enerua, Febrerua... ta kito. Baiña orren errua geuk daukagu, euskaltzaleok, izen bat eta bakarra beti erabiltzen eztugulako. Bi edo iru izen erabiltzen badira il bakoitzarentzat, erria aspertu egiten da eta batere etzaio gelditzen buruan. Eta okerrago dana: izen berbera erabiltzen bada orain il bat eta gero beste bat izendatzeko, azkenean nola esan bear dan eztakiala gelditzen da. Erderazko izena, berriz, beti bat eta bakarra izanik, eta leku danetan berdin esan oi danez, nagusi ateratzen da.

Au zion gutxi gorabera Lizundia jaunak. Eta arrazoi osoa daukala danok aitortzen dugu.

Ordea, nola zintzarria jarri katuari? Or zeok koska. Gaitz au nola erremediatu diteke? Batzuek uste dute nunbait Euskaltzaindiak edikto

(1) Azkenengo puntu oni Euskaltzaindiak beste karta batekin erantzun zion. Forma zuzenak **deutsat**, **deust**, **deutso** eta orrelakoak dirala jakinerazi zuen. (A. I.)

edo ukase gogor bat eman bear lukela eta bere agindua austen duten guztiak kartzelan sartu; baiña Euskaltzaindiak ez izan olako aginterik; euskaltzain gizarajook eztugu orrelako asmo beltzik inorenaganako. Gaiñera, gaur eguneon, gure literatura dagoan adinean, ezta posible erabateko batasun edo berdintasun osoa gauza denetan lortzea. Ori argi eta garbi aitortu bearra dago. Ala ere puntu nagusi batzuetan ortara jotzea edo al dan neurrian urbiltzea komeni zaigula, ta komeni ezezik, il edo biziko eginbearra dugula, ori ere danok ikusten dugu.

Illen izenetan, bada, ez ote diteke batasun pixka bat jarri, egutegi, illeroko, ta esku artean dabiltzan aldizkari eta paperetan? Beintzat Euskalerrri osorako egiten diranetan? Auzi au aztertzerá dator nere txostena.

Gabon-inguruan guzcion eskuetara eldu oi dira egutegi berriak. Beraz, Gabon-aldirako egokia da gaia, Gabon-usaiekoa ere esango nuke.

Gure aurretik euskeraren kezka beren erraietan sentitu dutenak ea gai oni buruz zerbait esan duten ikustea beti jakingarri baita, irauli ditut "Euskera" agerkariaren tomo zaar batzuk. Ain zuzen, Durangon 1921 gn. urtean Belaustegigoitia tar Perderikak egindako lan mamitsu bat aurkitu dut. *Euskera III (1922), 1 z., 103-113*. Euskeraren batasunaz ari da, gure mintzoak etorkizunik izango badu, batasun ori nai-ta-naiezkoa zaigula, alperriko desberdintasunak kanpora bota bear ditugula t. a. Eta gu orain, ikutzerá goazen gai au ere, illen izenak, iragaitzaz bada ere, aipatzen du. Ara zer dion:

"Zenbat eta sarriago gauza bat bardin entzun, ikusi, irakurri, esan, errazago ikasten dala. Oroimenaren lege bat da. Era ezbardin guztietara or, emen, an entzuten ditugun euskel-itz gizagaxoak erderaren abots berdiñak ixildu ta aiztu-erazoten ditu. Bat burura sartu zaigula, beste bat urten; errazago itz bat ikasi, oroitu; bi, lau, bost baño: gure txikitásunaren beste lege bat da. (Ibeltza-Urtarrilla, Otsailla-Zezeilla & ginituen atzo; Enerue, Febrerue & gaur; Bizkavan beintzat, iztegi berezi geyena galtzen dau erriak.)

Bardindu gabe, euskera txirótu ta zikinduten da; euskerearen alde z egin leiken lenengo lana bardintzekoa da; au gabe, garbizale ta aberastásun-zaleak egiten dituen guztia, alperriko ta kaltegiña. Euskelgi berri bat edo batzuk egiñik, euskerea zaildu ta gorrotagarri egingo dute."

Jaunak, urte asko pasatu dira —berrogei— itz zuur oiek esan zira-netik. Utsaren baian ez ote dira eralgi, gero? Beintzat jaun orrek ain zauri bizian salatzen zituan gaitzak, orain ere lengo lekuan eta leen bezin gordin

daudela aitortu bear da. Damugarri bada ere, au esan bearra zegoan, egia da ta (1).

Txosten au idazteko, begien aurrean izan ditut lau egutegi: bat bizkaitarra, beste bat gipuzkoarra (biak Arantzazun argitaratzen diran oieta-koak), bestea Luzaidekoa (ango Satrustegi apaiz bipillak aterea), eta bestea "Gure Almanaka" deritzana, "Herria" astekariaren ardurapean aterea. Almanaka onen euskera, Laffitek "navarro-labourdin littéraire" bezela bataiatu duena dirudi: Lapurdikoa eta Nafarroa Beherekoa nahasiz egiña. Luzaidekoak angoa darabil, eta, dakigunez, iri artan Nafarroa Behereko euskera egiten dute. Izan ere, izenik geienetan bat datoz Luzaideko egutegia eta Gure Almanaka.

Eta orain beste kontu bat, ajolarik aundiena duena. Zein izen autatu bear dan jakiteko, nun dugu metroa, kriterioa? Kriterio zuzen bat euki ezik, lehen baiño okerrago jarriko ditugu gauzak. Itz-autatze ori ze kriteriokin egin bear dugu ba? Nere ustez, au argi ta garbi dago. Kontu ontan izan diteken kriterio zuzen bakarra, onako au da: euskeran sus-traituen ta zabalduen dagoan itza, ura artu, ari eutsi, ari lagundu, ura indartu ta sendo finkatu. Au da bide zuzena. Bestela eztugu deus egiten. Garbikeria dala, etimologia dala ta eztala, zenbat alperriko lan eztugun egin! Ta alperrikoak balira! Belaustegi jaunak arestian esan digu: "Alperriko ta kaltegiñak". Askotan euskal itz jatorrai geu ibilli gera gerra egiten, indarra kentzen, gauzak obetzeko kontuan noski, baiña zer irabazi dugu? Naaspilla gero ta aundiagoa egin, euskal itzen indarra gutxitu eta orrela erderari lagundu, euskera gaxoa errazago irentsi dezan. Irizpideak zuzendu bear aundia dugu euskalzaleok. Ori egiten eztugun bitartean, ez gera bide onean sartuko.

Eta onekin asi gaitezen bana-banaka il bakoitzaren izenak aztertzen eta zein autatu bearko litzaken ikusten.

ENERO. Gipuzkoako egutegiak *Ilbeltza* dio. Bizkaikoak *Urtarrilla*. Luzaidekoak *Urtarrilla*. Gure Almanakak ere *Urtarrilla*. Beraz Gipuzkoa

(1) Belaustegi jaunak dion au, egia utsa besterik ezta. Nik egin dut proba Arantzazuko auzoan, eta berak dion bezela gertatu zait. Zaarrak bai, ba-dakiz-kite euskerazko illen izenak, baiña gazteak, eta ain gazte eztiranak ere, eztakiz-kite, eta erderazkoekin baliatzen dira: Junioa, Julioa ta abar. Egun auetan sasoi oneko gizon bati galdetu diot, eta ara zer erantzun didan: «Izen oiek guk eztakigu, zaarrak bai ba.dakite, gu beti erderazkoekin konponketan gera...» Gero zaar bati galdetu nion, eta arK bai beriala bota zizkidan amabi izenak, Arantzazuko alde artan esan izan diran bezela. Ona emen: *Ilbeltza*, *Oisaila*, *Martixa*, *Apirilla*, *Mariatza*, *Bagilla*, *Garagarilla*, *Aguztua*, *Agorra*, *Urrixa*, *Zemendixa*, *Abendua*. Ikusten danez, batzuk Bizkaiko modura, beste batzuk Gipuzkoako erara.

da emen itz zabalduenetik urruti dabillena. Itz bat eta bakarra danontzat autatu nai izatekotan, *Urtarrilla* bearko litzake artu. Gogoan daukat Luzaideko apaiz Satrustegirekin bein gertatu zitzaidana. Gezaltzako aitona zaarra ezagutzera eraman nuan. Aren etxeko sukaldean Arantzazuko egutegia zegoan ormatik zintzilika, eta bertan *Urtarrilla* ikusi zuanean asi zitzaidan zorionak ematen: Ori bai egin duzuela ondo —esan zidan— gure aldeko itz ori batasunaren amorioagatik sartu... Nik orduan esan nion egutegi ura bizkaitarra zala eta izen ori Bizkaiko aldean esaten zala. —Nola diteke ori? Naparroako eta mugaz beste aldeko itz berbera Bizkaian ere berdintsu esan, eta bitartean dagoen Gipuzkoan ez? —Ba, beste gauza askotan ere gertatzen da ala...

FEBRERO. Bizkaitarrak *Zezeilla*, Gipuzkoarrak *Otsaia*, Luzaidekoak ere *Otsaia*, Gure Almanakak *Otsaia*. Xuberotarrak uste dut *Barantalla* esaten dutela. Emen, berriz, batasunera jo nai badugu, *Otsaia* artu bear litzakela dirudi.

MARZO. Gipuzkoarrak *Epailla* dakar. Bizkaitarrak *Martia*, Luzaidekoak *Martxoa*, Gure Almanakak ere *Martxoa*. Gipuzkoarren *Epail* ori Iturriagaren Jolasetan agiri da (Ikus XX gn. Jolasa). Ezta ba garbikeriz oraintsu asmatutako izen berriren bat, baiña Gipuzkoan bertan, euskaldun jendearen artean, askozaz zabalduago ta ezagunagoa da *Martxoa*, beste aldean bezala. Beraz au artu bear genduke nere ustez, oni eman bear litzaioke indarra.

ABRIL. Emen ere ba ditugu istilluak. Egutegi gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, bi-biak dakarte *Jorrailla*, Luzaidekoak ere berdin dio: *Jorrailla*. Gure Almanakak *Apirila*. Baiña zein da jatorra, errikoa, alegia? *Apirila*, noski. *Jorrailla* ere, Azkueren iztegiak dionez, Naparroako erriska txikiren batean jasoia izan da, Esteribarren; eta garbiagoa dalakotan zabaldu nai izan dute idazle batzuek, baiña zabaldurik dagoenaren kaltetan, beraz batasunaren kaltetan. *Apirila* da ba il onen izen arrunta, jatorra, Euskal-herri osokoa.

MAYO. Nere egutegi gipuzkoarrak *Lorailla* dakar; izen poetikoa, baiña eztut uste errikoa danik. Bizkaitarrak *Maiatza*, Luzaidekoak *Maiatza*, Gure Almanakak ere *Maiatza*. *Orrilla* ere idazleen artean zerbait zabaldurik dago. *Maiatzari* alako erdal usaia dariolako-edo, beste oek sartu nai izan dira, baiña orrekin egiñik zegoen batasuna desegin eta naaspilla geitu besterik ezta egin. *Maiatza* da dudarik gabe il onen izen euskalduna.

JUNIO. Nere lau egutegiak danak daukate izen diferentea. Gipuzkoakoak *Garagarrilla*, Bizkaikoak *Bagilla*, Luzaidekoak *Ekaina*, Gure Al-

manakak *Errearoa*. *Erakaro* edo *Erayero* ere erabiltzen du Duvoisinek Iturriagaren Jolasak lapurdieraz jartzean (XIX gn. Jolasa). Inchauspek, berriz, liburu ori berori xuberotarrez ipintzean, *Arramayatza* dio. *Beraz*, denak izen diferenteak. Eta naaspil aundiagoa sortzeko dana oraindik, *Garagarrilla* Gipuzkoan "Junio" da, eta itz orrek berorrek Bizkaian "Julio" esan nai du. *Beraz*, zein autatu izen guzti oetatik? Nik eztakit. *Ekaina* (eguzkia gain dagoen illa) uste dut oso zabaldurik dagoela beste aldean. Nai ba duzue, artu zitekean itz ori; edo bestela Gipuzkoako *Garagarrilla*, baiña "Junio" adierazteko bakar-bakarrik erabilliaz.

JULIO. Egutegi gipuzkoarrak *Uzta* dio. Bizkaitarrak *Garagarrilla*, Luzaidekoak *Uztailla*, Gure Almanakak *Uztailla*. Iturriagak ere *Uztailla* dakar (XIX gn. Jolasa). *Uztail* oni emango nioke nik leen-tokia, bukaerako *-il* ori gordeaz.

AGOSTO. Gipuzkoarrak *Dagonilla* dakar. Bizkaitarrak, *Agostua*. Luzaidekoak *Agorrila*, Gure Almanakak *Agorrila*. Emen ere ez naiz egiteko gabe, Axularrek esango luken bezala. *Dagonil* orrek ze sustrai dauka? "Refranes y Sentencias"-en agiri omen da *Dagenil* illun bat, guztiz aaztua zegoena. Arkaismu ori zabaldu nai izan da, ba, eta ori ere ez zegoen-zegoenean artuaz, aldatuaz baizik: *Dagenil*, *Dagonil* biurtuaz. Baiña il onen erriko itza, alde ontan beintzat, *Aguztua* da. Arantzazuko kanta zaarretan ba-da bat, politenetakoa eta irudiz zaarrenetakoa, bertso onekin asten dana:

Agustuaren amabostgarren
Jesus Maria goizian
Birjiña Amaren debotatxo bat
Arantzazura zijoan...

Beraz, gorago jarritako kriterioaren araura jokatu bear badugu, zein eman bear zaio eskubidea? *Aguztuari*, noski. Beste aldekoek *Agorrñil* esaten dute, baiña gero dator "Septiembre", ta oni gipuzkoarrak *Agorra* deitzen diote, beraz leen *Garagarrillarekin* ikusi dugun naaspilla gertatzen da emen ere. Zer egin bada? *Dagonilla* kanpora bota eta *Aguztua* artu; edo bestela mugaz bestaldeko *Agorrñil* artu danok, baiña orduan "Septiembre"-ri ez litzaioke geiago *Agorra* esan bear.

SEPTIEMBRE. Emen gipuzkoarrak *Agorra* dio, bizkaitarrak *Irailla*, Luzaidekoak *Buruila*. Gure Almanakak ere *Buruila*. Azkuek dionez. *Urri lenengo* ere deitzen diote leku batzuetan il oni (Ikus iztegia: *Urri* itzean). Bizkaitarren *Irailla* ez ote litzake egokiena, naaspil guztiak kentzeko?

Baiña gipuzkoarrentzat ezta ain ulerterreza, beste guztiak “ira” edo “iratzte” deitzen duten landarea, Gipuzkoan “garoa” baita. Ziñez, ezta ez gauza erraza danok nai genuen batasun ori egitea.

OCTUBRE. Gipuzkoarrak *Urrilla*, Bizkaitarrak *Urria*, Luzaidekoak *Urria*, Gure Almanakak *Urria*. Beraz, *Urri* da emen nagusi ta beroni eman bear zaio txapela. Beste forma ori, *Urril*, eztakit nik nola sortu dan, analogiaren indarrez seguruasko. Gernikan famatuak dira *Urriko* astelenak. *Urri* “escaso”, da, ba, “Octubre”-ren euskal izen jatorra. *Urriaro* ere esaten omen zaio udazkenari Naparroako zenbait lekutan (ikus Azkueren iztegia), *urri*-aran, *urri*-belar... beti *Urri*.

NOVIEMBRE. Bizkaitarrak *Zemendia*, Gipuzkoarrak *Azaroa*; Luzaidekoak, *Azaroa*, Gure Almanakak *Hazila*. Azkuek bere iztegian dakarren edadura benetazkoa bada, *Azaroak* du emen eskubidea (Gipuzkoa, Laburdi eta bi Nafarroetan zabaldurik baitago). Zenbait tokitan *abendutxiki* edo *len-abendua* ere esaten omen zaio il oni. Gorostiaga jaunak argitu digu oitura onen sustraia (*Euskera*, 1960, 317).

DICIEMBRE. Nere lau egutegiak bein edo bein bat datoz, jaunak. Laurak dakarte itz bat: *Abendua*. Gorde dezagun, bada, maitekiro. Badakit *Lotazilla* ere erabilli izan dala, eztakit nundik aterea; *Gabonilla* ere ikusi izan dut noizbait. *Abendua* latinezko “Adventu”-tik datorrelako-edo, beste oiek sartu nai izan dira, baiña ori txorakeria da ta euskeraren kalterakoa.

Ikusten duzue, jaunak, istillu auek konpontzea ez tala batere erraza. Erriak berak illak izendatzeko dituen izenak ugari dira, eta izen berbera toki batean il bati eta bestean beste bati eman oi zaio. Eta ori gutxi balitz, gerok ere, idazleok esan nai dut, berriak asmatu ditugu, garbikeriak bultzatza eginda, eta orrela, jakiña, leen bi Aita Santu bazeuden Elizan, gerok sartu izan dugu irugarrena, eta gauzak zeuden baiño okerrago jarri izan ditugu. Seguru nago, gaiñera, ezditudala txosten ontan izen guztiak aipatu. Ugaritasun au aberastasuna irudituko zaio baten bati. Aberastasuna, bai, baiña aberastasun kaltegarria, diot nik.

Orain, dialektuetako izen berezi eta jatorrak ezetsi gabe, Euskaltzaindiak nai balitu illen izenak finkatu eta Euskalherri osorako zein diren gomendagarrienak adierazi, nik onako lerrokada au eskeiñiko nioke:

Urtarril “Enero”, *Otsail* “Febrero”, *Martxo* “Marzo”, *Apiril* “Abril”, *Maiatza* “Mayo”, “Junio”-rako eztakit zein autatu: *Ekain?* *Bagil?* *Gara-*

garril?, *Uztail* "Julio", *Aguztu* (edo *Agorril?*) "Agosto", *Irail* "Septiembre", *Urri* "Octubre", *Azaro* "Noviembre", *Abendu* "Diciembre".

Euskaltzaindiak ikus beza.

19-12-1961.

Fr. LUIS VILLASANTE, O. F. M.

Bukatzen duenean batera itz egiten dute eta ezta ondo ulertzen. **Gaztelu-k** zerbait dio beste boz batzuk ere entzuten dirala eta **L. Mitxelena-k** erantzuten dio: geien erabiltzen diran euskal itzak.

Gaztelu: Ba emendik berreun urtera uste det erdera egingo degula.

A. Irigoyen: Erabiltzen diranak eta erabili izan diranak. (Boz asko batera entzuten dira).

L. Mitxelena-k ordena piska bat jarri nai du: **Parkatu**, baiña ezkera asiko denak eztabaidan elkarrekin. (Boz asko entzuten dira).

L. Mitxelena: Orain aztertzen ari geran auzia da **Aita Villasante-k** irakurri duela **Euskaltzaindian** egin litekean illeekiko gauza bat. **Aita Villasante-k** or agertu du bere iritzia. Neri iruditzen zait iritzil ortaz mintzatzen ari gerala.

Gaztelu mintzatzen da zerbaitez beste boz asko ere entzuten dirala batera.

L. Mitxelena: Emen auzia da zein diran erabili bear lirakean illen euskal itzak.

Gaztelu: Bear lirakean?

L. Mitxelena: Bai, ori da, bear lirakeanak. Egin duten galdera ori da. Ori da auzia. Nik nere aldetik esan bear dut ni leku askotan euskaldunekin mintzatu naizela eta leku askotako euskaldunek, euskera ia gal zorian dagoen lekuetakoak ere, neri illen euskal izenak eman dizkidatela. Ori da egia. (Batera bozak.)

Gaztelu: Zarrak.

A. Irigoyen: Ni eznaiz zarra ta nik euskal izenak ikasi nituen umetan. **Urteile, seselle, martie, aprile, maietza, bagile, garagarrile, agustue, urri lelengoa, urri bigarrena, semendie eta abendue. Urrietan** ere esaten da **urri lelengoa** eta **urri bigarrena** biak adierazteko. **Arratia-ko Villaro-n** onela esaten dituzte baserritarrak.

F. Loidi: Probintzi geienetan erabiltzen diran itzak, itz oiel sarrera ematea ere ondo iruditzen zait, baiña uste det kriterio ja-torrena dala izen errikoiak baldin badaude, nai toki gutxiagotan esanak izan, nai toki gutxiagotan erabiltzen diranak izan, erri-

kolak baldin badira oiek artzea. Kriterio ori iruditzen zait jatorrena. Lenbizi euskal itza artzea.

Norbaitek: Euskaltzaindiak badu naiko indarra?

L. Mitxelena: Eztu.

Beste batek: Nik uste dut baietz. (Jenteak batera itz egiten du).

L. Mitxelena: Jaunak, mesedez. (Jenteak batera itz egiten segitzen du).

L. Mitxelena: Au jentearen arteko batzar bat da eta ezta alkarren artean eztabaidak izateko.

A. Arrue, Mitxelena-ri zuzenduaz: Erantzun nai duzu ortaz?

L. Mitxelena: Ba, orduan galdera bat egin nai nioke Loidi jaunari bera mintzatu dan ezker, ia zer dan itz errikoa zure ustez.

F. Loidi: Itz errikoa da errian sortu dana. Adibidez, loreilla esan degu ezta errikoa.

L. Mitxelena: Galdera ori nere ustez eztago zearo erantzuna. Guk nola dakigu errian sortua dan ala ez. Alegia nik eztaikit nola sortu zen, nik ezta ikusi ez entzun itz bat nola sortu zen eta ze bidez ezagutzen duzu zuk itz bat errian sortu dan ala ez.

Fabian Loidi: Errian sortua ezpada ere erriak erabiltzen duena baldin bada eta euskera jatorra baldin bada zergatik ez erabili erdal itza baiño lenago?

L. Mitxelena: Baiña erdal itza zera da...

Fabian Loidi: Erdal itza da **marxua, maiatza**... (Jentea batera itz egiten asten da eta ezta argi ezer entzuten luzaro).

Argiago asten da entzuten eta Gaztelu-ren boza aitzen da... gaiñera gelago esango zuten.

L. Mitxelena: Baiña nork esaten du. Nik ezta esaten. (Jentea batera ari da).

G. Aresti-ren boza entzuten da altu itz egiten duelako eta jentea aditzen gelditzen zaio: Axular-ek, bazekian ala ez euskeraz? Axular-ek. Ala ere **maiatza** eta orrelakoak erabiltzen ditu ta baita Leizarraga-k ere. (Batera itz egiten dute).

L. Mitxelena: (Fitxa batzuk dauzka eskuan eta Leizarraga-ren izkribuetan agertzen diranak irakurtzen ditu. Osatzeko eskatu zitzaion eta emen datoz).

Donostia'n, San Tomas inguruan, Aita Villasante'k illen, naiz illabeteen, euskal-izenez egin zuen jardun ederra entzun ondoren. itz eman nuen gai onezaz bilduak nituen zenbait gai aterako nituela argitara. Ona batzuek, urtearena beste ordenarik gabe, eta orixe bera ere estuegi artzen ez tudalarik.

XVI garren mendea. Mende orretan, oker ezpanago, Leizarraga'k bakarrik dakarzki osorik, bere liburu batean (**Kalendrer**a,

Bazco noiz daten, Ilhargi berriaren eta letra Dominicalaren eçadutzeco manerarequin, 1571):

Vrtharrilla, Otsailla, Martchoa, Aprilla, Maiatza, Ereyaroa, Vztailla, Agorrilla, Buruilla, Vrria, Hacilla, Advendua.

Landucci'ren iztegiari (1562) erantzunik gabe gelditu dira erdal-izenik geienak. Datozenak, zenbait utsekin noski, oexek dira: **osçayla** «enero» («hebrero» euskal.ordaiñik gabe dago), **marsua** «março», **apiriça** (sic) «abril», **mayasça** «mayo», **gararilea** «julio», **abustuyla** «agosto».

Garibay'ren esaera zaarretan, **Marti eguraldi** «tiempo de Março» (beste esku-izkribu batek, ordea, **Urri eguraldi** dakar, itzulpen berberarekin), **Martian**, **Aprilean** «en Marzo, en Abril», **Martiac buztanaç**, **Aprilac bularraz** «Março con la cola y Abril con el pecho». Emen ere, berriz, itzulpen berberarekin beste zerbait dio leengo esku-izkribuak: **Urriac buztanaz**, **Cecellac bularraz**.

1596'ko **Refranes y Sentencias**-en onako oek arkitzen dira: **Otsail** (**Osaylgo euria** «pluuias de Hebrero», **Osaylean** «en Hebrero»), **Opeil** (**Opeyl bustiac**, **Opeileco**) eta **Ope** (**Opeco erlea**, utsal ote?) «Abril», **Maiatz** (**Mayacecoa**) (Mayo), **Baguil** «Junio», **Garagarril** (**Gara-gar<r>ylean** «en Julio»), **Daguenil** (**Daguenileco** «de Agosto», gaur euskeraz irakurtzen den bezela irakurtzekoa, noski), **Urrieta** (**Hurrieteac** «El Octubre»), **Abendu** «Diziembre».

XVII'gn. mendea. Mende onetan, euskeraz geiago egin zelarik, illen izenak ere maizago agertzen dira. Etcheberri Ziburukoarenak (**Elicara erabilteeco liburua**, 1636) oek dira:

Vrtharilla, Otsailla, Marchoa, edo Ior<r>ailla, Aphirilla, Maiatça edo Ostaro, Ecrearoa, Vstaila (bestetan **Vztailla**), **Abustua edo Agor<r>illa** (bestetan **Abuztua**), **Burulla, Vrria, Hacilla, Abendoa edo Lohilla.**

Voltaire'nak (1620), Urkijo'k dakarzkienez, berberak dira, eta liburu onetatik artuak noski. Etziren bear bada leen edizioan agertzen. S. Pouvreau'k «**Jorrraroa, mois de mars**» ere sartu du, leengoetz gainera. **Lohilla**, berriz, «Enero» dela dio, Oihenart (**Prov. 303**) lekuko arturik: **Loila esadila holla, ondotic darraie barandaila** «Januier ne te glorifie pas pour tes beaux iours, car le Féurier te suit de prés».

Micoleta'k (1653) Bilbao'n galduxeak direla dio: «Los doce meses también tienen sus nombres propios vascongados, pero ya no se usan sino en las montañas y entre labradores, porque en las villas los llamamos de los mismos nombres del romance, y así se practica, y nadie los entenderá aun entre vizcaínos en las villas por los nombres de vascuence, y así escuso el ponerlos aquí.»

Alaz guztiz ere, iru sartu ditu bere iztegia: Marzo, **Martia**; Mayo, **Mayaza**, eta Julio, **Garagarila**.

XVIII'gn. mendea. Larramendi'renak aipa ditzagun, euskal idazleek maiz erabili baitute onen iztegia:

1. Beltzilla, urtarilla. 2. Otsailla, ceceila. 3. Epailla, marchoa. 4. Apirilla, jorrailla (Suplemento-an opea). 5. Mayatza, ostaroa, orrilla. 6. Garagarrilla, vaguila, erearoa. 7. Uztaila, garilla. 8. Agorrilla, aboztua, abuztua. 9. Burulla, Irailla. 10. Urria, urrilla, bildilla. 11. Acilla, cemendila, azaroa. 12. Abendua, lotacilla.

Berriagoak. Oraingo Zuberoa'koak, Gavel eta Larrasquet'ek ematen dituztenez (artikulu ta guzti doaz, orain berriro galdu den r parenthesis artean dutela):

Urth(a)r(ri)lla, Ba(r)anthalla, Martxua (edo Martsua), Aphi(r)illa, Maiatza, Arramaiatza, Uztaila, Agorrila, Seteme, Ürrieta, Aza(r)ua, Abentia.

Lapurdi-Baxenabarretakoak, Bonaparte'ren arabera:

Urtharri(l), Otsail (edo Otxail), Mar(t)xo, Ap(h)iril, Maiatz, Ga(r)agartzaro eta Ek(h)ain, Uztail, Agorri(l), Buruil, Urri, Azaro, Abendo.

Eta azkenik, Aezkoa. Zaraitzu eta Erronkarikoak, berriz ere Bonaparte'ren ondotik.

1. A Z izotzil, E urtaril. 2. A otxail, Z otsaila, E otsail. 3. A E martxo, Z martxo. 4. April. 5. Maiatz. 6. A garagartzaro, Z E garagartzaro. 7. Garil. 8. A Z abuztu, E agorri(l). 9. A Z urri, E setemer. 10. A Z azaro, E urriet(a). 11. A abendu, Z lenabendu, E leinabentu. 12. A bigarrenabendu, Z azkenabendu, E bigarnabentu.

L. Mitxelena: Nik gauza bat esan nai nuke kontu ontaz eta ezkaitezen sesioan asi orren gauza gutxigatik. Alegia, Aita Villasantek, ez Euskaltzaindiak, eztute gauza ontan errurik. Erruduna, erruduna baldin bada, karta orren egillea da, eta karta orren egilleak ere eztu errurik. Berak aurkitu du desberdintasun aundiak daudela eta galdera bat egin du.

Galdera orri erantzun dio Aita Villasantek, nere ustez, berak artu dituen irizpideen araura zuzen. Zerbaitetaz auzia bear badugu izan irizpide oietaz da. Eta nik ontan askotan egin izan dudana eskea egingo nuke berriz ere, ia noiz zentzatzan geran, ia noiz begiratzen dugun ingurura eta beste gaifierako izkuntzetan zer gertatzen dan ikusten dugun.

Biaramonerako utzi dira batzarrak. Goizean eztago ezer eta arratsaldean segitzen dute.

L. Mitxelena izketan ari da eta dio uste duela geienez ere Euskaltzaindiaren egitekoa izango litzakeala balmenak edo ateratzea Intxausti-k proposatutako itzaldiak eman ditezela. Uste dut olako

zerbait sortuko baldin balitz erreza izango litzakeala baimenak atezatzea, emen edo an, asieran leku gutxitan eta gero geiagotan itzaldiak emateko.

A. Irigoyen: Orretarako egokia izango litzake alkateakin itz egitea, Ayuntamentuak jarri ditzatela alako itzaldiak. Orrela erre-zago izango litzake.

L. Mitxelena: Bat edo beste eta leku batean edo bestetan (Batera itz egiten du jendeak. Norbaitek errenteriarak aipatzen ditu). Errenterian bear bada gafierrakoak baiño kultura zaletasun gutxiago izango dugu, baiña Errenterian... teatro jai bat, tira, baiña or-tik gora. Neguan obeto, negu aldean. Bueno (Aita Joseba Intxausti-ri zuzentzen zaio), zerorrek ez al zenduke txosten bat egingo? (Batera egiten da berriketa).

A. Miner mintzatzen da eta L. Mitxelena-k erantzuten dio.

F. Artola «Bordari» asteroko batez mintzatzen da.

L. Mitxelena: Orduan Intxausti-rena ontzat artu da. Uste dut euskal asteroko bat oso ajola aundiko gauza litzakeala, ez ala ere gure gaitz guztiak sendatuko litzukeana. Neri Arrue jaunak mandatu bat utzi dit onerako. Emaztea eri dauka eta orrengatik gaur ezta etorri, baiña gai ontaz mintzatu da, leen ere askotan mintzatu izan gera guztiok eta berak artu duen erantzuna irakurtzeko eskatu dit. «El Delegado Provincial del Ministerio de Información y Turismo. Guipuzcoa. San Sebastián, 19 de diciembre de 1961. Sr. D. Antonio Arrue, del Seminario Julio Urquijo de la Academia de la Lengua Vasca. Bueno au gaizki dago, baiña emen ori esaten du. San Sebastián. Querido amigo: Te confirmo nuestras conversaciones sobre un semanario en vascuence. Quiero comunicarte que me parece interesante como proyecto del Seminario Julio Urquijo. Ten la seguridad de que caso de que vuestra idea prospere podéis contar conmigo para apoyar vuestras gestiones. Recibe un fuerte abrazo de tu buen amigo. Felipe de Ugarte.» Onezaz Arrue jaunak esan nai zuena auxe da. Ontarako asmo ori ondo lotuta, ondo tajututa eraman bearko da eskabidea egiteko. Bere aldetik eta gure aldetik gauza orri begiratuko diogula eta onezaz gafierra iruditzen zaiola egoki litzakeala ordurako gauza oriek ikusiak egon bear dutelako, datorren San Sebastian inguruan, egun batez, batzar onen bigarren aldia izatega ontaz mintzatzeko. Ordurako proyekto bat edo olako zerbait izango dala eta orrezaz mintza gindezkeala. Guztiok dakigu gauza auek bide luze eta biurri xamarrak izaten dituztela eta orrenbestez eztaudela gauza guztiak egiñak. Baiña, tira, badi-rudi bide bat badagoela.

Norbait: Ongi izango litzake zerbait euskeraz.

L. Mitxelena: Beraz, orrenbestez bukatu egin bearko dugu.

Jose Maria Lojendio jaunak itzaldi bat irakurtzen du.

Norbaitek dio goiko mailletako guztia ere egokia dala.

A. Zugasti: Nor baldin bagera asteroko bat bear degula. No-lako asterokoa? Or dago bestaldeko **Herria**. Orren antzekoa. Ori iritxi bear da jo ta ke alde guztietan.

L. Mitxelena: Mintzatuko gera ortaz ere.

Jose M.^a Lojendio: Orregatik esaten det bide batez euskaldunak oitu bear ditugula euskeraz irakurtzen. Badira liburuak, baiña zoritxarrez oso irakurle talde txiki batek bakarrik irakurtzen ditu eta gizon jakintsuen artean ere ez tute naiko zabalerarik eta gai oiek ikutu bear dira, nai ta nai ez. Bide batez oitu bear ditugu irakurleak irakurtzen. Irakurlerik gabe ez tet uste ezertxo ere egingo degunik. Or azaltzen dira batzuetan orrelako liburu batzuk, ondo idatziak, baiña ulerkaitzak, ez bakarrik baseritarren tartean, baita gure artean ere. Zaillak izaten dira askotan ulertzeko eta uste det egin bear dala aztertu eta bear dan bezela erabili izkera, baiña al dan errexen. Errextasun ori da beti baserritarra gogoan eukita. Bestela ez baserritarren tartean, ez kaletarren tartean, ezta edozeinen tartean ere ez tira zabalduko liburu oiek. Bada or lan ikaragarria. Zoritxarrez askotan erosten dira liburu guziak eta ifiorik ez titu begiratu ere egiten. Ori egi aundia da. Ori danok ikusten degun gauza da. Gure euskera tankera al dan geiena errextu bear degu. Ori da bide egoki bat euskerari eusteko eta euskera bear dan maillaraifio goratzeko.

Gaztelu: Aitatu da baserri gaiak, errikoiak erabili bear dirala ta euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortu egin bear dala. Euskeraz irakurtzeko zaletasuna ez tala sortzen derizkiot. Zergatik? Gaur euskeraz irakurtzen dakienak, batez ere, baserri inguru aldetako oiek, ipuiyak, gaur idazten diran danak edo geienak badakizkite. Nik esango nuke «falta de inventiva» dagola novela batzuk idazteko. Zergatik ez tira beste ikuntzetatik artu ta euskerara itzultzen gaurko gazteriarri dagozkion novelak?

Jose Maria Lojendio: Bada bat orain dala denbora gutxi argi taratua, **Amabost egun Urgain-en**. Uste det oso liburu egokia ta oso zabaldua izan dala.

L. Mitxelena: Ontaz zerbait esan nai nuke. Bein Arantzazu-n auzi au beste modu batera zala gauza bat, oker ezpaldin banago, ebanjelioan datorrena aitatu nuen. Alegia, nere aitaren etxean gela asko daude eta guk ezin genezake ifior lotu. Bati iruditzen zaio novela dela bearren duguna. Ori egia da bear bada. Baiña idazleak ere novelatarako ez gogorik, ez gaitasunik ezpaldin badu, bere go-goa bestetara baldin badarama, beste zerbait egingo du. Uste dut ortatik bakarrik ez tatorrela geiegizko kalterik, ugaritasunetik ez-

tatorrela geiegizko kalterik. Uste dut Lojendio jaunak zearo arra-
zoia duela eskatzen duenean idazleak pentsa dezala norentzat
ari den, naizta bere goi maillako gauzak egiten baldin baditu
ere, piska bat pentsa dezala nolako irakurleak izan litzakean.
Eztut uste argitasuna ta goimaillatasuna elkarren etsai direnik
berez. Berez eztira etsai. Idazten dugun guztiok piska bat saia-
tuko baldin bagiña gauzak ezagutzen, zaildu bearrean, ezkendu-
ke kalterik egingo. Baiña norbaiti barrenak eskatzen baldin ba-
dio Gongora-ren antzeko gauzak egitea eztago ezer esaterik, es-
kubide osoa dauka. Eta goazen azkeneko zatira, eta azkeneko zatia
da len esan dudanez emen ondoren bezela zenbait asmo artzea
eta asmo oiek, au Euskaltzaindiak eratu duen ezker, Euskaltzain-
diari jasotzea. Lenbiziko gauza eta luzeen aztertu zana emen tea-
troa da. Jakiña, eztut uste ezer askorik aurreratuko dugunik eska-
tzeri baldin badiegu teatrogillei onelako edo alako teatro lanak
egin bear litzutekela. Berak eskubide osoa izango luteke guri eran-
tzuteko onelako edo alako lanak bear baldin baditugu gerok egin
ditzagula. Beraz balio duen gauza au da: emen esan zan, eta arra-
zoi osoa dute ori esan zutenak, teatro lana ezteza norbere maiean
gordeta eukitzeko. Ezta ere aldizkari baten orrialdeetan agertzeko,
eztala irakurtzeko, jendearen aurrean emateko baizik. Eta jendea-
ren aurrean emango baldin bada zerbait bearke gendukeala. Zer-
bait ori, jakiña, len izan ziran talde sariketen antzekoak egitea da.
Uste dut Labayen jaunak esan zuela batez ere eta gero alkarrekin
mintzatu giñan eta ori zan guztiok geneukan iritzia, nolabait ere
eratu bear litzakeala talde sariketa bat, orren bidez zenbait teatro
lan erri frankotan emango lirakeala eta orrela teatro lanak izango
lutekela orain baiño agertarazteko bide geiago. Ortarako ondo ba-
deritzazute onena izango litzake batzorde bat izendatzea, asmo ori
proyektu moduan jarri dezan. Nere ustez ortaz mintzatu diran tea-
trogilleek ezlirake gaizki autatuak izango. Labayen jaunak, berak
esan zigunez, badaki gutxi gora beera ori nola tajutu ditekean,
eta gero asmo ori Euskaltzaindiari aurkeztu, esan zutenez Euskal-
tzaindiaren izenean egitea izango litzakealako onena. Jakiña, ori
beste eta batera egin nai baldin bada...

Norbait: Bai, Euskaltzaindian egin bear dira.

A. Zugasti: Bai, bestela ezlirake egingo ta.

Norbait: Ala da bai.

Gaztelu: Esan liteke ala dala, eztakit.

L. Mitxelena: Nere ustea da, eta ori askotan agertu izan du-
dan iritzia da, Euskaltzaindia ezteza eta ezin izan litekeala eragille.
Ori gauza argia ta garbia da. Eragille izateko sortutako elkartasun
batek beste izaera bat bear du izan. Beraz, Euskaltzaindia ezta

eragille izango. Labayen jaunak emen aitatu zuenez uste du talde sariketa ori Euskaltzaindiaren izenpean egingo baldin balitz errexa-go izango litzakeala bestela baiño. Nere ustez bestela egitea obe baldin bada mundu guztiarentzat obe.

A. Miner: Nik eztakit non irakurri dedan edo entzun dedan gauzak erabaki nai ez tiranean edo aurrera eraman nai ez tiranean onena komisiok izendatzea dala. (Berriketak entzuten dira batera.)

L. Mitxelena: Ori oso ederki esana dago, ederki esana ta asko aitatu degun umore onez josia. Orain esaidazu beste bide ego-kiago bat.

A. Miner: Euskaltzaindia eztut ezagutzen. Zuek erabaki bear dezute, zuek antolatuz, zuek erabaki nola egin bear dan.

L. Mitxelena: Ni bear bada euskeraz eznaiz bear den bezin argi mintzatzen eta Platon-en liburuak bezela mintzatzen naiz. Or esan dana da: batzorde orren egitekoa izango litzake lenbailen proiektu bat aurkeztea. Bide zuzenagorik nai baldin baduzu zuk esan.

A. Miner: Nik eztakit ze asmo dezuten. Nire iritziz lenago...

L. Mitxelena: Euskaltzaindiaren egitekoa ezta teatro lana. Eta ni, esate baterako, ni eznaiz teatro lanean sartuko ezpaitakit ezer gai ortan.

A. Miner zerbait esaten asten da.

L. Mitxelena: Gauzak datozen bezela artu bear dira.

A. Miner: Nik uste det lendabizikoa dala...

L. Mitxelena: Nik uste dut lendabizikoa dala teatro lanen be- rri dakitenek mintzatzea eta ez teatro lanen berririk eztugunok. Teatro lanen berri dakitenak mintzatzea da lenbizikoa lana. Mundu guztian gauza bat egin nai denean, artan ikasiak daudenengana joaten da ta ez ezakitenengana eta ori da nik eskatu dudana. Ezta besterik. Eta ori da Labayen jaunak emen eskatu zuena. Ark noski bere burua etzuen jarri batzordekoen artean, baiña ori da eskatu zuena.

Norbait: Euskaltzaindiak sortu lezake teatrogilleentzat eskola bat, teatro idazleentzat. Idazleak bear ditugu, idazle egokiak, bai teatroan ta bai beste gauzetan. Zuk ondo esan dezu teatro zaleak beren artean egiteko billera bat, baiña orren bitartean eskola bat bear da. Teatro gaitan dakitenak gutxi dira. Jakin bear lukete ez bakarrik Euskalerriko teatro gaia, baita ere antzifakoak erde-raz, latifñez eta oraingoak. Sortu eskola bat. Euskaltzaindiak euki bear luke ardura au. Euskaltzaindia ortarako da. Irakurleak egi- teko asteroko bat ere sortu, asterokoak egiten dituelako irakurleak.

L. Mitxelena: Parkatu, baiña asterokoaz geroxeago mintzatu- ko gera.

A. Miner: Gipuzkoan zenbat teatro talde daude? Garrantsi aundiko arazoa.

L. Mitxelena: Nere eta emen gaudenon lekuan batzorde ortako jaunak baldin baleude, seguru aski galdera orri erantzuna emango loteke. Eztaude zoritxarrez.

A. Miner: Arratsaldeko teatro saioa ikusteko sarrerarik gabe. Orregatik esan nai det aber Donostian bertan ezin ugaritu litekean. Urtean bi aldiz bakarrik egiten da. Esan nai nuke onekin ba ote gendukean teatro bat edo toki bat urtean bost, sei aldiz, zortzi aldiz egiteko. Eta zenbat talde dauden, zenbat tokitan egin litezkean jakin bear litzake.

J. A. Arkotxa: Uste det, gogoan eztaukat, baiña Egan-en Labayen jaunak agertzen zuala zenbat talde aurkeztu ziran azkenengo txalpelketara. Izenak emandako bi ez beste danak aurkeztu irlan, nik eztakit amairu ziran ala amabost ziran. Eta orain banan banan asten bagera eztegu bukatuko. Itz egiten jarraitzen du. Saio batzuk egiteko zenbat lan egin bear izaten dan, gogoa daukagu ikusteko, baiña egiteko eztaukagu gogoa. Ni orain ogetaamar urte asi nintzan teatro lanetan erririk erri. Bastante erritan ibili naiz eta esango det berriz ere Motriko, Ondarroa, Deba, Lekeitio, Elgoibar, Eibar, Bilbo, Vitoria-ra joan giñan eta zorionez edo zoritxarrez Donostira etortzeko asmoa degu. Baiña jentea lantzeko zenbat neke, eta egia esan bear bada ia Zubikaray jaunak eta gu aren laguntzaille, zenbat neke artu eztegun, eta ikusi degu jendeari gogoko zaiola, baiña nork egin du alegin? (Txaloak egiten zaizkio).

L. Mitxelena: Ikusle guztiak esker onez daude teatrolariengana, dudarik gabe, eta Arkotxa jaunak esan duena ezta egia besterik. Badakigu emen teatroak etsai asko dauzkala eta bata da dirua. Alegia, zenbait lekutan euskal teatroa, esate baterako, Errenterian ifioiz edo bein ematen da, baiña ez nai litzakean bezela. An leno baziran bi leku, ederrak, zeuzkatenak eta orain itxi egin dituzte. Zinea dago eta etzaie atsegin ifiork eskatzea teatroa emateko eta ortarako kendu egin dute. Galdera bat egingo det. Jakifia, gauzarik ederrena litzake etxe bat, euskal teatro bat egitea, eta ez euskal teatro bat egitea bakarrik, baizik eta erri bakoitzean teatro bana egitea. Orduan izango genduke lekua ugari. Eta galdera egin nai nizuke ia zuri iruditzen zaizun ori bide erosoagoa denik, emen batzorde bat autatzea baiño.

Pingliang-go apezpiku jauna mintzatzen da eta galdetzen du ia diru kontuak nola egiten dituzten eta zertan dagoen traba.

L. Mitxelena: Ortan aldezaurretik izketatzen dira ta alako bat edo euneko onenbeste ematen dute.

A. Irigoyen: Zinea ematea naiago izaten dute sarri askotan dirua lan gutxiago eta arrisku gutxiagorekin geiago irabazten du. telako.

J. A. Arkotxa: Baiña ori gertatzeko zenbat lan egin bear izan dan.

L. Mitxelena: Emen beste gauza bat dago. Esan da Donostian urtean bitan bakarrik ematen dala, ezta ala? Zearo penagarria da, baiña ni oso oker ezpaldin banago ori gertatzen da Donostiako Ayuntamentuak teatro zarra norbaiti errentan utzi dionean aldezaurretik kondizio ori ipiñi diolako. Ala uste dut.

A. Irigoyen: Bilbon ere gauza bera gertatzen da. Arriaga Teatroak orain zinea besterik eztu ematen, baiña lege bat dauka nondik datorren eztaqidana eta urtean eztaikit zenbat egunetan teatroa ematera beartua dago, nai ta nai ez, irabazi naiz galdu. eta orregatik ematen dute teatroa noizean bein.

A. Miner: Ez al liteke sortu teatro ibildari bat?

L. Mitxelena: Nork eta zerekin? Ori da kontua.

A. Miner: Dirua asieran jarri bearko da.

L. Mitxelena: Baiña nork jarriko du?

Beste bat: Emen ezer erabakiko bada batzorde bat izendatu ta aurrera, bestela eztegu amaituko.

L. Mitxelena: Emen gauza bat da garbia, taldeak bear dute emen edo an teatroa eman. Bein urte guztian ari, ondarrutarrak ortan besteak baiño trebeagoak agertu dira eta ibili dira Euskal-lerri guztian barrena, gaiñerako geienak etxean dabilta, ari dira urte guztian bein edo bi aldiz gauza bat beren errian ipintzeko. Jakiña, oiek laguntza bat izango luteke agertuko balira erritik kanpora eta ortarako emen esan zuten eta neri etzait gauza okerra iruditzen, lenago ere egin izan baita, talde sariketa bat sortzea. Talde sariketa orren kondizioak nork eman bear ditu? Ortan dabiltzanak. Nai baldin baduzute ori esan liteke onela. Aukera dezagun Labayen jauna eta Labayen jaunak ar ditzala berekin nai dituenak. Berak jakingo du zein diren sail orretan geien dabiltzanak eta egin dezatela zerbait. Beintzat ortatik zerbait sortzen baldin bada teatro talde sariketa bat sortuko da. Ezlitzake gutxi, len ezpaitaukagu. Ontzat ematen da ori?

Boz batzuk diote: Bai.

L. Mitxelena: Geroago mintzatu giñan gaiaz orain. Estratosfera aize piska bat geiago du eta eztaikit nola asmotan sar genezakean. Lenbizi, uste dut ez tudala gelegikeririk esango guztion izean Julian Azeptilla andreari gure eskerra agertzen baldin ba-

diot. Biziro itzaldi ederra egin zigun eta oso gogoz guztiok entzun genuena (Txaloak egiten zaizkio). Orain Goikoetxea Jaunari dago-kion zerbait esatera nijo. Eskola dugula euskalzaletasun guztiaren oinarria eta euskeraren oinarria. Uste dut ortan ere danak bat gatzozela. Orain bereala zerbait egin bear litzakeala norbaiti iru-ditzen baldin bazaio gai ortan gure iritzia agertuaz gainera?

Gatzelu: Egin al liteke ezer garai ortan, ezer iritxi al dezakegu?

L. Mitxelena: Nere ustez emen bertan, Donostian bertan, sail ortan asko egin da, ezta gutxi egin, eta ori izan da batez ere pertsona bat dela bide, anderaño bat dela bide. Uste dut auzi ortan Euskaltzaindiak zerbaitetan lagundu balezake lagunduko duela. Ala uste dut.

Gatzelu-k dio eskoletan, estaduaren eskoletan lortu bear li-tzakeala.

L. Mitxelena: Nik estaduaren eskolen berri zerbait badakit eta gauza bat esan nai nuke: emen gaudenon artean, egia esan, geien-tsuenak eztute seme alabarik, baiña, tira, gainarakoen artean, be-ren seme alabak estaduaren eskoletara bialtzen dituztenak altxa dezatela beatza. Are geiago, bigarren mailan ere estaduaren ins-titutora bialtzen dituztenak altxa dezatela beatza. (Berriketa sor-tzen da batera.) Emen, eta orain eznaiz euskalzaletasunarekin ari, Donostian instituto berria bear zala-ta ari ziran eta Donostiko agintari ezagun batek esan zuen «¿pero que problema hay con el instituto?» Beretzat etzen problemarik. Errenterian badakit nork esan duen «bueno, baiña ze problema dago aurrakin?» Esan nai da aur asko eskolarik gabe edo dauden. Ze problema dago? Ori da gogoko ezalako dirudienez estaduaren eskoletara eta institutoe-tara seme alabak bialtzea. Beste galdera bat ere sortuko litzake bereala. Estaduak, eman dezagun, estaduak uzten digula eskubidea aur guztiei euskeraz irakasteko, eztigu utziko baiña eman dezagun utzi digula, ba ote genduke maisurik? Ori oinarritziko gauza da, mundu guztiak dakien gauza da. Emen, Euskalerrian, luzaroan ezta Euskalerriko seme alabarik, alabak, tira, bat edo beste eta orain piska bat geixeago asi da, baiña semerik ia batere ortan saiatu. Emen diru otsera dijoa jendea.

A. Irigoyen: Fraile edo apaizen artean batzuk.

L. Mitxelena: Bueno, bai, ori bai.

Gatzelu: Fraile eta monjak ikastetxeetan egin bear lukete. (Ba-tera egiten da berriketa.)

Norbaitek dio gurasoak firmak batuta egin bear litzakeala. (Ba-tera entzuten da berriketa.)

L. Mitxelena: Ortan arrazoi osoa duzu. Euskaldun askok go-goan eztaukana da lenengo maisutza gurasoena dala, lenengoa eta

bearrezkoena. Eta askotan esana, gurasoak eskatuko baldin balute eta bear bezela eskatuko baldin balute, bear bada zerbait aterako luteke, baiña eztiote eskatzen. Eta gauzak dauden bezela daudeño ez tute eskatuko.

K. Ansola: Dio badagoela beste eskola bat gaztetatik aurrak joaten dirana eta gazteak eta zarrak ere eskola ortara joaten dira eta eskola ortan zergatik ezta ematen euskeraz? Nik beti esaten det au: apustu egin liteke eunetik berrogetaamar euskera dakitena dirala, edo berrogei. Eta meza guztietan gertatzen da ori Do. nostian. Zer egiten dute apaizak zerbait meza guztietan, ez tet esaten meza batean, goizeko seiretako edo seiterdietakoan, ez, zerbait meza guztietan sartzeko. Uste det meza guztietan zerbait bada ere beartuak daudela euskeraz egitera, lautik bat euskeraz. Ongi izango litzake euskaldun guztiak parroko jaun guztiai eskatzea, alpe rrik bada ere.

Beste batek udaran gertatutako gauza bat aipatzen du.

L. Mitxelena: Ni eznaiz elizgizonen adiskide min oietakoa, baiña emen gauza bat argi ta garbi dago. Euskalzaletasunean ifongo lantegiko ofizioiko euskaldunak, eta ezta kit elizgizonak sail ortan sartu litezkean, ongi xamar agertzen baldin badira dudarik gabe elizgizonak dira. Ori jakiteko ez tugu onera begiratu besterik, onera eta edozein euskal batzarretara eta edozein lekutara. Uste dut gaiñerakoak euskalzaletasunean elizgizonen mailan ibiliko baldin baiña gauden baiño obetoxeago egongo gifiakela.

Norbaitek: Obispo jaunak Bizkaian agindu du euskeraz egiten dan eliza guztietan zerbait erderaz erantsiteko. Dio gaiñera Euskaltzaindiak egin dezala eskabide bat Obispo jaunei zuzendua euskera sartu dezaten euskaldunak dauden parrokitan.

A. Irigoyen: Egin dezake.

L. Mitxelena: Gaiñera beste gauza bat esan nai dut. Emen euskera kontuan beste gauza bat gertatzen da eta ori ere esan bearrekoa da. Beti itxapleruak besterengana botatzen ditugu eta gerok egiten ditugunak ere jaso egin bear ditugu. Ez al duzute ifiork ezagutzen norbaiti esan diotela: baiña mutillak edo neskatzak euskeraz egiten baldin badu eragozpen larria izango da gero estuadiatzeko. Eztezute beifiere entzun ori?

Norbaitek: Bai, sarri, sarri.

L. Mitxelena: Euskalzale, izenez beintzat, euskalzale diranen artean entzuten al da ori? Bai. (Jentea batera ari da.)

Norbaitek: Eztut uste.

L. Mitxelena: Bai, bai, frankotan gaiñera. Nik bein baiño geiagotan entzun dut neronek.

L. Mitxelena-k zerbait dio eta berriketa entzuten da danak batera.

Norbaitek: Eskatu bear bada eskatu, lortu bear bada lortu.

L. Mitxelena: Alegia guk nai dugu beti bestek... (Berriketa, luzaro batera.)

Pingliang-go apezpikuak gurasoa dala lenbizikoa dio. (Berriketa, luzaro batera.)

L. Mitxelena: Teatro gaitan eztakit ezer, baiña ortan zerbait badakit. Irakaskintza emen dagoen bezela dagoño eztago ezertxo ere egiterik sail ortan nere ustez, ezpaitira bakar bakarrik ikastetxetakoak izkuntzari ajola gutxi ematen diotenak, baita gurasoak ere. Eta Donostian ondoren negargarriak izan dituzte galontan egin diran saioak. Ondorenak argitaratuko baldin balira aski lirake gu betiko lotsatzeko eta gu betiko ixilarazteko. Ori da egia. Irakaskintza orain dagoen bezela dagoño ikastetxeetako nagusiak erakutsiko dute berak nai dutena eta gurasoak joango dira ardiak artaldean ibiltzen diran bezelaxe eta or eztago ezer egiterik.

Eta oraindik zerbait geiago luzatu ziran izketak.